IMANOL MURUA
HUMBERTO UNZUETA

Suetena Belfasten

narratiba
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1996 Imanol Murua, Humberto Unzueta
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1996ko ekaina
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Falls-eko lagunei

Katolikoa ala protestantea?

– Zer zara, Imanol, katolikoa ala protestantea?

– Ez bata ez bestea. Ateoa.

James katolikoa da, katoliko praktikantea, Belfast Mendebaldeko gazte askoren modura. Clonard elizan xirula jotzen du elizkizun berezietan eta musika ikasketak egiten ari da unibertsitatean. Hogeita bat urte ditu, bere kontura bizi da hamazazpi zituenetik. Helduagoa dirudi, hogeita bost botako nizkioke.

Falls errepideko auzune katolikoetako batean ostatu hartzeko asmoz genbiltzan Humberto eta biok orain bi aste Belfastera heldu ginenetik, baina ez da erraza Belfast Mendebaldean alokatzeko gela bat topatzea. Dena den, herenegunetik Fallseko Clondara kaleko etxe batean bizi da Humberto, eta auzune berean lortu dut gela bat neuretzat gaur bertan. *Andersonstown News* astekariko iragarki laburretan irakurri nuen atzo logela bat alokagai zeukatela Rockmount kalean. Jamesek jarri zuen iragarkia. Goizean ikusi dut;

tratua egin eta arratsaldean ekarri ditut trasteak Ormeau errepideko etxetik.

– Ateoa zara orduan. Baina ateo katolikoa ala ateo protestantea?

– Abertzalea, zuek katolikoak bezala.

Bart telefonoz ere galdezka aritu zitzaidan, etxean libre zeukan gela hartzeko interesa nuela adierazi bezain laster. Nongoa nintzen, lehenik. Euskalduna. Zein lanbide. Kazetaria. Belfasten zer egiten dudan. Ingelesa ikasi bitartean, *Euskaldunon Egunkaria*-rako artikulu batzuk idatzi.

Katolikoak dira Jamesen senideak, eta auzune katolikoetan bizi izan da beti. Ikastetxe katolikoetan egin ditu oinarrizko ikasketak. Katolikoak ditu adiskide gehienak. Unibertsitatera joaten denetik protestante batzuk ere ezagutu ditu. Helen, andregaia, katolikoa da, auzune protestantean bizi arren. Ama ere katolikoa du Helenek, protestantea aita.

– Bai, Imanol. Baina zure komunitatea katolikoa da ala protestantea?

– Katolikoak dira nire herriko fededun gehienak. Katolikoak dira nire gurasoak.

Jamesek lau urte daramatza Rockmount kaleko 51. zenbakian bizitzen. Rock kaleetako bat da Rockmount; Rockville, Rockmore eta Rockdole dira besteak. Eta Rock da auzuneko taberna.

Tea hartzen ari gara etxean: egongela, sukaldea eta bainugela daude beheko solairuan, bi logela goikoan. Mahairik ez dago, ez sukaldean ez egongelan. Alfonbra gainean utzi du edalontzia Jamesek.

– Nahi duzuna esango duzu, Imanol, baina zu katolikoa zara. Ateo katolikoa.

Time for peace

Falls-en gaude, tregua garaian baina gerra giroan.

Hiriburura heldu eta biharamunean hurbildu ginen Belfast Mendebaldera, Txalaparta argitaletxeak plazaratutako Gerry Adams-en *Kalean* liburuan behin eta berriro irakurritako Falls eta Shankill ezagutzera. Shankill auzune unionista dela eta Falls errepublikarra jakin barik ez da komeni Belfastera nolanahi etortzea. Elkarren ondoan daude biak, baina elkarri bizkarra ematen, politikoki eta militarki. Burdinazko eta adreiluzko hesiez banatutako bi auzune hauetan laburbiltzen da modurik bortitzenean Ipar Irlandako gatazka. Mugimendu erepublikarraren bihotzean izan ginen goizez eta mugimendu lealistarenean arratsaldez.

Hirigunetik abiatuta Falls errepidean sartuz gero, eraikin luzanga batek erakarriko du zure atentzioa. Divis Flat da, Belfast Mendebaldeko arkitektura estiloa apurtzen duen etxeorratza. Katolikoak dira bertako bizilagun guztiak, baina

Armada britainiarrak hartuta dauka terraza: kamera, antena eta mikrofonoz betea, bizilagunak zelatatzeko.

Divis kaletik Shankill protestanterako bidea berehala egin dezakezu, Northhumber Land kaletik barrena. Erlojuko hiru minutu. Burdinazko ate erraldoi batek eta eliza batek ezartzen dute bien arteko muga.

Divis Flat atzean utzi eta Fallsen gora jarraituta, segituan ohartuko zara auzune katolikoan zaudela. Ezkerreko horman Bobby Sands heroiaren hormirudi ikusgarria daukan etxean zintzilik dago Irlandako bandera berde-zuri-laranja. Sinn Fein alderdiaren egoitzetako bat da. Handik aurrera koloretsuagoak dira hormak, grafitiz eta muralez apainduak. Egunkarietan ikusitako sueten garaiko pintada ezagunenarekin topo egingo duzu Sinn Feinen egoitzatik ehun metrora: «25 years. Time for peace. Time to go» (25 urte. Bakerako garaia. Aldegiteko garaia). Koloretsuagoak bezala, zikinagoak ere sumatuko dituzu kaleak, ez baitago zakarrontzirik; IRAk soldadu britainiarren kontrako bonbak zakarrontzietan jarri izanaren ondorioz agian. Eta berdin, telefono ka-

binarik ere ez duzu aurkituko. Postetxera joan behar izaten da telefono publikotik deitzeko.

Taxiak dira gehien ikusten direnak Fallsetik gora eta behera. Belfasteko mendebaldeko eta iparraldeko auzune katolikoetako biztanleen garraiobide erabiliena da taxi beltza. Hiriguneko Castle Court enparantzan daukate geltoki nagusia, Victoria etorbideak Castle kalearekin izkina egiten duen bidegurutze zabalean. Falls errepidearen eta hiriaren erdigunearen arteko lerroa markatzen du geltokiak. Taxi beltzak Fallsetik gora eramango zaitu erremediorik gabe, ez du beste biderik ezagutzen. Behin Whiterock eta Falls errepideen arteko bidegurutzera iritsiz gero, bi bide har ditzake taxiak: bide nagusiari segi Andersonstown auzune aldera edo Whiterockeko errepidea hartu Ballymurphy aldera. Shankill protestantearen bide paraleloa jarraitzen du Whiterockek, Andersonstownerako bide nagusia apurka urruntzen doan bitartean.

Ballymurphy, langabeziak eta marginazioak gogotik astindua eta bi instalazio militarren mende bizi da, Armada britainiarraren gotorlekua goiko muturrean eta RUCen (Royal Ulster

Constabulary, Ipar Irlandako Poliziaren) komisaria erraldoia behean. Eta koadroaren marko gisa, auzunea inguraturik daukan adreiluzko hesia, Berlingo harresia gogorarazten duen bi kilometroko hesia, Peaceline (bake-lerroa) eta Peacewall (bake-horma) izenez bataiatua, Falls inguruko Springfield eta Shankilleko Springmartin auzune gatazkatsuak bereizteko eraikia.

Gerraren hormaren mutur batean zabalik dagoen atetzarra zeharkatuta, Springmartinen *Union Jack* bandera zuri-gorri-urdina begiztatuko duzu. Erakunde lealista –unionista 'ez demokratikoen'– eremuan zaude. UFF eta UVF talde paramilitar lealisten beso politikoak diren UDP eta PUP alderdiek bertan dauzkate beren bulego nagusiak. Langabezia, marginazioa eta droga arazoak hemen ere. Fallsen tankera hartuko diozu Shankilli. Ez du auzune aberats itxurarik. Baina ez dira zakarrontziak eta telefono kabinak falta.

Hormirudietako bat: buru-estalki beltzez jantzitako bi soldadu unionistek, pistolak mehatxuan airera zuzendurik, Ulsterko bandera eusten dute: bi marra gorri oihal zuria gurutzatzen;

banderaren leloa: «No surrender» (Ez dugu amore emango).

Goitik behera egin genuen Belfast Mendebaldeko auzune protestanteen bizkarrezurra den errepideko ibilaldia, eta Northhumber Land kalera iritsi ginen atzera, handik barrera Fallsera itzultzeko. 25 urtez elkarren aurkako gerran bizi izan diren bi auzuneak bereizten dituen metalezko atetzarra zabalik dago orain. Treguan gaude.

Belfast hegoaldean egon gara Fallsera bizitzera etorri aurreko bi asteetan: Ormeau errepidean Imanol, Hego Irlandako hiru ikaslerekin; nerau, Humberto, Queen’s Unibertsitate inguruko Stranmillis errepidean Jenny eta Iri-rekin.

Ormeau etorbidean protestanteen kolore laranja (orangista) da jaun eta jabe, nahiz eta jaiotze-tasak katolikoen aldera jo duen azken urteotan. Ballynafeigh orange-etxearen parean bizi zen Imanol, eta «Good Save the Queen» kartela irakurri behar izaten zuen etxetik irteten zen bakoitzean.

Stranmillis kalea, unibertsitate inguru osoa bezala, zonalde mistoa da, eta halakoa zen gure etxea ere; protestantea Jenny eta katolikoa Iri. Ipar Irlandan langabetu gehiago dago katolikoen artean protestanteen artean baino, baina here-negun arte nire etxea izan zenean bestelakoa zen proportzioa: katolikoen %100ak lana zeukan eta protestanteen %100 langabezian zegoen. Iri banketxe batean lanean hasi berria da eta Jennyk bi urte daramatza lanik aurkitu ezinik. Gi-zarte Segurantzak hamabostero ematen dizkion 80 librekin irauten du, telebista bat alokatu eta egun osoa zapping egiten. Tarteka Sheila etor-tzen zaio bisitan eta hamar garagardoko kutxa bana husten dute, eta asteburuetan vodka boti-la laranja uraz lagunduta. Ez dira tabernetara maiz joaten, garesti baita edatea.

Behin bakarrik joan nintzen tabernetara Jenny eta Iriren adiskideekin, Europa Hotelaren aurrean dauden The Crown eta The Robinsons famatu eta antzinakoetara. Robinsons 1895ean zabaldu zuten, baina galdu du zahar itxura, IRAk lehergailuz kiskali zuenetik.

– Jill, nola nabaritzen duzue nor den katolikoa eta nor protestantea?

– Ez dugu nabari.

– Hitz egiteko moduan ere ez?

– Ez. Ezagutu berri duzun norbait katolikoa ala protestantea den jakiteko, izena galdetu behar diozu lehenik. Deitura irlandarra badauka, katolikoa ziur. Ingelesa badauka, ezin jakin. Hurrengo pausoa, bizkorrena, non bizi den galdetzea. Hirigunekoa ez bada behintzat, aise asmatuko duzu.

Lavery's-en biltzen dira normalean unibertsitariak. Auzune protestante eta katolikoetako gerratik urrun bizi da Lavery's, baina IRAk suetena iragarri zuenetik Ipar Irlandako hilketa 'politiko' bakarra pub honetan gertatu zen. Droga saltzailea omen zena, IRAk sarritan mehatxatua, tiroz hil zuten bi ezezagunek. Talde armatu errepublikarraren ekintza izan zela esan zuen prentsa unionistak. Fallsen inork ez du txintik atera.

Jennyk ere gatazka politikotik urruti ikusten du bere burua, suetenak betirako irautea da bere kezka politiko bakarra.

– Alde ederrean bizi gara orain. Lehen, edozein denda edo tabenatara sartzeko miatu egiten zintuzten. Orain zoragarria da.

Neska jatorra nuen Jenny, lagun ona. Nik etxea uzteko bezperan, lanpostua lortzeko bidean zegoela aipatzeak asko poztu ninduen.

– Zertan lan egingo duzu?

– RUCen egin dut eskabidea. Begira, frogarako hitzordua eman didate jadanik.

«Miss Jenny Huston:

»Royal Ulster Constabularyn sartzeko zure eskaera jaso dugula adieraztearekin batera, ondoko leku eta orduan Gaitasun Froga egitera ager zaitezen erregutzen dizugu.

»RUC Gamerville, Gamerville Rd, Belfast. Asteazkena, 1995eko maiatzak 31, arratsaldeko ordu bietan.

»Zure nortasuna frogatzeko agiriak ekarri, mesedez, gutun bonekin batera.

»Besterik gabe,

»A. Mark. inspektorea».

Ingelesezko eskolak ematen dizkigun Karenek gela bat alokatu dit Clondara kalean daukan etxean. Falls errepideak josten dituen ehundaka kaleetako bat da Clondara. Ez da kale sonatua, baina ingurua bai. Graham apustu etxea eta Rock taberna daude aurrean, Gerry Adamsen *Kalean* liburuko «Apustu segurua» kapituluan agertzen direnak.

Donegall, Whiterock eta Falls errepideek bat egiten duten bidegurutze ospetsua bertan daukagu, paramilitar lealisten ohiko atentatu lekua. Fallsen gora edo behera joanda, auzune katolikoak baino ez dituzu aurkituko; Whiterocketik abiatuta, Springfield eta Ballymurphy aldera helduko zara, Gerry Adamsen jaiolekura, non langabezi tasa %70ekoa den; baina Donegall errepidetik behera joz gero, berehala iritsiko zara hiriguneko auzune protestanteetako batera: hamar minutu oinez eta bakarra autoz. Errepublikarren bidegurutze honetan sartzea erraza dute lealistek, atentatua burutu ondoren hanka egitea bezala.

Falls-Donegall izkinako dendako egunkari saltzailea hil zuten tiroz 1991ko abuztuan. Urte be-

reko irailean garbitu zuten beste dendari bat Clondara kaletik gertu. Bidegurutzeko ileapaindegiko ugazaba handik bi urtera. Harakina ere tirokatu zuten 1993an, baina bizirik atera zen. Atentatu hauek guztiak egiteko autoak Donegall errepidetik hurbil aurkitu izan zituzten. Atxiloketarik ez.

– Suetenaren aurretik hemen bertan eztanda egin zuen leihotik barrura jaurtitako lehergailuak –esaten ari zaigu Karen, Rock tabernan–. Lealisten granada bat.

– Hildakorik?

– Ez, mirakulua izan zen. Igande arratsaldea zen, baina leiho ondoko mahai honetan ez zegoen inor eserita. Gogoratzen, Kate, danbatekoak eman zigun ezustekoa? –Rock tabernatik berrogeita hamar metrora dago Karenen etxea.

– Gogoratuko ez naiz ba? Telefonoz hizketan ari zinen, beti bezala –Kate sarritan izaten da Karenen etxean; Fallsen bizi da bera, baina kilometro pare bat beherago.

Burdinazko atea dauka Rockek, Fallseko taberna guztiek bezala, eta kamera atarian. Tregua aurretik zarratuta edukitzen zuten atea, eta

susmagarria zenari ireki ere ez. Orain, bultzada leun batekin zabaltzen ahal da, baina kamerak piztuta jarraitzen du.

– Leihoetan ikusten dituzuen burdin-sareak atentatuaz geroztikakoak dira –guinnessari azken tragoa eman dio Katek.

Barmana barra ixten hasia da. Etxeratzeko tenorea.

Failte Romhai

– Tamalez, guk nahi baino gutxiago mintzatzen dira gaelikoz Irlandan, iparraldean zein hegoaldean –Sinn Feineko goi karguetarik bat mintzo zait, Pat Rice.

Betaurrekodun gizon alai hau ez da ‘Gaeltzaindiko’ kidea, gaelikoak ez baitu oraingoz behintzat Euskaltzaindiaren pareko akademiarik; baina Belfasten herri zeltarraren hizkuntzari buruzko galderarik eginez gero, Pat Ricengana bidaliko zaituzte:

– Pat Ricek erantzungo dizu hori.

Eta bera kontent euskaldunokin berbetan egiteko.

– Ingelesaren eta britainiarren kolonialismoak dauka erru zati handia. Baina bertokoek ez dugu behar beste ahaleginik egiten gure hizkuntza zuzpertzeko. Batzuentzat nahikoa da nazionalista edo errepublikarra izatea norbere burua-rekin bakean egoteko, bere irlandartasuna kolokan jarri beharrik gabe.

Gaelikoz edo ingelesez hitz egiten du normalean Pat Ricek. Jakinaren gainean gaude ordea, italiera, espainiera eta alemaniera mintzatzen dituela. Baita japoniera ere. Gurekin euskaraz ari da.

– Ingelesak estaltzen ditu Irlandako hizkuntz maparen zati gehienak.

Nekazal-gune batzuetan ezik –*gaeltacht* izenez ezagutzen direnak–, ingelesa da nagusi uhartean. Cork, Kerry, Mayo, Galway, Wateford, Meath edo Donegal konderrietan, hala ere, gaelikoa da erabiliena, jatorrizko hizkuntza.

– *Gaeltacht* hauek babestu asmoz, laguntzak ematen ditu Dublingo Gobernuak. Laguntza hauen bitartez nekazal guneen ekonomia babestu eta indartu nahi dute, gaelikoarentzat arriskurik handiena den emigrazioa saihesteko. Baina geroz eta *gaeltacht* gutxiago daude eta gaelikodunak urritzen ari dira eremu horietan.

Lazkaoko barnetegian hamabostaldia egingo dute aurten ere Pat Ricek eta bere neskalagunak. Hirugarren astea ere bere Euskal Herri maitean igaro nahi du.

– Ez, hirugarrena klasean ez. Ingurua hobe ezagutzeko eta lagunak berriro ikusteko. Txillardegi-eta.

Iaz bigarren maila gainditu zuen eta aurten hirugarrenari helduko dio abuztuan. Badaezpada, lezioa ikasita joan nahi du, eta euskal gramatikako liburu bat lortuko ote diodan eskatu dit.

– Bai, noski. Baina trukean gaelikozko berba eta esaera batzuk erakutsiko dizkidazu.

– Failte Romhai (ongi etorria), horra lehen ikasgaia.

Connor Belfasteko merkatalguneko Waterstones liburudendan lanean ari da hiru urtetik hona. Lankide gehienek jatorri protestantea izan arren, 25 urteko mutilak ez du bere jatorria eta izaera irlandarra ezkutatu beharrik. Etxera itzultzean aldiz, segurtasun neurriak hartu beharko ditu. Hiriko hego-mendebaldeko Upper Dumurry auzunean bizi da, lealistez inguraturik. Bizileku arriskutsua edozein katolikorentzat, eta areago Connor bezalako *sinn feiner* batentzat.

Waterstones liburudendara sartu aurretik, atariko zinpeko goardiari nire ingeles baldarraz Connorgatik galdetu diodanean, ile gutxiko eta aurpegi zurbileko zaindariak erantzun dit:

– Connor? *Fenian* gogaikarri hori? –eta alkandoraren mangapeko tatuajea mugitu du nire sudur aurrean–. Goialdean egoten da.

Zinpekoak purrustatu bezala, bigarren solairuko mostradore txikian egoten da Connor, politika eta historia liburuen atalaren parean. Bazter aproposa bera bezalako historialari kuxkuxero batentzat.

– Humberto naiz. Euskara ikasi nahi duzula esan didate, eta nik gaeliko apur bat ikasi gura nuke. Elkar laguntzeko asmotan etorri naiz.

– Barkatu?

– Pat Riceren partetik nator –eta Connorri hasierako aurpegi mesfidatia ezabatu zaio orduan–. Barkatu bigarren atrebentzia baina, nor da hor beheko zinpeko hori?

– Zakar jardungo zizun –lortu diot irribarre sinpatikoa–. Shankillekoa da, gaztetan talde armatu unionistetan ibilitakoa. Suetenak bergizar-

teratzeko beta eskaini dio, baina oraindik ez da zeharo baretu.

Connor karreraduna da, ongi mintzatzen da gaelikoz, baina eskolaren batean lana lortu ezinik dabil, irakasle premia hainbestekoa den herri honetan.

– Eskola protestanteetan ez daukat inolako aukerarik. Katolikoak berriz, Elizaren menpe daude; eta baldintza guztiak soberan betetzen ditudan arren, ez daukat gotzainaren sinadurarik. Atzera bota dizkidate eskari guztiak.

Bienbitartean, liburudendako lanari eutsiko dio. Bertako soldata motzarekin eta gaelikozko klase batzuekin ordaintzen ditu etxeko errenta eta asteburuko guinnessak. Lortu dut irakaslea... eta trago-laguna.

Bejondeizula, Arthur Guinness

– Maite dut guinnessa.

Erantzun zuzena hori dela ikasiko duzu. Irlandarrek atsegin dute atzerritarra edari nazionala edaten ikustea, eta mila aldiz egingo dizute galdera berbera.

– Atsegin al duzu guinnessa?

Guinnessa bezalako garagardorik ez dagoela esandakoan, harrotu egingo dira. Eta ea Dublingo guinnessa inoiz dastatu duzun galdetuko dute hurrena.

– Dublingo guinnessa da onena. Ez al duzue dastatu? –Connor aditua da kontu hauetan. Gaueko hirugarrena edaten ari da, mahai gaineko bi edalontzi hutsek salatzen dutenez.

– Probatu nuen Dublinen lehenengoz izan nintzenean. Ez nuen alderik igarri –gaueko lehen pintarekin ari naiz.

– Guinnessa Dublinen egiten bada, berdina egingo dute Irlanda osorako! –neronek buruan neukana bota du Humbertok.

– Bai, baina garraioan-eta moteldu egiten da. Eta guinnessa ez da Dublinen bakarrik ekoizten. Lehen bai, baina orain kanpoan ere badituzte garagardo faktoriak. Londresen badaukate erraldoi bat. Eta harrigarria bada ere, Nigerian dago, Lagos hiriburuan, faktoria handiena.

– Onena Donegal-ekoa dela entzun izan dut –ardotan jakituna denaren bisaia marraztu zaidala uste dut.

– Ez dakit ba Dublingoa bezain ederra den, baina on askoa da, bai, Donegaleko guinnessa ere. Elkarrekin joan behar dugu astebururen batean! –edalontzia gora jaso du Connorrek, trago luzea eman aurretik. Bibote zuria utzi dio aparrak.

Dublinen lehendabiziko aldiz izan nintzenean, oharkabean Guinness faktoria aurrera iritsita, eraikina bera ikusi baino lehen usaindu egin nuen garagardo beltza. Kafe erre usaina aditzen hasi nintzen kalean behera nindoala eta, Arthur Guinnessen faktoriara zenbat eta gehiago

hurbildu, orduan eta sarkorrago, orduan eta gustagarriago sentitzen nuen usaina. Pare-parean nintzelarik, aise irudikatu nuen barruan irakiten ari zen guinness itsasoa.

– Garagarra xigortzen ariko ziren, erre usaina hartu bazenion. Garagar xigortuak belzten du garagardoa –zigarro bat itzali ahala iziotzen du bestea Connorrek.

– Hori al da guinnessaren berezitasuna?

– Garagar errea eta lupulua. Garagar xigortua eta malta ehotu ondoren, urarekin nahasten da likidoa. Jarraian lupulua botatzen zaio, eta irakiten jarri puskatean.

– Zer arraio da lupulua? –edalontzian daukan guinnesari begira ari da Humberto, barruan Lupulu igerian ikusiko duelakoan.

– Zerbezari zapore mikatza ematen dion landare bat. Osagai garestia da eta, nik dakidala, horretarako bakarrik erabiltzen da.

Lau milioi pinta guinness ekoizten dute egunero Dublinen, Saint James Gate kaleko faktoria zaharrean. Arthur Guinnessek 34 urte zituen 1759. urtean, orain faktoria handia dagoen leku berean zegoen garagardotegi erdi eroria erosi

zuenean. Saint James Gate kaleko garagardotegi ugarietako beste bat baino ez zen orduan.

– Bejondeiola Arthur Guinnessi! –edalontzia altxatu du Connorrek barrez.

– Bejondeiola! Bai horixe!

Topa egiten ari garela heldu dira tabernara Colon eta Laurence batetik, eta Hugh eta Malachy bestetik.

– Topa gutxiago eta trago gehiago, mutilak!

Edalontziak erdi beteta dauzkagula iruditu zait niri, baina erdi hustuta ikusi ditu nonbait Colonek. Arrazoiz betetako esaldia bota eta eserlekua hartu baino lehen joan da guztiontzat pintak ateratzera. Edalontzia hustu baino lehen ateratzen dute hemen hurrengo erronda, edaririk gabeko tarterik egon ez dadin.

Koadrila xelebrea bildu gara gaur. Connor eta Colon euskara ikasten ari dira, Xabier Gereñok ingeles hiztunentzat argitaratutako metodoaz. Colonen neskalagun zuberotarra, Laurence, liburu berarekin ari da bere oinarrizko euskara hobetzen; Larrañekoa du aita eta Iholdikoa ama –manexa, Laurencek dioenez–, eta haserre samar dago eurekin, Parisen bizi zirelarik euskaraz hazi

ez zutelako. Hughek, berriz, espainieraz egiten du ongi, Euskal Herriari egindako egonaldietan ikasita; Marijo iruindarrarekin hiru alaba ditu. Malachy ere Euskal Herrian egona da, eta euskaraz gehiago ikasi zuen espainieraz baino, hasiera batean; baina euskara ez dakien neska santurtziarrarekin maitemindu zen.

Gaelikoa dute ama-hizkuntza Colonek eta Connorrek, ingelesa Hughek eta Malachyk, frantsesa Laurencek eta euskara Humbertok eta biok. Ingelesez ari gara denok, Laurencerekin tarteka egiten dugun euskara apurra salbu.

Hurrengo erronda nik aterako dudala erabakita daukat, baina edalontziak erdi hutsak ikusi arte itxaroteko ohiturak galdu nau berriro, litro erdiko edalontziak kasik beteta ditugula altxatu baita Malachy barrarantz.

– Hurrengoa nik –abisu alferra egin dut.

Maddens tabernan gaude, Holy Trinity (Hirutasun Santua) osatzen duen hiru ostatuetako batean. Benetan deitura kuriosoa Kelly’s, Orchid eta Maddens tabernen ibilbide triangularrari eman diotena. Ez daude Fallsen, baina errepublikar askoren taberna maiteenak dira. Castle en-

parantzako taxi beltzen geltokiaren ondo-ondoan daude, hiriguneko ‘zati katolikoan’, eta horrek etxeko bihurtzen ditu.

Belfast Mendebaldeko jendea ikusiko duzu gehienbat, baina hiriko iparraldeko auzune katolikoetakoak ere bertara biltzen dira maiz. Estilo zaharrekoa da Maddens, Belfasteko taberna gehienak bezala: hiru solairu kaineroz betetako barra banarekin, egurrezko mahai beltz biribilak, egurrezko aulki beltzak inguruan. Beltza da kolore nagusia. Guinessaren kolorea.

Musika irlandar tradizionala jotzen ari da dozena bat laguneko taldea, garagardo pinta bana bi mahaitan pilatuta dituztela. Ez dute dirutruk jotzen, pintatruk baizik. Guinness pintak hustu ahala betetzen dizkie tabernariak. Gauean zehar zenbat edango duten kontuak eginda, ugazabari ez zaio hain merkea aterako musika ekitaldia. Biolin eta xirula soinua dira nagusi. Jendeak ez dio arreta handirik jartzen, eta ez du txalorik egiten. Baina nabari da entzuleek gozatu egiten dutela, eta batez ere musikariek.

Mahai guztietan etengabe hizketan ari da jendea, eta horretan dihardugu geuk ere. Hughe-

kin ari naiz Euskal Herriaren gainean, lepoan agerian dituen bi tatuajeak nire jakinmina piztu duten arte. Armiarma bat du lepoaren alde batean, *dad* hitza (aita) bestean.

– Nork egin dizkizu tatuajeak?

– Profesional batek. Tatuajegile profesional asko dago hemen.

– Zenbat ordaindu behar izan dituzu?

– Garesti samar. Besoko honegatik 60 libra. Gustatzen zaizu? –herensugea erakutsi dit. Itsusi samarra.

– Tira, ikusteko bai, baina neure besoan eramateko ez.

– Malachy! Erakutsi zilborreko tatuajea, gustatuko zaie.

Elastikoa gora jaso eta sabela erakutsi digu Malachyk: zilborra inguratzen dion armiarma sare beltz-beltza utzi du agerian.

– Demontre! Eta ken al daitezke noizbait? –galdera zorrotzak datozkit gaur.

– Ezabatu? Bai –harrituta dago–, baina egitea bezain garesti eta nekeza da.

Humberto Colonekin ari da, hemengo eta hango egoera politikoaz, antza denez.

– Imanol, zenbat denbora darama Aldaiak bahituta? –memoria ona dauka Humbertok, baina guinness pintak burmuina lainotzen ari zaizkio.

– Bi hilabete bai.

– Ba al dakizue IRAk bahiketa bakarra egin duela? –Connor ziri zalea da.

– Bakarra ere ez zuela egin esan zidaten –Humbertori ez dio sartuko.

– Ez da hala. Zaldi bat bahitu zuten orain dozena bat urte.

– Zaldi bat? Ez adarrik jo! –ez dut asmatuko txistea nola bukatuko duen.

– Baietz ba! Karreretako zaldi bat izan zen. Oso zaldi famatua.

– Shergar zuen izena –serio esan du Colonek; egiatan ari dira beraz.

– Shergar!, hori da! Ingalaterrako lasterketa sonatuenetan puntan-puntan zebilen. Ez dakit Grand National bera ere ez ote zuen irabazi.

– Grand National ez nuke esango. Baina Derby irlandarra bai behintzat, bahiketa baino urte pare bat lehenago.

– Eta? Zer gertatu zen zaldiarekin? Ordaindu al zuten erreskaterik?

– Ez dut uste. Zaldia ez baita oraindik agertu!

– Jabeak bila ari dira oraindik. Segurua kobratu ahal izateko zaldiaren hezurrak-edo aurkitu behar zituzten.

– Shankilleko tabernetan makina bat hamburgesa jan dituzte zaldi okelarekin!

Barre algaratan bukatu dugu bahiketari buruzko solasaldia. Euskal Herrikoari buruzko galdera dezente ditu Colonek, baina nahiago izan dut bosgarren erronda neure gain hartu eta barrarantz jo. Maddenseko azken pinta izan da. Barra itxi dute, eta zerbitzarietako bat oihuka hasia da, mahaiz mahai edalontzi hutsak jasotzen ari den bitartean.

– Right now, folks! Let’s move, please!

Hots, oraintxe bertan mugitzen hasteko. Hamaika t’erdiak dira. Bi litrotik gora guinness edanda, Orchid tabernara abiatu gara, ordu bata t’erdiak arte zabalik egoten baita.

Preso errepublikarren gaua da gaur Orchiden, eta borondatearen truke lazo berdea ipini digute sarreran. Preso errepublikarren askatasunaren aldeko lazoa, taxi beltzek atzeko kristalean eraman ohi dutena bezalakoa.

– Tregua hautsiko balitz ez nintzateke Orchidera hain lasai sartuko –esan dit Colonek, Humbertok ekarriko dituen pinten zain gaudela.

– Lealistek hauxe bonbakatuko lukete aurrena. Asko nabarmendu da azken aldian mugimendu errepublikarraren alde –arrazoia eman dio Laurencek.

Orchidek aldaketa izugarria eman du epe laburrean. Orain bi aste hutsik ezagutu genuen: droga kontuetan nahasita egoteagatik luzaroan itxita egon ondoren, zabaldu zutenean ere jendeak ez zuen harako batere joerarik. Jabez aldatu, musika tradizionaleko talde jatorra ekarri, errepublikar ezagunen ‘bedeinkapena’ jaso... eta taberna huts eta tristea izatetik, taberna arrakastatsua izatera pasa zen asteburu batetik bestera.

Hamabiak dira eta, jakina, ez daukagu esertzeko tokirik. Bukatu dira mahai inguruko berri-

ketak eta buruz burukoak hasi. Guinnessa hartu eta musika taldearengana hurbildu naiz, ingelesarekin apur bat nekatuta. Atsedenak ez dit luze iraun.

– Nongoa zara? –ni baino gehiago edan duen itxura du honek.

– Euskal Herrikoa.

– Kontxo! Borrokalariak zarete euskaldunak. Neu ere hala nintzen!

– Preso izana zu ere? –taberna hauetan topatu ditudan gizonezkoen artean hirutik bat kartzelan izana da, nonbait.

– Bai, baina denbora gutxian izan nintzen giltzapean. Ez baikenuen batere frogarik utzi.

– Frogarik?

– Bat ere ez. Denak akabatu genituen, autoan zihoazen bost militarrak. Boom! –leherketaren imintzioa egin du, besoak zabalik eta gora begira–. Ez genuen lekukorik utzi. Epaiketan ezin izan zuten ezer frogatu. Eta aske utzi ninduten.

Hizketan jarraituko nuke, benetako kazetaria banintz. Baina ez naiz. Hiru hipotesi hartu ditut aintzat. Lehenengoa ia segurua da: dozena bat pintatik gora edan du. Bigarrena eta hirugarre-

naren artean ez dakit zein aukeratu: adarra jotzen ari zaidala da bigarrena, harroputz ahobero zoroa dela hirugarrena. Nahiago nuke bigarrena balitz zuzena.

Ez dakit zenbat pinta edan ditudan Orchidetik aldegin dugunerako. Balantzaka etxeratu behar izateko adina, nolanahi ere. Malachy Orchiden laga dugu, Humberto nirekin dator, eta gainerakoak etxeratu-edo egingo ziren. Azken ordubetean behintzat ez ditut ikusi.

Ordu hauetan taxi beltzik ez dabilenez, taxi pribatuen geltokietako batera jo dugu.

– Nora? –bulegoaren atarian zain daukagu harrera egiten duena.

– Clondara-ra –Humbertok.

– Ongi. Andersonstown-era doan bikote harekin joango zarete. Abisatuko dizuet.

Hamabost bat lagun gaude geltokian, eta ordu laurdena itxaron beharko dugu onenera, eta ordu erdi inguru txarrenera. Ez dago gaizki, parrandarik handiena eginda ere, ordu bietarako etxeratu behar hau. Biharamunean eskertzen da.

Kakalardoak

– Nora zoazte?

– Clondara Street-era.

– Sartu han. Bigarrenean.

Taxi Beltzek, Belfasteko kakalardoek, hirigunean daukate geltoki nagusia, Falls errepidearen abiapuntu den Castle Court plazan. Taxi batera sartu aurretik, harrera-edo egiten duenak nora zoazen galdetuko dizu, eta zein taxitan sartu agindu. Asteazken iluntzea da, dozena bat taxi baino ez dago geltokian, eta bigarren autoan sartu gara.

– Nora? –badaezpada egiten dute galdera bera gidariek, inor okerreko taxian sartu ote den.

– Clondara Streetera.

Atzera begira jarri da gidaria, irribarre txikia agerian:

– Clondarara?

Eta abiatu da Falls errepidean barrena, beste inoren zain gelditu gabe. Gidariaren ezkerrean jarri naiz –ez naiz berehalakoan ohituko gidaria eskuinean ikusten–, eta atzean eseri da Humber-

to, beste lau lagun ere kabitzen diren lekuan. Hiru lagunentzako lekua dago atze-atzean, eta bi eseri ohi dira hauekin aurrez aurre, gidariari bizkarra emanez.

Berdinak dira taxi guztiak. Beltzak kanpotik, beltzak barrutik. Antigoaleko estilokoak, Londresko taxi ezagunen igoalak dira: Hackney etxe ingelesari erosten dizkiote ibilgailuak. Metro eta hirurogeita hamar izango dira alturan, mutur zabal eta altua daukate, hegal lodiak alde banatan. Auto azkar eta arinarena baino itxura handiagoa dute kamioi makal baina sendoarena.

340 taxi dira guztira: 277 Belfasten aritzen dira, mendebaldeko Fallsen eta iparraldeko Ardoyn-en, eta 42 Derry hirian. Funtzionatzeko eran erdi-taxi erdi-autobus dira: eskatutako kaleraino eraman beharrean, errepide nagusian uzten zaituzte, gidariaren eta atzeko bidaiarien arteko kristalean txanponarekin jota abisu ematen diozun unean. Hiruzpalau ibilbide nagusi dituzte taxiok: ibilbide berean dauden kaleetara doazenak taxi batera, beste ibilbidean doazenak bestera. 60 penike ordaintzen dute bide laburra dutenek, 80 penike ibilbide luzeagoa.

Bigarren Mundu Gerra bukatutakoan EEBBetako Annadak milaka jeep utzi zituen Filipinetako hondartzetan. Kasik txatarrarako zeuden ibilgailuak hartu eta, bataren piezekin bestea konponduz, taxi handiak (edo autobus txikiak) diren ibilgailuak osatu zituzten. Berrogeita hamar urte pasa direlarik, *jeepney*-ak dira Filipinetako hirietako garraio-sistema nagusia.

Ibilgailuen jatorrian badute antzekotasunik Belfastekoekin. 70eko hamarkadaren hasieran Londresko Hackney taxi zaharrak erosi zituzten Belfasterako: batez beste, bi taxi zaharrekin berri bat osatu zuten.

Hackney berriago batean goaz orain, Clondara bidean. Ibilbide nagusian dago Clondara, eta harritu egin gaitu beste inoren zain geratu gabe gu biok hartuta kalean gora abiatzeak.

– Goseak egongo da –esan dut, neu ere gose bainaiz.

Ez dit erantzun Humbertok. Eta entzun ere ez seguraski, *Irish Times* irakurtzen ari da-eta. *Irish News*-i begiratua bota diot nik. «Casement Acussed» esaten dieten hiru presoak askatzeko kan-

painari buruzko informazioa dakar Belfasteko egunkari nazionalistak.

– Casementeko hauek ez al dira hileta batean bi soldadu jipoitu eta hil zituzten hartakoak?

– Bai, 1988ko martxoko gertaera sonatuetako bat izan zen –memoria itzela dauka Humbertok.

– Baina nora doa hau?!

Gidariak errepide nagusia utzi eta kale estu bat hartu du.

– Oraintxe ederra! Ondo ulertu digulakoan gu, eta beste kale baten izena entenditu ez digu ba!

Txanpona atera eta gidaria eta gure arteko kristalari bi kolpe leun eman dizkio Humbertok. Ez du gelditzekorik egin, txofer aluak. Hiru kolpe eman ditu kristalean, lehen baino gogorxeago. Aurrera berak, baina.

– Alproja hau harpa jotzen ari zaigu! Ispilutik begira barrez ari da.

Ez daukagu zertan kezkatu. Belfast katolikoan gaude, auzune katolikoetan katolikoenean, *kakalardo* baten barruan. Errepublikar petopetoa behar du izan gidariak: bere lankide askok

bezala, lazo berde handia darama itsatsita atzeko kristalean, Celtic Glasgow-en dozenerdi pegatina ditu kotxean, eta tatuaje ikusgarriak besoetan.

Tatuajeagatik errepublikarra adina izan daiteke lealista: hirigunean eta auzune aberatsenetan ez da tatuaje askorik ikusten, baina mutur bateko zein besteko militanteen gune diren auzune behartsuenetan ohikoa da oso, protestante izan ala katoliko izan.

Dragoi dotorea marraztuta dauka eskuineko besoan, bost puntako izar xumea ezkerrekoan. Burusoila izanik ere, hogeita hamar urte inguru ditu. Gorputz gihartsua hobeto antzeman diogu kotxea gelditu eta jaitsi denean. Ez da Clondara kalean gelditu, noski.

– Kaixo, Liam naiz. Zu Humberto, ezta? Eta zu... –eskua luzatu dit, Humbertori bostekoa eman ondoren.

– Imanol.

– Emmanuel?

– Bai –zertan kezkatua badut, nire izena ondo ahoskatzen erakusten hasteko. Nor arraio ote da? Nora demontre ekarri gaitu taxista honek?

Liamen etxera sartu garenean aurpegi ezagun bat ikusi dugu behintzat, eta berau barrez lehertzen hasi da gu Liamekin ikusi gaituenean. Ez dugu ulertzen oraindik. Kate da, Karen-en laguna, Rock tabernan ezagutu genuena. Ez dauzka senarraren sorbaldak eta besoak, baina sendoa da Kate ilegorria. Normalean umore onarekin dagoen emakumearen traza hartzen diot. Algara irribarrera moteldu denean hasi da Kate gure aurpegi harrituek eskatzen zuten azalpena ematen.

– Nire errua izan da dena. Etxera gonbidatu nahi zintuztedan, baina modu berezian. Lehengo egunean grazia egin zidan zure hitz egiteko moduak eta zure despistatu aurpegiak –Humbertori begira ari da orain Kate–, eta Liami esan nion betaurrekoak, despistatu aurpegia eta azentu espainiarra daukan batek Clondara kalera eramateko eskatuz gero, bada, hona ekartzeko, inolako azalpenik eman gabe.

– Eta hala ere ez dizuet beldurtu aurpegirik sumatu bide okerretik eraman zaituztedanean! –dezepzionatuta dago Liam ‘bahitzailea’.

– Giro errepublikarrean etxean bezala gaudelako izango da.

Etxebizitza bakarreko eraikina da Liam eta Kateren bizilekua. Bi solairukoa: egongela, sukaldea eta komuna ikusi ditugu behean, eta logelak goian. Belfasteko etxe gehienen antzekoa. Egongelan hartu dugu lekua.

– Zurea al da taxia?

– Bai. Zorte handia izan dut. Kartzelatik irtenda, bi urte langabezian egon ondoren, aitak erretiroa hartu zuenean niri pasa zidan taxia. Horrela hasi nintzen taxista.

Long Kesh kartzelan hamabi urte egin ostean, duela bost urte etxeratu zen Liam. Orain hiru urte hartu zuen, beraz, taxia lantokitzat. Lanerako baino aukera handiagoa dute langabeziarako Belfast Mendebaldeko komunitate katolikoko kideek, eta zer esanik ez urte askoan kartzeletako hormen artean bizi izan direnek. Taxi Beltzen konpainian lanean hastea da irtenbide bakarrenetakoa.

– Gidari gehienak mugimendu errepublikarreko preso ohiak zaretela entzun dugu.

– Hala izango da akaso, baina tira, gure auzunean nor ez da noiz edo noiz espetxean izan? Fallseko dendarien artean ere, konparazio baterako, preso izandako asko dago.

Kexatzeko arrazoirik ez omen du Liamek, baina hamabi orduz lan egin zuen atzo, eta berdin herenegun. Gaur, gure aitzakiarekin, goizoxeago etxeratu da.

– Baina igandean jai, Igandero hartzen dut jai. Batzuek asteko zazpi egunetan lan egiten dute, baina ni beharrak ez nau horrenbeste estutzen. Aitak bai, egunero egiten zuen, seme-alabak kozkortzen hasi ginen arte.

Taxi beltzen aitzindarietakoa izan zen Joe, Liamen aita. 1969an Ipar Irlandan ‘arazoak’ (troubles) esaten zaien istiluak lehertu zirenean, barrikadez josita esnatzen ziren goizero auzune katolikoak, eta ordura arte garraiobide izan zituzten autobus eta taxiak eten egin zuten zerbitzua. Joek, autoa zuten beste hainbatek bezala, behin-behineko taxi bihurtu zuen berea: jendea etxetik lanera eta lanetik etxera eramaten zuen barrika-

detan barrena, eta gasolinarako dirua ematen zioten trukean. Urte horretan bertan osatu zuten Belfast Mendebaldeko Taxi Beltzen Konpainia. Eta ordudanik taxi beltzek ez dute egun bakar batean ere huts egin. Istilurik zalapartatsuenen erdian ere Falls errepidean gora eta behera ibili izan dira.

1972an Derryn soldadu britainiarrek 14 lagun hil zituzten igande odoltsuaren biharamunean lanera irten ez irten zalantzan izan zen Joe, baina kalera azkenean. Aurreko kristalean izotza zuela abiatu zen; urtarrilaren azken eguna izanik giro epelik ez baita Belfasten, hogei metrotik hogei metrora suzko barrikadak jarrita ere.

Halako egun istilutsuetan erabili ohi zuen bidea hartu zuen Joek geltokira joateko: espaloira igota gainditu zuen lehenengo barrikada, bigarrena ere bai, Elizaren atzealdeko kale estu batean barrena hurrengoa, erretako bi autoren artetik pasa zen gero... Iritsi zen hirigunera. Taxista gutxi eta bidaiari asko zegoen han, eta zortzi lagun hartuta abiatu zen Fallsen gora, bidaiari kopuruan mugarik ez baitzen artean. Are gutxiago halako egunetan.

Estreinako barrikadara ere ez ziren heldu, lehen urrutira entzuten ziren tiroak bertatik bertara entzun zituztelarik.

– Argi ibili! Makurtu zaitezte! –abisatu zuen Joek, baina bera ezin zeharo makurtu autoa bide onetik eramango bazuen.

Konturatu zirenerako, eskuin-ezker zulatu zituen bala batek autoaren atzeko kristalak. Ez zuen inor zauritu. Presaren presaz, ez espaloian ez kale estuetatik barrena gainditu zuen hurrengo barrikada. Kiskalita eta ia deseginda ikusi zuen Joek kale erdian trabeska zegoen autobusa urrutira. Pedalari tinko sakatu, apurtuta ez zeuden leiho guztiak ongi itxita zeuden arren «leihoak itxi» oihukatu eta erdi-erditik zeharkatu zuen autobusa.

– Halaxe kontatzen du berak, baina nik ez diot dena sinesten.

Liamek ez dio oraindik jaramon handirik egin Katek ekarritako barazki-curry gozoari. Sarriago erreparatzen dio Australiako ardo beltz eskasari.

– Ona ardoa, ezta?

– Ongi dago... Lehengoan dastatu nuen ardo alemaniarra baino hobea behintzat. Euskal Herrira etorri beharko zenuke ardoa atsegin baduzu. Hauek baino askoz ere hobeak edaten ditugu erdia ordainduta.

– Ederki asko daki Liamek zeinen ondo jaten eta edaten duzuen han. Euskal Herrian izan ginen biok duela bi urte.

Primeran gogoratzen da Liam, Antzuolako etxe batean azal eta guzti jan zituen langostino haietaz.

– Ez barrerik egin, Kate, zuk ere ia edan zenuen-eta mahatsa garbitzeko atera zuten uretik.

– Han izandako gure lagun batzuk, berriz, aste osoa ilunpetan pasa zuten etxean, pertsianak nola irekitzen ziren ez zekitelako.

Irlandarrek ez dakite pertsianak badirenik ere. Eta gaur, maiatza delarik, goizeko bostetan argituko du. Eta San Juan egunean laurak baino lehen!

– Egun guztia jaten edo janaria prestatzen pasatzen duzue euskaldunok –besaulkian eserita, platera magalean eta edalontzia lurrean duela afaltzen ari da Kate.

Halatsu gaude besteok ere. Platera eserlekuaren besoan jarri dut nik, eta moldatu naiz, hainbestean. Humberto, ordea, sofaren leku okerrean eseri eta ezkerrean egokitu zaio besoa. Pultsuan jan behar barazki-currya. Eskerrak ez duten ogirik atera. Inoiz ateratzen omen dute ogia otorduetan, baina orain artean ikusitakoagatik, batere gabe moldatzen dira gehienetan. Ogirik gabe... eta mahairik gabe.

– Zuk ere barrikadetan nahikoa komeria pasako zenituen, ba?

– Ez aitak adina. Barrikaden artean baino polizien artean pasa ditut nik komeriak.

– Atxilotuta?

– Kontroletan. Suetena baino lehen ia egunero gelditzen ninduen Poliziak.

– Eta hiruzpalau aldiz batzuetan –begi biziak ditu Katek ilegorrien artean ezkutatuta.

– Ez ni bakarrik, taxista guztiak baizik. IRAk ekintza gogorren bat egiten zuen egunetan, taxistok izorratuz lasaitzen ziren soldaduak. Egundoko kontrol pila pasarazten ziguten.

– Donegall Road-eko bidegurutzearen inguruan bizi zarete biak, ezta? Kontaiezu, Liam, han gertatutakoa.

Taxi beltzean hasi berria zen Liam, uztaila izanagatik ere bero handirik egiten ez zuen arratsalde hartan. Bigarren joan-etorria egiten ari zen: azken bi bidaiariak Andersonstown auzunean utzi eta autoa hutsik zuela zetorren, atzera taxi geltokira.

Andersonstownetik Fallserako sarrera seinalatzen duen polizi komisaldegiko bihurgunea pasata, Donegalleko bidegurutzea hirurehun bat metrora zuelarik, tiro zarata entzun zuen. Hiruzpalau tiro-hots. Hurbildu zenerako, pistolak artean agerian zituzten bi gazte auto batean sartu ahala abiada bizian hanka egiten ikusi zituen, semaforoan geldirik zegoela tirokatutako taxi beltz gidaria odoletan utzita. Atentatugileen atzetik joatea alferrikako lan arriskutsua zela pentsatu gabe, Donegallerantz jarraitu zituen Liamek bere taxi motelean, Windsor auzunean sartzen ikusi zituen arte. Liamek bazekien ez zeukala Windsor protestantean sartzerik.

– Hil egin zuten taxista. Bera ordez une horretan ni egon izan banintz semaforoan geldirik, ni hilko ninduketen. Minutu bakarraren aldeagatik nago bizirik. Eta gurea aspergarria dela esaten du aitak...

Aspertuta zegoen Liam-en aita, Joe. Kalean ez zebilen jende asko eta, goiz guztian taxia erdihutsik ibili ondoren, eguerdiko mokadua jan ondoren taxia kale bazterrean utzi eta tabernaren epelera bildu zen kafetxo bat hartzera. Kafea hartu, tabernariarekin berriketa pixkat egin eta orduerdiko nagikeriaren ondoren irten zen kalera. Zain zeuzkan hiru gazte.

– Irlandako Armada Errepublikarra! Autoa hartuko dizugu lan bat egiteko. Ordu pare bat barru itzuliko dugu, Beechmount-eko kiroldegiaren aurrean.

Lagunak ez, baina aski ezagunak zituen taxia eraman ziotenak. Kezkatzeko arrazoi handirik ez zuen: bertan zeukan taberna, eta hantxe egingo zituen bi orduak, gero auto bila abiatzeko.

Guinness pinta hartu, beste kafe pare bat, eta Beechmount-era jotzeko tenorea heldu zitzaion. Han inguruan ez da tabernarik, eta kanpoan itxoin zuen aurrena. Zigarro bat erre, bigarrena ere bai, hirugarrena... paketea bukatu zitzaionean ohartu zen beste bi ordu paseak zirela. Hoztu zen gainera eta, iluntzen ere laster hasiko zuenez, konpainiara joatea erabaki zuen, gertatutakoa gaztigatzera.

– Kontxo, Joe, hemen al zara? Zer gertatu da zure autoarekin? Poliziak deitu du.

– Poliziak?

– Taxi beltz bat aurkitu dutela, ateak zabalik, Andersonstowneko errepide nagusiaren erdian, trabeska. Matrikula begiratu dugu eta zurea da. Zer jazo da?

«Gero arte» moduko bat entzun zion bulegokoak Joeri, arrapaladan abiatu baitzen eskaileretan behera, Andersonstown aldera.

– Zu al zara taxiaren jabea? –fidakaitz begiratu zion Joeri polizia-taldean buruzagiaren plantak egiten zituenak.

– Bai. Zer gertatu da?

– IRAk zure taxia erabili du, itxura guztien arabera.

Joek artean ez zekien IRAko komandoak Springfielden gazte bat bahitu, Andersonstowneraino eraman eta belaunetan tiro bana jo zizkiola. Auzuneko gazte ezaguna zen tirokatu zutena, droga kontutan omen zebilelako ezaguna hain zuzen. Taxia eta gazte zauritua bertan utzita, ihes egin zuten komandokideek.

– Aita, jakina, komisaldegira eraman zuten, autoaren desagerketa salatu ez zuenez susmagarria zelako.

– Eta zer argudiatu zuen?

– Ezer berezirik ez. Kafe bat hartzera tabernara sartu eta kanpora irteterako autorik ez zegoela. Lagunen adar jotzea besterik ez zela pentsatu omen zuen, eta horregatik ez zuela salatu. Egun gutxira taxia kendu zioten gazteetako batek deitu zion.

– IRAkoak?

– Bazekitela atxilotu egin zutela, eta ea zer gertatu zen. Autoa agindu bezala zergatik itzuli ez zuten ere azaldu nahi zioten. Aitak Poliziarekikoak aipatu eta gainerakoa ez zitzaiola axola

esan zien. Ez kezkatzeko, ahazteko kontua eta kitto.

Taxi Beltzei buruzko promozio bideoa eman digu Liamek, kalerako bidea hartu aurretik. Taxi Beltzen arduradunaren telefono zenbakia ere idatzi digu.

– Telefonoa nik eman dizuedala esan, eta euskaldunak zaretela; errazago hartuko zaituztete.

Esklusiba

– Euskaldunak ergelak zarete. Abertzale eta borrokalariak politikagintzaren joko eszenikoan gertatzen denari so dauden bitartean, lotan harrapatu ditu Espainiako Gobernuak. Gure estrategiatik ikasi behar lukete.

– Zein da estrategia hori?

– Kalera irten eta zapaltzen gaituen estatuaren eta gobernuaren ekimena zapuztu, harik eta egonkortasuna eta gobernabilitatea deitzen diren horiek hautsi arte. Gure borroka kalean dago, ikusgai; euskaldunak, ordea, oskolaren barruan geratzen zarete, batek daki zein mirakuluren zain.

– Gu handik gatoz, eta nahikoa algara bada egunero.

– Ez da egia. Biguin kakajaleak zarete euskaldunak!

Solasaren emaitza antzuari erreparatuta, amore eman eta gaiari beste bide batetik heltzea nahiago Imanolek eta biok. Baina Malachy ahoberoa suminduta dago oraindik. Gorritasuna

uxatzeko putz egin eta teari zurrutekoa kendu dio.

– Nahikoa izan duzu. Ederto batean despatxatu zara.

– Ezta gutxiago ere. Gainera, antolaketa eta funtzionamendu aldetik kaskar samar dabiltzala uste dut. Ekintza gehiago egin beharko lukete. Ez al dakite leku eta une aproposean bonba batek hamar atentatu txikik baino askoz oihartzun eta eragin handiagoa duela? Gugandik ikasi behar dute. Amonala alde batera laga eta Semtex lehergaia erabili.

– Zuek erabiltzen duzuena da Semtex hori?

– Horixe. Amonala baino askoz ere eraginkorragoa da eta, garrantzitsuago dena, arrisku gutxiago dauka. Areago, ez dago zertan aditua izan beharrik. Kaskajo batek ere prestatuko luke leherkaria.

– ETAk egiten duenari gutxi irizten diozu orduan.

– Urtero ez dute hamar-hamabost bat ekintza handi besterik burutzen. Horrela ez ditu inork seriotan hartuko, ez die inork kasurik egingo. Dena den, zuzendaritzak oso bestelako iritzia du gai

honen inguruan, eta ez du bere egiten nik aipatzen dizuedana. Baina ez dut uste arrazoi faltan nagoenik.

The Chieftains taldearen «Celtic wedding» kantuko arrabita eta mandolinaren doinu eztien intimitatean, Malachyren azken hitz jarioak parada ona eman digu orain arte gordeta eduki dugun eskaera egiteko:

– Nahi genuke bai zuzendaritzarekin edo, sikieran, erakunde barruko bozeramaile autorizatu batekin elkarrizketa izatea gure egunkarian argitara emateko. Horrela guk geuk kontrastatuko genituzke erakundearen gogoetak, guretzat propio egindako adierazpenekin.

Malachyren irri karkarak arrabitari gailendu zaizkio, eta ingurukoak ere gure eskari debekatuaren arrastoan sentitu ditugu.

– Jira eta buelta ibili zarete sugearen arrastoaren bila eta azkenean aurkitu duzue haren habia. Kosta zaizue baina azkenean bota duzue bota beharrekoa. Hori egina dago. Baina itxaron beharko duzue. Ahal dudana egingo dut. Izango duzue nire berri. Hurrengora arte lagunak!

Kaputxadunekin elkarrizketa noiz etorriko zain gaudela, Sinn Feineko egoitzara abiatu gara Martin McGuinness-ekin elkarrizketa egiteko modua bideratzeko. Falls errepideko egoitzan dago alderdi errepublikarraren prentsa bulegoa. Etxearen eite kaskarrak baino, bertara sartzeko gainditu behar diren burdinazko ate beltzak eta etxaurrean dauden hiru kamera orobegiraleek eman digute erreparo pixkat.

– Ez beldurtu, gazteak. Suetenak dirauen bitartean ez dago zertaz kezkaturik.

– Zertarako orduan hainbeste kamera? Filmeren bat egiten ala? –Imanolek irlandarren umore horretatik ere edan du dagoeneko.

– Filme bat baino gehiago egiteko adina irudi eta trama daukagu kamera hauetan gordetakoarekin. Iaz, suetena iragarri aurretik, RUCeko paisanozko agente batek hiru lagun hil zituen hementxe bertan.

Informazio bila etorri omen zen gu bezalako ezezagun bat.

– Nire toki hau betetzen zuten atezainak tiroz josi zituen agenteak. Handik lasterrera bere buruaz beste egin zuen borrero madarikatuak.

Prentsa arduradunarekin gaurko zita egina daukagula esan diogu.

– Donnagha? Tenplez hartu. Estresa zer den urrunetik ere ez dakien horietakoa da Donnagha jauna.

Ordu erdi inguruko itxaronaldia izan dugu agertu artean. Marx anaietako Harpo mutuaren antza dauka Donnaghak. Lastima ile beltza duena. Iluntasunagatik-edo, hasieran ez diogu erreparatu, baina leihotikako argiak haren gorputza siluetatu duenean harritu gara: besoa falta zaio, ezkerrekoa. Bonba bat jartzen ari zela eztanda egin zion.

– Ipar Irlandako arazoa ezagutzera etorritako kazetariak gaituzu, euskaldunak. Euskaraz argitaratzen den egunkari bakarrean idazten dugu. Mandatu anitz dakargu zuretzat. Besteak beste, alderdi errepublikarreko ordezkari nagusiak elkarrizketatu nahi ditugu: Gerry Adams, Martin McGuinness, Martin McLaughin, Bobby Sandsekin batera preso izandako errepublikarren bat...

– Eta IRA ere bai.

Penalti jaurtiketa igarri eta gelditu egin digu besamotzak.

– Badakit horren atzetik ibili zaretela. Britainiarrak izan ezik, denak daude gurekin hitz egiteko irrikitan. Zintzo jokatu nahi dut zuekin, ilusio faltsuak egin ez ditzazuen. Suetenak bere horretan dirauen bitartean, IRAk Sinn Feinen gain utzi du mugimendu errepublikarraren ahotsa. Eta beraz, zuekin salbuespenik egitea zail samarra ikusten dut. Gainerako elkarrizketekin ez dago arazorik. Dei iezadazue datorren astean, ea ordurako ezer dagoen. Agur.

– Feicfidh me thu –agurraren trukean, ondo kostata ikasitako ikusi artekoa esan diot.

Maddens-eko bezeroen astean fijoetakoa da Eric gure laguna. Goizean, arratsaldean zein gauean joan, Holy Trinityko batean ez bada bestean izango da seguru: tabernariari sorbalda emanda, besoa barran jarrita egoten da Eric, tentuan, beti bakarrik, guinnessa lagun. Lehor eta zakarra izan arren, behin hasierako une tra-

ketsak gaindituz gero, atsegina gerta dakizuke eta solas probetxugarriak izan ditzakezu berarekin. Politika da bere gai faboritoa. Gugaz behintzat politikaz bakarrik mintzatu da orain arte. Itxura batean izotzez egina dirudien arren, *british*-en gainean mintzo denean sutan jartzeko bi minutu besterik ez ditu behar, eta izotza urtuz joaten da bera bezalako ekintzaile bati uste zaion zuhurtzia galduta.

– Kokoteraino nago unionistez eta britainiar madarikatuez. Bederatzi hilabete dira jadanik suetena deitu eta bake prozesuari heldu genionetik eta aurrerapausorik ez dute eman.

– Gauzak aurrera doazela pentsa daiteke –aski da hau, erabat zirikatzeko.

– Negoziatu beharrean, negoziazioa nola egin behar den eztabaidatzen dihardute batzuek eta besteek. Denbora honetan guztian ez diote mamiari heldu. Ergelarena egiten ari gara. Gugaz jolasean ari dira. Badirudi bake prozesua aurrera doala, baina denbora ere bai. Gure kalterako, noski.

Ez gaude gehiago itxaroteko prest; berriro armak hartu behar badira, hartuko ditugu.

Inoiz baino oldartuago ikusi arren, ez diogu aurrekoetan baino kasu handiago egin, eta mitinarekin jarrai dezan utzi diogu:

– Are gehiago, Erakundearen Zuzendaritzak edozein momentutan armak hartzeko prest egoteko agindu digu. Britainiarrek ez badute elkarrizketa-mahaia azkar deitzen, borroka armatuari ekingo diogu berriro. Kopeteraino gaude txantxetan har gaitzaten!

Beti bezain zakar amaitu du mitina Ericek. Gaurkoan handiak bota ditu. Nahastuta utzi gaitu hark esandakoak.

– Hau burutik dago. Egia izanda ere, nola aipa ditzake hainbestekoak topatzen duen lehendabizikoaren aurrean?

– Ahuntzak legez, bere kasa dabilenetakoa da. Beste edonork esan balitu, esklusiba ederra!

Aurkitu dugu Ericek gure solasaldia berehala mozteko arrazoia. Emakumeak dira bere bigarren obsesioa –agian lehena–. Tabernaren beste muturreko hippy itxurako neska ile luzedun bategatik laga gaitu. Eta gu, gauza serioez ari ginelakoan!

– Imanol, ezagutzen al duzu Ericegaz dagoena?

Sorgin begi politak dauzka, ezpain mamitsuak. Ulertzeko moduko aldaketa.

– *The Irish Times* egunkariko kazetaria da. Suzanne Breen. Prentsaurreko batean topo egin genuen berarekin. Sorgin begi politak, ezta?

Bi egun beranduago, astelehen goizean, Dublingo *The Irish Times*en lehen orrialdearekin harri eta zur geratu gara. Letra larriz: «IRA grassroots activists told to be ready for resumption of violence». From Suzanne Breen, in Belfast.

IRAko baseek borroka armatuari berriro ekiteko prest egoteko agindua jaso dute. Suzanne Breenek, Belfastetik.

Ulster britainiarra da

Alderdi unionistekiko lehenengo urratsak emateko garaia dela deliberatu genuen bart Humbertok eta biok, guinness bana eskuetan, gerraren erdian lanean ari diren kazetari ausartak garela sinestarazi baitziguten ordura arte edandako dozenerdi pintek. Nazionalisten lider politiko nagusienekin elkarrizketak lortzeko lehenengo harremanak bideratuta ditugu eta, alderdi unionistengana jotzekotan ere, buruengana joko dugu: James Molyneaux eta Ian Paisley.

Ravenhill errepidean ditu bulego politikoa eta eliza Ian Paisley erreberendoak. Eraikin berean daude Paisleytarren etxebizitza eta Paisleyk sortutako Alderdi Unionista Demokrataren (DUP) egoitzetako bat, eta berrehun metro beherago Paisleyk berak sortutako Eliza Presbiteriar Askearen eliza nagusia: Martirien Oroimenerako Eliza. *News Letter* egunkari lealistako artikulu batean, nazionalismo irlandarra nazismoarekin konparatzen duen egun berean goaz Ian Paisleyrengana.

Auzunea protestantea da, baina ez, Shankill bezala, ‘arriskutsua’. Arazorik gabe ekarri gaitu taxista katoliko batek Fallsetik bertatik. Parkera gindoazela usteko zuen Paisleyren etxearen aurrean gelditzeko eskatu diogunean.

– Badakizue hemen inguruan nor bizi den?

– Paisley. Beregana goaz, hain zuzen.

– Ez da egia! Sasikume horrengana ekarri zaituztet?

– Sasikumeagoak gara geu, kazetariak!

Etxea ez da bereziki dotorea, eta sarrera ere ez; etxebizitzak arrunta dirudi. Ez bandera britainiarrik ez unionismoaren bestelako ikurrik ez da ageri atarian. Ravenhill 232 esan digute, eta Ravenhill 232 daukagu gure aurrean. Txirrinaren interfonotik azaldu dugu kazetari espainiarrak garela eta Paisley erreberendoari elkarrizketa eskatu nahi diogula.

Atea zabaldu digu gazte batek; Ian Paisley jr. berehala jaitsiko dela. Ez dira gauzak oso oker hasi, badakigu-eta Paisley semea ere burukide garrantzitsua dela DUP alderdian.

Hogeita hamabost urtekoa-edo iruditu zait, eskaileratan behera datorrela ikusi dudanean.

Handia eta sendoa da, aita bezala. Baina ez darama aitak eta artzain protestanteek eraman ohi duten lepoko zuririk. Trajea eta gorbata ditu lanerako jantzi Ian *txikiak.*

– Zein komunikabidetatik zatozte?

– *Egunkaria.* E-gun-ka-ri-a –eta *Euskaldunon Egunkaria*ren tarjeta eman dio Humbertok, Andoaingo helbide eta telefonoen gainean gure izenak eta telefonoak paratuta.

– Espainiako egunkari inportanteena?

– Euskaraz argitaratzen den inportanteena –dena eta deus ez, frase bakarraz adierazi dizkiogu biak.

Aste honetan ezinezkoa dela baina Belfasten hilabete batzuk egingo baditugu, arazorik ez dela izango esan digu Ian Paisley juniorrek. Deituko digutela.

Ipar Irlandako alderdi nagusiko liderraren bila abiatu gara arratsaldean: James Molyneaux, Ulsterko Alderdi Unionistako (UUP) beteranoa. 1974. urtetik da unionismo ofizialaren buruzagi nagusia baina, adinean aurrera doa eta erretiro-

rako garaia heldu zaiola pentsatzen dute nonbait bere alderdiko burukide zenbaitek. Bake prozesua hasi zenetik jarrera argirik hartu ez izanak –bai baina ez batzuetan, ez baina bai besteetan– ez dio lagundu lidergoa sendotzen. Hor segitzen du hala ere, politikari izateko baino pentsionista izateko adina duen arren. Ian Paisley baino zaharxeagoa izango da.

Belfast erdi-erdian dauka egoitza UUPk, hiriko eraikuntza garaiena eta Europako hotel bonbakatuena omen den Europa Hotelaren atzean. Bandera britainiarra ageri dute mastilean eta «Ulster britainiarra da» dioten afitxa mordoxka egoitza barruko sarreran. James Molyneaux Orangisten Ordenaren Maisu Handia zeneko argazkia ere bai.

Stephen Cranston gazte trajedun irribarretsuak hartu gaitu, bostekoa ematean eskua indartsu astinduz. 25 urte inguru izango ditu. Elkarrizketaren kontua aipatu diogu.

– Sentitzen dut, baina Molyneux jauna Ian handiarekin dabil. Dena den, ni neu elkarrizketatu nazakezue, neronek azalduko dizuet gure al-

derdiak bake prozesuari buruz zer pentsatzen duen.

Ez diogu esan *Egunkaria*ri Stephen Cranstonen elkarrizketa bost inportako zaionik, Molyneaux jauna lanpetuta baldin badabil itxoin dezakegula baizik, hilabete batzuk egingo ditugula Belfasten.

– Orduan ez dago arazorik! Seguru izango duzue elkarrizketa, gauzek asko okertu beharko lukete zuek elkarrizketa ez lortzeko. Edonola ere, onena aurrena nirekin elkarrizketa luzea egitea litzateke, nik azalduko nizkizueke ardatz nagusiak, eta gero Molyneaux jaunari hitz batzuk eskatu eta kitto.

«Lan handirik ez du honek» pentsatu dut. Mutila gustura utzi beste erremediorik ez dugu izan: lehendabizi berari egingo diogula elkarrizketa eta ondoren buruzagiari. Baina Molyneauxekin ere luze eta zabal hitz egin nahiko genukeela, berak dena azalduko badigu ere. Konforme.

– Molyneauxen biografia labur bat prestatuko dizuet. Pertsonalitate oso interesantea da elkarrizketatzeko. Bigarren mundu gerran soldadua izan zen, abiazioan.

Sekretu bat azalduko baligu bezala mintzatu zaigu Stephen, eta guri begira gelditu da, bere errebelazioak zer inpresio eragiten digun jakin nahian. Ez du erantzunik jaso.

– Baina Espainiako zein aldetakoak zarete? –atera bidean gaudelarik egin digu azken itauna.

– Donostiakoa eta Bilbokoa. Euskal Herriko bi hiriburu, Espainiako iparraldean –zaila egiten da batzuetan geografia.

– Orduan ez zarete espainiarrak, euskaldunak baizik! Adarra jotzen baino tranpatxoa egin nahian dabil gure prentsa bulegaria. Sinn Feinekoen lagun ote garen jakin nahi du. Xabier Arzalluzek Luis del Olmori erantzungo liokeen moduan erantzun dio Humbertok Stepheni.

– Badakizu, pasaporte espainiarra daukagu, baina gure hizkuntza eta kultura propioak ditugu.

– Ba zuen herriko nire lagun batek dio ez dela espainiarra inondik ere. Oso-oso euskalduna da.

Bere lagunari ez diogu badaezpada arrazoirik eman, ezta kendu ere. Hortxe jardun dugu, ekilibristarena egiten, bulegari unionista inozenteki ala maltzurki ari den jakin gabe. Gure egunkari-

ko zuzendaria Molyneauxen iritziak argitaratzeko irrikatzen dagoela esplikatu diogu.

– Gure herrian hemengo nazionalisten ikuspegiak ezagunak dira, baina unionistek zer pentsatzen duzuen ez dakigu.

– Pentsa ezazu –kalerako bidean eman diot azken arrazoia, elkarrizketaren garrantziaz jabe dadin–, James Molyneaux da Ipar Irlandako alderdi nagusiko liderra eta, Gerry Adams, John Hume eta Ian Paisley aski ezagunak izanik, Molyneaux ez du gure herrian inork ezagutzen. Guri asko interesatzen zaigu elkarrizketa hau egitea; eta zuei ere bai.

– Hori egina dago!

Neu naiz IRAren aitajauna

Garajean dozena erdi taxi beltz dituzten mekanikariekin topo egin dugu. Taxiaren barrunbeekin borrokan ari dira mekanikoak baina, erdi galduta gabiltzala konturatuta, atseden txikia hartuz guri begira jarri dira.

– Zeren bila zabiltzate?

– Jim Neeson-en bulegoa.

– Han dago. Ikusten taxi beltz hura? –baietz egin diogu buruaz–. Ondoko eskailerak igo eta hantxe aurkituko duzue.

Conway Mill-en dago Belfast Mendebaldeko Taxi Konpainiaren egoitza nagusia. Castle Courteko geltokitik kilometro eskasera, Falls errepidean, Sinn Feineko egoitzatik bertatik bertara. Ez zuen taxia hartzerik merezi: hamar minutuan heldu gara hirigunetik.

– Taxi hau Gerry Adamsena izango da. Hemen gordetzen zutela esan zigun Liamek.

– Hau da, seguru. Begira ze gogorrak dituen kristalak.

Atzamarrez leun eman dizkiogu lehenengo kolpeak, eta ondoren ukabilkada bihurtu dira gure ukituak. Ez dago kristala hausteko arriskurik. Lehenengo begiratuan taxi arrunta dirudi Gerry Adamsen honek, baina astunegia da arrunta izateko: bi tonelada t'erdi izango da. Bidaiariak tiro eta bonba eztandetatik babesteko bereziki prestaturik dago. Gerry Adamsek erabili izan du beti, Belfast Mendebaldearen barruan beti ere, inguru hauetan oharkabean ibiltzeko taxi beltza baino ezer egokiagorik ez baita. Orain, suetenarekin, Conway Mill-en geldirik dute tankea, erreserban.

Bulego soila dauka Jim Neesonek: mahaia, hiru eserleku, fitxategiak eta taxi beltzei buruzko afitxak hormetan. Bera, ordea, beintizinko baino dotoreago agertu zaigu: alkondara arrosa argia, korbata zabala, arraia erdian duela fin lisatutako fraka urdin ilunak eta zapata beltz disdiratsuak. Ilea urdindua du. Berrogeita hamar bat urtekoa, egingo nuke.

– Euskaldunak orduan! Tira, zer jakin nahi duzue?

– Taxiei buruzko kontuak. Historia ezagutzen dugu gutxi gorabehera baina...

– Nondik hastea nahi duzue? Zenbat taxi gidari hil dituzten? IRA nola finantzatzen dugun? Casement Park-eko auzian zenbat taxi gidari auzipetu zituzten akaso?

Ez dirudi taxi konpainiaren etorkizuneko plangintzaz hitz egiteko gogorik daukanik. Baina jarduteko gogoa badu, dudarik ez. Galderarik egin gabe hasi da berbetan, eta hala jarraitu du luzaroan, pasadizo batetik bestera jauzi eginez.

Jim ez da sekula taxi gidaria izan. 1981. urtean taxi konpainian sartu zenean, zuzendari nagusi izateko sartu zen. Eta kargu hori dauka gaur egun ere. Hamabost urte honetan Poliziak ez omen du bakean utzi.

– Neu naiz IRAren aitajauna. Hala diote beraiek. IRA finantzatzea eta terrorismoa antolatzea leporatzen didate.

– Zertan oinarritzen dira?

– Oso sinplea eta logikoa da: gure taxista bat atxilotu eta galdetzen diote: «Zenbat ordaintzen diozu astero Jim Neesoni?». Eta berak: «Astean 50 libra ordaintzen dizkiot Jim Neesoni». Eragike-

ta aritmetikoa azkar egiten dute: 300 taxi, 50 aste... 750.000 libra jasotzen ditu Jim Neesonek urtean. Begiratzen dute aldizkariren batean segurua zenbat den: 300 libra auto bakoitzeko, 300 taxi, beraz, 90.000 libra behar dira aseguruetarako. Kenketa egin eta erabakia prest: Jim Neesonek 660.000 libra ematen dizkio urtero IRAri. Hori da terrorismoa finantzatzeko era.

– Inoiz frogatu al dute ezer?

– Bai zera! Beraiek badakite, bankuko agirien bitartez, astean 9.000 libra ordaintzen ditugula aseguruetan, urtean 450.000 libra alegia. Eta gure antolaketan, bulegoetan, proiektu berrietan... dirua joaten zaigula ere badakite. Baina britainiarrek uste izan nahi dutena sinesten dute, eta hau horrela izatea komeni zaio propaganda britainiarrari. Neu naiz IRAren aitajauna!

– Atxilotu izan zaituzte hori dela-eta?

– Sarritan.

– Zenbat aldiz?

– Uf! Ez dakit.

– Bizpahiru aldiz? Hamar aldiz? Zenbat gutxi gorabehera?

– Askotan, askotan...

Finantzena ez da Jim Neesonek britainiarrekin izan duen arazo bakarra. 1988. urteko martxoa berezia izan zen Jimentzat, Belfast Mendebalde osoarentzat bezala. Hilaren 6an Armada britainiarreko unitate berezi batek IRAko hiru kide hil zituen Gibraltarren. Tirokatu egin zituzten armarik gabe zeuden IRAko hiru kideak. Mairead Farrell, Sean Savage eta Daniel McCann, hirurak, Belfast Mendebaldekoak ziren.

– Oso ondo ezagutzen nituen hirurak, pertsonalki. Auzunean ezagunak ziren.

Handik hamar egunera egin ziren hiletak Belfasteko Milltown hilerrian. Falls errepidea eta Andersonstown auzunearen artean dago Milltown, polizi komisaldegi erraldoi baten parean. Milltowngo lurrak estaltzen ditu Irlanda Batuaren aldeko borrokan hildako belfastarren gorpuak.

Hilerria jendez mukuru zegoen, eta han zeuden Sinn Feineko aurpegi ezagunenak ere. Haien bila joan zen, hain zuzen ere, Michael Stone paramilitar lealista, UDA-UFF erakundeko kidea: Gerry Adams eta Martin McGuinness hiltzea zen

bere asmoa baina, xedean huts egingo zuela jabetuta, bertan bildutako jendetzari egin zion eraso, pistola-tiroz eta granadak jaurtiz. Telebista kamerek hartutako irudiak mundu guztian ikusi ahal izan ziren: Stone, biboteduna, kapela jantzita, ihesi zihoala ere tiroka eta granadak jaurtitzen, eta jendartetik irtendako hogeiren bat lagun erasotzaileari segika.

– Hotzean pentsatuta, ez nuke horrelakorik egingo, baina beroan, ni ere pistoleroaren bila abiatu nintzen.

Hiru lagun hil zituen Michael Stonek, eta dozenaka zauritu. Segika joandakoek harrapatu, jipoitu eta kotxe batean sartu zuten. Ordura arte agertu ez zen Polizia azaldu zen orduan, eta Stone zeraman autoa harrapatzeko ahalegina hasi zuten. Nahaspila baliatuz, Stonek kotxetik jauzi egitea lortu zuen, eta Poliziaren eskuetan bukatu zuen. Bizitza osorako kartzela zigorra betetzen ari da orain, Belfasteko Maze espetxean. UDA-UFFko presoen zuzendaritza-taldeko kidea da bertan.

– Caoimhim McBradaigh-ek zorte eskasagoa izan zuen: ni bezala Stoneren atzetik abiatu zen, baina honen tiroek bete-betean harrapatu zuten.

– Nor zen McBradaigh?

– IRAko kidea zen, eta Taxi Beltzetako txoferra. Bi gauzengatik geunden gu harro, taxi gidaria zelako eta soldadu errepublikarra zelako. Hiletetan Taxi Beltzek segizio berezia osatu genuen McBradaighen omenez.

Saint Agnes elizatik abiatu zen hileta segizioa, Andersonstown zeharkatuz Milltownera heltzeko. Zerraldoaren autoaren aurretik eta atzetik taxi beltzak baino ez zitezkeen ikusi. Jim Neesonek zuen taxi beltz multzoaren ardura, eta horietako baten barruan zihoan bera, taxi multzoaren eta zerraldoa zeraman kotxearen artean.

Casement Park, joko gaelikoetarako Belfasteko zelai handienaren parean zeudenean hasi zen 1988ko martxoko azken tragedia: kale-jantziz zihoazen bi soldaduk zeramaten autoa abiada bizian sartu zen jendetza artera, aurrera lehenengo, atzera-martxan gero.

– Eraso lealista! Eraso lealista!

– Inguratu ditzagun!

Atzera egiteko azkenengo ahaleginean taxi beltzen lerroarekin topo egin zuen autoak eta erabat inguratuta eta aterabiderik gabe gelditu. Kanpokoak kotxea kolpatzen ari zirela, leihoa ireki eta pistola erakutsi zuen gidariak. Atzerako keinua egin zuten autoaren inguruan zeudenek, baina segituan jo zuten berriro bere gainera. Gidaria kotxetik ateratzen ari zirela, airera tiro egin zuen honek, baina ingurukoak une labur batez uxatzea besterik ez zuen lortu.

– Atzera egin beharrean eurengana jo genuen ingurukoek. Ni neu taxitik irten nintzen eta, bideoan ongi ikusten da, nola soldaduarengana korrika egiten dudan eta pistola kentzen saiatzen naizen.

Armak kendu zizkieten eta inguruko zenbaitek euren arma propioak eskuratu zituzten. Autoaren gurpila aldatzekoarekin kolpatu zituen soldaduak gizonezko batek, argazkilari baten eskaileratxoa erabili zuen beste batek, makila batekin ageri zen beste bat... Bi edo hiru minuturen buruan, David Howes eta Derek Wood soldaduak Casement Parkera sartu zituzten. Autoa inguru hartatik atera eta erre egin zuten.

Behin zelaiaren barruan, hogeiren bat lagunek gehiago egurtu zituzten soldaduak, ia erabat biluztu, miatu eta, azkenean, taxi beltz batean sarrarazi. Bost lagun zihoazen taxiaren atzealdean soldaduekin, eta gidaria eta beste lagun bat aurrealdean. Penny Lane auzunean irten ziren denak taxitik. Soldaduek ihes egiteko azken ahalegina egin zuten. Alferrik.

Taxian joandako bi desagertu egin ziren lipar batez, baina berehala itzuli beste bi lagunekin. Burua estalita zeramaten bi berriek, eta pistola zekarren batek. Bi soldaduengana hurbildu, besoa luzatu, eta tirokatu egin zituen. Pistola beste kaputxadunari eman eta honek ere tiro egin zien.

Armadako helikoptero batetik gertaera osoa –16 minutu inguru– filmatu zuten, autoa hileta erdira sartu zenetik Penny Lanen hil zituzten arte. Hasierako jipoiaren irudi ugari zeuzkaten gainera telebista-kamarek eta argazkilariek. Irudi horiei guztiei esker egin ahal izan ziren hurrengo asteetako atxiloketa gehienak.

– Berrehun lagunetik gora atxilotu zituzten, ni tartean. Eta horietako asko, berrogeita hama-

rren bat, taxi gidariak ziren. Hiletan geunden guztiak ginela hilketen errudun, esan zuen Margaret Thatcherrek.

41 auzipetu zituzten guztira, eta hogei erruduntzat jo eta kartzela zigorra ezarri. Bi soldaduak tirokatu zituzten bietako inor atxilotu ez duten arren, bost laguni, hilketa egotzita, bizitza osorako kartzela zigorra ezarri zieten.

– Niri hilketa-saioa leporatu zidaten hasieran, baina aldatu egin zuten gero. Hainbeste gauza leporatu zizkidaten, ez naizela gogoratzen zeintzu ziren salaketak.

1990ko urtarrilean egindako epaiketan, akusazio guztietatik libre utzi zuten Jim.

Telefono dei batek eten egin du Neesonen kontakizuna eta, minutu gutxira aparailua eskegi duenean, haria galduta, gure galderen esperoan geratu da. Taxi konpainiaren ezaugarriei buruz prestatuta geneuzkan galderak alde batera utzi, eta gerra istorio gehiago entzuteko prest jarri gara. Taxi gidariak paramilitar lealisten helburu direla entzun dugula aipatu diogu.

– Dudarik ez, hala garela. Orain arte sei garbitu dituzte. Lehenengoa Harry Muldoon izan zen. Bere etxean tirokatu zuten 1982an. Patrick Mac Allister ere etxean hil zuten, Donegall Roaden. Caoinhim McBadraigh badakizue, Michael Stonek akabatu zuen Milltown hilerrian. Thomas Hughes taxi barruan zihoala tirokatu zuten 1991ko udan. Hugh Maguee ere gidatzen ari zela hil zuten, urte bereko udazkenean. Eta seigarrena Paddy Clark: konpainia honetako buruzagi izan zena bere etxean akabatu zuten 1992ko otsailean.

– Segurtasun neurriak hartu beharrean izango zarete orduan.

– Etxean balen aurkako kristalak dauzkat, beste askok bezala, eta burdinsareak leihoetan. Kotxea etxe parean ez uztea ere komeni izaten da, etxe horretan taxi gidari bat bizi dela nabarmena izan ez dadin.

– Eta taxian?

– Gure gidarietako batzuek, gutxik, eskatu izan dute balen aurkako kristalak jartzea aurrealdean, baina ezetz erantzun izan dugu. Ez da zilegi gidaria babestea eta bidaiariak ez. Babesten

hasiz gero, gainera, dena babestu behar da, Gerry Adamsen taxiarekin egin genuen bezala, balen aurka, bonben aurka, guztiaren aurka. Hemen behean dago Adamsena, ikusi al duzue?

– Konturatu gara, bai.

– Taxi guzti-guztietan hori egitea ezinezkoa denez, ezer ez egitea erabaki dugu. Sarritan neurririk sinpleenak dira seguruenak. Duela urte asko, etxea batere babesik gabe neukala, lealistak nire atzetik zebiltzala jakin nuen. Oso gauza sinplea egin nuen: gauez, logeletara igotzeko eskaileretan ohol lau bat jartzen nuen, aise ez kentzeko moduan. Lealistak etorriz gero, eskaileretan irrist egingo dute behin eta berriro, kontzentrazioa galdu, zarata atera... Segurtasun neurri elektroniko guztiak baino seguruago.

Liamek utzitako bideoa itzuli diogu Neesoni, hark hala aginduta, etxerako bidea aurretik.

– Ikusi duzue bideoa, ezta?

– Bai, eta gauzak ez dira zuk kontatuta bezala agertzen...

– Nahiko nuke dena promozio bideoan agertzen dena bezain ederra balitz! Baina gure ta-

xien historia gure herriaren historiarekin batera joan da beti.

Taxi beltz bat gelditu dugu Conway Milleko irteeran, etxe parera eraman gaitzan. Treguan gaude.

Ptolomeoren mapa

Uste baino fundamentu handiagoa atera digu Ian Paisley-ren prentsa bulegariak: atzo hots egin zigun gaur goizean hitzordua daukagula adierazteko. Galdera mordoska prestatu eta Ravenhill-en gara berriro, «Espainiako euskarazko periodiko garrantzitsueneko» bi berriketariak.

Zurezko altzari fineko bulego batera pasarazi gaituzte, eta erreberendoaren zain geratu gara, elkarrizketa hain azkar lortu izanaren arrakastarekin harrituta. «Itsasotik itsasora ere menpean izango dugu» irakurri dut bulego mahaiaren atzeko paretan eskegita dagoen koadroan.

Baina ez da Paisley bulegora sartu zaiguna.

– Sentitzen dut baina Paisleyk ezingo zaituzte hartu. Lanpetuta dabil, badakizue. Arthur Noble naiz, alderdiko zuzendaritzako kidea. Neronek erantzungo ditut nahi dituzuen galdera guztiak.

Paisleyren adinaren ingurukoa da, altua bere buruzagia bezala, ez hain sendoa. Ez da artzaina izango, kale-jantziz etorri da behintzat. Elkarri

bostekoa eman, eseri eta, gure galderei itxaron gabe, hizketan hasi zaigu.

– Ezer baino lehen, Historiari buruzko argibide funtsezko batzuk eman nahi dizkizuet, gezur asko baitabil hor zehar. Lehenik eta behin, zalantza izpirik gabe, Ipar Irlanda ko protestanteen arbasoak, gure arbasoak, irlandarrak heldu baino lehenagotik gaude irla honetan.

Oso poliki ari zaigu, argi ahoskatuz, ingeles akademikoan. Inori baino hobeto ulertzen diogu, ahalegin handirik gabe.

– Britainiar irlen maparik zaharrenak, Ptolomeo astronomo eta geografoak marraztu zuenak adierazten du bi irla hauei Britainia Handia eta Britainia Txikia esaten zitzaiela. Ptolomeok erakusten digu protestanteen arbasoak, *ulster scot*-ak izenez ezagutuak, hemen zirela bigarren menderako, irlandarrak hirugarren mendean heldu ziren bitartean. Eta irlandarrek tematsu segitzen dute esanez Historia euren alde dagoela. Zentzugabekeria hutsa! Gu heldu ginen lehendabizi!

Gaur egungo gatazka zirt-zart konpontzeko behin-betiko argudioak ematen ari denaren tin-

kotasunez ari da Arthur Noble, etenik gabeko hizjario lasaian. Ez dut uste politikari ezezagun honen elkarrizketa argitaratzeko modukoa izango denik, baina pozten naiz itxura egiteko bada ere grabagailua piztu izana.

– Irlandarrek hirugarren mendean menperatu zuten irlaren iparraldea, eta *ulster scot*-ak kanporatu Eskozia aldera. Horrelaxe sortu zen Eskozia. *Scot* hitzak, jatorrian, irla honetako bizilagun esan nahi zuen. Beraz, Erreformaren garaian Eskoziatik eta Ingalaterratik irla honen iparraldera etorri zirenak euren arbasoen lurraldera itzuli ziren. Gertakari historikoak dira hauek, ez naiz ezer asmatzen ari. Hau azaltzen ari natzaizue, honek argiro erakusten duelako eskubidea dugula hemen bizitzeko, eta ez dugula hemendik aldegingo, ez diegula irlandarrei irla hau emango, ez baitira irlaren jabe.

Argudio historikoen soka ez da bukatu: Saint Patrick ez zen katolikoa, ez zuen zerikusirik katolizismoarekin, eta Adrian IV aita santuak indarrez inposatu zuen erromatar katolizismoa 1173. urtean, Henry II Ingalaterrakoaren eskutik. Edo ezpatatik, zehatzago.

– Zuek irlandarrak baino lehenago heldu izanak hemen bizitzeko eskubidea ematen dizue. Baina irlandarrek, zuek baino beranduago heldu zirela-eta, ez dute eskubide bera?

– Eskubide bera daukate, baina guk eskubide hori ez dugula esateko eskubiderik ez dute, erromatar katolizismoa inposatzeko eskubiderik ez dute, irlaren zati hau aldarrikatzeko eskubiderik ez dute. Eurek badaukate euren Errepublika.

Katolikoen eta irlandarren aurkako mila argudio entzun ditugu hurrengo orduerdian Arthur Nobleren ahotik, ia batere galderarik egin beharrik gabe: Irlandako Errepublika legez kanpo sortutako estatua da, Bigarren Mundu Gerran Dublingo Gobernuak Hitler sostengatu zuen, orain IRA sostengatzen du...

Talde paramilitar lealistei buruz zein jarrera duen galdetu dio Humbertok.

– Era guztietako terrorismoak gaitzesten ditugu, talde protestante terroristak barne. Alderdi demokratikoa gara, terrorismoaren kontrakoa. Hala ere, eta honekin ez naiz ari protestante terroristen aldeko aitzakiak jartzen, esan beharra dago talde protestanteak kontra-terroristak dire-

la. Erantzuna da. Jendea etsita baitago. Gobernu britainiarra ze demontre egiten ari den galdetzen du jendeak, protestanteen iritziei jaramonik ez diela egiten ikusten du, terrorista katolikoei amore ematen diela ikusten du... eta badira protestanteen artean azkenean terrorista bihurtzen diren extremistak. Guk euren jarrera ulertzen dugu, baina gaitzetsi egiten dugu.

Negoziazioak irtenbiderik ez duela ekarriko behin eta berriro esan digunez, irtenbiderako proposamenak zein diren galdetu diogu behin eta berriro. Ingeles garbian mintzatu arren, ez diogu proposamenik ulertu. Ez dauka. Interesgarria izan dela solasaldia. Ongi etorriko zaigula Ian Paisley elkarrizketatzen dugunerako.

– Paisley? Aste honetan oso lanpetuta dabil Paisley jauna.

– Ez daukagu presarik, hilabete batzuk egingo ditugu hemen.

Uste baino fundamentu txikiagoa atera digu Ian Paisleyren prentsa bulegariak.

Bunkerra

– Azken abisua da Gino, aditzen? Ultimatuma! Lapurretan segitzen baduzu arazoak izango dituzu, eta badakizu zelako arazoez ari natzaizun –Martin O'Callaghan-en mehatxuak erabat kikildu du kalean kabitu ezinik zetorren Gino, paparrean aurreneko ileak atera zaizkionetik etengabe gizonarena jotzen ari den nerabe harroputza.

– Zergatik diozu hori, Martin? Azken abisutik hona ez dut bekaturik. Utzi diot inoren etxeetan eta autoetan sartzeari. Ez zaitez faborez *haiengana* joan. Oraingo honetan ez daukat bekaturik, zinez diotsut.

Hamazazpi urte inguruko mutikote kankailuari bere luzeraren adinako dardarizoa antzematen zaio Martin hurreratzen zaionean. Auzokideak biak, Poleglass etorbidearen alde berean bizi dira. Lau atek bereizten dituzte bata eta bestearen etxeak. Martinen atea –35 zenbakia– ezinbesteko erreferentzia da auzunean, edonork gogora ekartzen duena inolako esfortzurik egin gabe.

Martin O'Callaghan Sinn Feineko auzoko ordezkaria da, auzotar guztien kezka eta arazoen hartzaile eta bideratzailea. Arazoak hala agintzen duenean edo egoeraren larritasunak gaia bere ahalmenen gainetik jartzen duenean, Martinek *haiengana* zuzentzen du arazoa.

– Jakin al daiteke zein motatako bekatuez mintzatu zareten? –itaundu diot zorrozki.

– Arazo gehiegitan nahastuta ibiltzen den horietakoa da Gino. Konpromezu gabeko mutila, diru zaletasun handiko gaztea –Martinek ez du gogo onez erantzuten.

– Zehatzagoa izan zaitezke?

– Nahikoa argia izan naizela uste dut, Humberto.

– Zer gertatuko litzateke *haiengana* bidaliko bazenu? –nire irakurleentzat ari naiz, ni baino bizkorrago senti daitezen.

– Gutxienez, auzunetik kanporatu.

– Eta kasurik txarrenean?

– Hori nik baino gehiago jakin nahi izatea litzateke... Txera eta aldarte onekoa da Martin, hantusterik gabea. Sinn Feineko auzo ordezkaria izateagatik baino, bihotz zabaleko eta ideia argi-

ko *fenian* (borrokalari errepublikar) suharra delako bereganatu du auzokoen begirunea. Alderdi errepublikarreko buruzagien artean dozena erdia besterik ez da ikasketak burututakoa. Bakan horietarikoa da Martin, eta horrek ilustratu kutsua ematen dio eskolaratua izateko larritasun franko eta motibazio eskasa izan duen komunitate katolikoaren aurrean.

Etxe atarian ipar haizearen orratzek gaixotzeko arriskuan jartzen gaituelako-edo, etxe barrura sartu eta guinnessa edatera gonbidatu gaitu Martinek. Atea atzean utzi eta, instantean, fikziozko kontakizunetan bonba nuklearraz babesteko eraikitzen diren babeslekuen irudia iradokitzen duen ikusmira azaldu zaigu.

– Zuen herrian ez dago honelakorik?

– Ezta antzekorik ere –kleenex batekin nire antiparren kristal lodiak garbitu ditut begibistan dudana sinetsi ezinik.

– Zoko askotatik irten naiz ihesi, baina honetatik gauza bera egiteko arazo asko izango nuke –txantxetan diotsat Martini, panorama tragikoari dramatismoa kentzeko asmoz.

– Kartzelak bizitzeko grina eta indarra osten dizu; hemen, berriz, babestuta sentitzen naiz, etxean nagoen bitartean behintzat.

Bi solairuko etxetxoa da Martin O'Callaghan babesten duena. Behean, sarrerara ematen duen korridore estutik gorpuzten hasten da etxea. Pasiloa ornamentuz kargaturiko egongela koloretsuaren parean dago eta, besterik gabe, hara sartzea gonbidatuko zaitu hurbiltasun fisikoak.

Beheko suaren inguruan antolatua da gela osoa. Eskuinean disko-jogailu zaharra, dozenaka kaset eta disko lurrean sakabanaturik, hemen Van Morrison, hor U2 eta An Scadan Rua, eta harantzago... Oskorri eta Pantxoa eta Peio. Ezkerreko paretan, sinbologiaz beteriko kartelak, Bobby Sands eta gainerako bederatzi gose grebalari martirien oroimena bizitzen dutenak gehienbat. Baina ororen gainetik batek erakarri du nire begirada, ikurrina itzela esku artean daroan jende multzo batena. Independentzia leloak burutzen du kartela. Ezkaratzera ematen duen sarreraren parean dago Euskal Herriari buruzko afitxa.

Burdinazkoak dira kanpora ematen duten leihoak, eta ateetan ezezik, barrualdean ere zenbait burdin-barra dago. Guztien artean bat nagusi: goialderako eskaileraren aurrean dagoen atetzar metalikoa, zorutik sabairainokoa. Goian logelak, komuna eta liburuak eta bestelako trepetak gordetzeko gelatxoa daude.

– Zertarako ate metaliko hau, Martin? Ez al da ba nahikoa kanpoan daukazunarekin?

– Lo egin ahal izateko, gozo, soseguz eta begiak itxi-itxita. Gauez erasotzen dute unionistek, lotan gaudela. Horrexegatik jartzen dugu ate hori, giltzarrapo eta guzti. Sartzen baldin badira, gure jendeari telefonoz deitzeko adina denbora emango digu giltzarrapoak, atea zabaltzeko ahaleginetan dauden bitartean. Gu akabatzen bagaituzte ere, etxetik irten orduko gureak egongo dira zerri horien zain.

– Etxea bunkerra bihurtzerainoko mehatxatua ikusten duzu zeure burua?

– Iaz arte ez nuen neurri berezirik hartzen, ez behintzat edozein errepublikarrek hartzen dituenak baino gehiago. Etxe honetara etorri aurretik birritan aldatu nintzen bizi lekuz, zinegotzia eta

alderdi barruko zereginetan aritu izanaren poderioz pertsonaia ezaguna bihurtu nintzelako. Baina ez nuen sekula etxea kaiola bihurtzeraino burdinaz jostea pentsatu. Iazkoa gertatu zen arte.

Suetenaren aurreko urtea oso gogorra izan zen. Atentatu eta hilketa ugari. Urte oparoa –odolari dagokionez– bereziki talde paramilitar unionistentzat, Belfast ekialdeko bizilagun asko hil baitzituzten tiroz eta lehergailuz. Azken lau urteetan, 1990etik, unionisten ekintzen ondorioz nazionalista irlandar gehiago hil da, IRAren eskutik unionistak baino.

– IRA eta oro har mundu errepublikarra politizatuagoa da. Eta ideologiak sostengantzen duenez, gure jomugak ere politikoagoak dira, selektiboagoak. Indiskriminatuagoak dira UVF eta UFF taldeen ekintzak, bai helburuetan bai ekar ditzakeen ondorengoetan.

– IRAkoak ere ez dira besamotzak hiltzeko kontuetan.

– Ez, baina ez dute garbitzen kalean egokitzen zaien lehena. Azken batean guk protestanteekin batera eraiki nahi dugu herri hau,

1921ean artifizialki banatua izan zena berriro batu. Talde unionistek, ostera, ez dute kaletarraren eta mugimendu errepublikarrean politikoki jarduten duenaren artean bereizketarik egiten. Berdin zaie okina, bizargina, egunkari-saltzailea edo alderdiko buruzagi bat.

Sinn Feineko zinegotzi baten etxean bazkaritan egoteak ekar diezazkidakeen arriskuak neurtzeari ekin diot une batez, konturatu barik bake prozesuan egoteak ataka horretatik libratzen nauela eta arratsalde bateko arriskua hutsaren hurrengoa dela egunez egun bunker honetan bizi duenarenaren aldean.

– Aspalditik ezaguna izanda, zergatik ez duzu orain gutxi arte honelako neurririk hartu?

– Behinola, lanetik itzuli nintzelarik, taxi beltzak auzunearen ondotik igarotzen diren bidea utzi eta berehala, ohikoa ez den giroa eta jendetza antzeman nituen. Arrapaladan hasi nintzen zarataren norabideari segika. Urrunetik jende multzoa ikusi nuen nire etxearen parean, eta nire bihotza danbatekoka.

Gizon patxadatsua da Martin. Hala azaldu zait orain arte bederen. Baina kontakizunak au-

rrera egin duen heinean urduritasun keinuak nabari zaizkio.

– Nire atarian baino bi beherago zegoen jendea txikizioaren hondakinak erretiratzen eta baliozko gauzak kartoizko kutxetan gordetzen. Mary, etxeko andrea eta hiru seme-alabaren ama, negar zotinka ikusi nuen nigana etortzen. Ia arnasarik hartu gabe, eskuak lepotik lotuz besarkatu ninduen.

Eskuzko leherkaria bota zuten. Auto gorri bat geratu zen atari aurrean eta bi gazte irten ziren barrutik. Batek lehergailua jaurti zuen goiko leihoaren kontra, besteak gerria autoaren leihotik aterata pistolaz airera tiro. «Up the UFF!» aldarri egin zuen pistoladunak ihesi aurretik.

– Ez zuten atentatuan inor zauritu. Onik atera ziren Doherty-tarrak. Etxearen goialde osoa berritu beharra izan genuen.

Gerora jakin denez, halaxe baieztatu zuen Poliziaren informe batek, Martin O’Callaghan bera zen leherkariaren jomuga.

– Erratuta jo zuten nire auzokoen kontra. Hurrengo erasorako prestatua dut bunkerra!

Ian Paisley-ren tximinoa

Igandea da, eta igandeetan Belfasten ez da zeregin handirik. Denda eta jatetxeek itxi egiten dute eta ordutegi oso mugatua daukate tabernek. Arratsaldez itxita egon ohi dira eta, gauez, hamar t'erdietan akabo. Igandeetan elizak izaten dira zabalik. Jendez lepo gainera, alde batean zein bestean. Ian Paisley erreberendoaren Martirien Oroimenerako Eliza Presbiteriar Askea aukeratu dugu galbidean ditugun izpirituen zuzentzeko.

Osteratxoa egingo dugu haraino, Ormeau errepide aurreko golf zelaia oinez zeharkatuta. Bi emakumezko daude pilotak astintzen. Jantzi horiekin, Joxemari Olazabal eta Nick Faldo direla engainatuko gintuzkete; baina makilari nola oratzen dioten eta pilota nola jotzen duten ikusita, argi dago beren posizio sozialak behartuta igandero joaten diren Mrs. Johns eta Mrs. Smith direna. Gure iritziei kontra egiteko, ordea, andere gizenenak asmatu du zartako egokia ematen, eta zelaiaren beste muturreraino hegan egin du pilo-

tak. Eta haren hegaldiari segika, Ravenhill errepidean lur hartu dute gure begiek.

Belfast Hegoekialdeko Ravenhill errepidean dago Ian Paisleyren eliza gorriska, bere bulego politikotik berrehunen bat metro eskasera. Aberatsa dirudi auzune protestante honek –etxe dotoreak lorategi zainduekin, parke handia aurrean, auto garestiak etxe ondoetan–, eta fededunak izan behar dute bertako bizilagunek, berrogeita hamar metrotik behin eliza eder bat ageri baitzaigu errepide zabal eta luze honetan: metodista, presbiteriar ofiziala, presbiteriar askea, Irlandako Eliza... Denetarako aukera daukate protestanteek.

Astegunetan DUPeko (Alderdi Unionista Demokratikoa) bulegoan lan egiten du Paisleyk Ulster protestante eta britainiarraren alde, eta igandeetan protestantismoaren alde hildakoen oroimenez Paisleyk berak eraikiarazitako elizan izaten da, Ulster protestantearen alde eta Irlandako «erromatar katolizismoaren» kontrako mezua haizatzen. Astean behin Belfasteko udaletxe parean ere izaten da, bozgoragailua eskuan, Irlan-

daren eta Vatikanoaren inperioaren gaitzen berri ematen.

Ipar Irlandako eliza protestanteen artean hedatuena den Eliza Presbiteriarraren zatiketa eraginez sortu zuen Paisleyk Eliza Presbiteriar Askea 1952an. Hierarkia presbiteriarrak ez zituen usadio zaharrak behar bezalako zorroztasunez betetzen, katolizismoaren aurkako borroka ez zuen behar bezainbat gogortasunez egiten... eta, funtsezko arrazoia hau, artzain protestanteek ez zuten gaitzesten tabakoa erretzea. Ezinbestean jaio zen, beraz, protestantismoaren egia lau haizetara zabalduko zuen komunitatea.

Horretan ari dira, goizeko hamaikak laster, atean zain dauzkagun gizonezko adindu prestuak. Atea zeharkatu besterik ez dugu egin eta bostekoa luzatu digu batek, eta indartsu estutu: «Ongi etorriak!». *The Revivalist* aldizkariaren ale bana eman digu adeitsu beste batek. Eta gorako bidea erakutsi hirugarrenak. Nahi dugun lekuan esertzeko.

Guri begira sentitzen ditut ia begi guztiak. Baina ez katoliko zantzurik hartu digutelako, trajerik eta korbatarik gabeko gizonezko bakarrak

garelako baizik. Hiru urteko haurrek ere jaka eta korbata daramate hemen, eta loredun kapel dotorea emakumezko orok.

Aldare nagusiaren atzeko horma biluzian oso letra handitan irakurri dut: «Gurutzatutako Jesukristoren alde egiten dugu otoitz». Albo banatan bi bandera handi dauzkate zintzilik: Erresuma Batuko *Union jack* alde batean, eta Ulsterko bandera unionista (gurutze gorria hondo zurian) bestean. Begiradatxoa bota diot *The Revivalist* aldizkariari, Paisley noiz agertuko zain gauden bitartean. «Kristoren etsaiak» izenburua du artikulu batek: «Zer esan nahi du Kristoren etsai bilakatzea? Aita Santuaren aginduei men egitea, apaizen gatibu izatea, ebangelioa aldatzearen errudun izatea, benetako debozioa idolatriarekin usteltzea, “Eliza” Jainkoaren ordez jartzea, objetu bizigabeei gorazarre egitea, San Pedro apostolua faltsuki goratzea, Kristorena baino ez den paperaren usurpazioa».

Ondoren katolizismoaki zenbat kritika dakartza eta, bukaeran, «egitate nabariak» azpimarratzen dira konklusio gisa: «Erromatar katolizismoak eta kristautasunak ez dute zerikusirik,

izena salbu», «Erromatar katolizismoa da kristautasunaren etsairik handiena», «Erromatar katolikoak EZ dira kristauak, eta Jainkoari traizio egitea da posibilitate hori iradokitze hutsa», «Kristauak direla dioten erromatar katolikoak bide bakarra dute hori erakusteko: esklabu bihurtu dituen sistema ahula modu agerian errefusatzea».

1969. urtean Ipar Irlandan komunitate katolikoaren eta protestantearen artean gatazka odoltsua piztu izanaren erantzule nagusietako bat Ian Paisley dela uste du irlandar askok. Engoitik, ezaguna zen komunitate protestantearen lider erlijioso erradikal modura: usain katolikoa edota irlandarra zuen edozeren aurkako agerraldietan lehenengo lerroan ageri ohi zen 1960ko hamarkadaren amaieran ere.

Irlandatik eta Erresuma Batutik kanpo ere ezagunak dira artzain handikote honen ateraldiak. 1988ko urrian Europako Legebiltzarrean egindakoak sona handia izan zuen: Joan Paulo aita santua Strasburgeko Legebiltzarreko bilkura berezian parlamentarioei hizketan ari zela, haren hitzaldia eten zuen, «Joan Paulo II Antikris-

toa» zioen afitxa erakutsiz. Parlamentuko lehendakariaren aginduz kanporatu zuten ganbaratik, oihuka:

– Uko egiten dizut Antikristoa zarelako! Uko egiten dizut Antikristoa zarelako!

Sinestezina iruditzen zait Europarako Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan erreberendo honek boto gehien lortu izana Ipar Irlandako sei konderrietan, alde handiz gainera. Londreserako hauteskundeetan hirugarren indarra izan ohi da DUP, unionista ofizialen eta SDLPko nazionalisten atzetik eta Sinn Feinen aurretik, baina Strasburgerako bozketetan bera izan da irabazle hiru aldiz jarraian.

Hamaikak jota igo dira Ian Paisley eta bi laguntzaile aldarera. Laguntzaileak atzean eseri eta Paisleyk hartu du hitza. Ongi etorria eman digu guztioi eta Smith artzain protestanteari, «gure anaiari», zorionak eman dizkio Belfasteko alkate izendatu dutelako aste honetan, berriro. Belfastek ez du sekula alkate katolikorik izan baina, aurten, lehenengo aldiz historian, alkateordea nazionalista da, SDLPkoa. Ez du horren aipamenik egin.

Oso ozen hitz egiten du Paisleyk, ahots lakarrez. Apal eta lasai ari da, baina ez da zaila bestela imajinatzen. Ez da zaila bere ahotik tximistak eta trumoiak ateratzen imajinatzea. Halatsu jardun zuen eliza honetan bertan John Major eta John Bruton lehen ministroek bake prozesurako oinarrizko akordioa sinatu zuten astean. Akordioaren testua eskuan, gora eta behera astinduz, testu hori deabruaren madarikazioa zela oihukatzen.

Baina gaur bare etorri da eta, sarrera-hitzaldi laburraren ostean, kantari jarri zaigu. Eta ez digu alboko emakumeak barkatu. Hurbildu zaigu, eserleku azpitik kantu-liburuxka atera, abestia agertzen den orrialdean zabaldu, zein abesti den atzamarraz adierazi, eta guri begira geratu da, kantuan noiz hasiko zain. Humbertok ere kantatzeko plantak baino ez dituela egin iruditu zait, ezpainak herabe mugituz. Baina plantak egin ditugu behintzat, eta abestia gure golkorako irakurri:

– Bai ederra jainkoak gu ezagutzea! Bai ederra jainkoak gu aintzat hartzea! Bai ederra jainkoa gurekin gogoratzea!

Kantua bukatzearekin batera aldegin du Paisleyk, gu bere bi laguntzaileen esku utzita. Diruaren esklabutzaren aurkako hitzak izan ditu lehenengoak, eta abesti pare bat kantatu. Sermoi luzea eta sutsua bota digu ondoren beste erreberendo gazteak. Eta ez da esku hutsik etorri: trapuzko tximua ekarri du, eta aldarean denok ikusteko moduan ipini. Darwinen Teoria burugabekeria hutsa dela irakatsi digu, garrasika batzutan, haurrei zuzendutako hitz leunez bestetan.

– Mutiko eta neskato, aita eta ama, gu lehen horrelakoak ginela esaten digute eskolan! –trapuzko panpina erakutsi digu bere baieztapenaren egiaren seinale–. Tximu ginela gizon baino lehenago! Baina jakin ezazue, jainkoak Adan sortu zuenean, gizon sortu zuela! Eta ez, inola ere, tximu! Sermoia mamitsuenean dagoelarik heldu da guregana diru biltzailea: erretilua hutsik ekarri duenez, nabarmen geratuko gara honetan ere. Diruaren morrontza eta Darwinen teoria sutsuki gaitzesten dituen elizari dirua eman beste erremediorik ez dugu izan. Baina pozik geratu naiz, Humbertok baino gutxiago eman bai-

tiot Paisleyri: libra bat berak, hogei penike baino ez nik.

Bukatu dute erreberendoak eta tximinoak. Eta ospa egin dugu handik, jatorri katolikokoak garela antzeman dezaten baino lehen.

Ipar Irlanda - Letonia

Harritu egin nau futbol zelaiaren inguruan hain polizia gutxi eta hain giro lasaia ikusteak. Londresen Arsenalen partiduak ikustera joaten nintzenean bezala, poliziak zaldi gainean eta miaketa zorrotzak espero nituen Windsor Park-en atarian. Hemen ez da, nonbait, Erresumako hiriburuan bezala.

Sarreraren hogei librak ordaindu (salneurri bakarra) eta harmailetan egokitu zaidan lekura abiatu naiz, bakarrik. Humberto etxean geratu da azkenean, eta gure lagun irlandarrak ez dira Windsor Parkera etorri zale. Auzune protestanterik itxienetakoan dago Belfasteko futbol zelai nagusia. Fallseko Donegall Road-etik barrena, ordu laurdeneko ibilaldia nahikoa da Windsor auzunera heltzeko, baina bide hori sekula egin gabekoak izango dira alde bateko zein besteko gehienak.

Seiak laurden gutxitan sartu naiz barrura eta... arraioa! Zer demontre egiten du piperpote handiak FIFAko banderaren alboan? Belfasteko

estadioko masta ofizialetako bandera nagusi eta bakarrak dira FIFAkoa eta gorri-horia, alajaina!

Sarreran libra batean erositako liburuska irakurtzen ari da aldamenekoa.

– Barkatu jauna. Ba al dakizu zer dela-eta jarri duten Espainiako bandera?

– Epailea espainiarra delako izango da –bi taldeetako hamaikakoak irakurtzeari jarraitu dio.

Diaz Vega da epailea. Azalpenak balio dit, baina xelebrea da epaileagatik halako bandera jartzea eta aurrez aurre izango diren Ipar Irlandako eta Letoniako selekzioen banderarik ez agertzea. Banderak badira, hala ere, harmailetan. Ipar Irlandako dozena t'erdi bandera ofizial ikusi ditut (zuria, gurutze gorriduna; Ingalaterrakoaren berdina, ezkutua gora-behera), dozena bat bandera britainiar, eta dozena erdi zuriberde (etxeko selekzioaren koloreak). Irlandako berde-zuri-laranja ez da inon ageri.

Futbol zale ia guztiek daramate bufanda. Union Jack-aren koloreetakoa (gorri-zuri-urdina) dute gehienek, eta zuri-berdea besteek. Atotxa zaharra baino txikiagoa da estadioa; hogei milatik behera izango gara partidua ikusten. Ingala-

terran jokatuko den Eurokoparako sailkapen faseko norgehiagoka da: Letoniak ez du sailkatzeko aukerarik, eta Ipar Irlandak zaila du oso. Irabazi egin behar gaur, derrigorrez. Hego Irlandako selekzioak, talde berean, aurrea hartu zion sailkapenean Windsor Parkeko norgehiagokan 1-4 irabazi ondoren. Belfasteko katolikoen pozerako.

Ohartarazi ninduten giro unionista topatuko nuela hemen, eta bandera britainiarzaleak baino ez ikusteak ez nau harritu. Letoniako ereserkia zutik eta errespetuz entzun ostean Ipar Irlandako taldearenarekin hasi direnean, ordea, jo eta ma geratu naiz. God Save The Queen! Harmailak lepo daude, eta zale guztiak kantari ari dira, eztarria urratu beharrean. Lehen estrofa bukatu dute eta, bigarrena hasi aurreko tartean, oihu bat entzun da gure harmailan, denok entzuteko moduan:

– Errendiziorik ez! –unionisten gerra oihua.

Deiadarra errepikatu egin da estrofa tarte guztietan, eta ulertu ez ditudan slogan mordoska bat entzun ditut hainbat bazterretatik, ereser-

kia bukatu ahala. Txaloak gero, eta hasi da partidua.

Giroa ikustera etorri naiz futbolera, hoztasunez; baina Letoniazale amorratu bilakatu naiz bat-batean, bandera britainiarrek inguratuta naukatelako erreakzioz. Irabazteko esperantzarik gabe, galtzen ohituta baikaude Letoniaren jarraitzaileok. Bakarra izango naiz gainera estadio osoan. Lehenengo zatiaren bukaeran sartu dute gola unionistek.

Ian Dowie *striker* baldarrak egin du gola: errebote pare batean indarrez eraman du baloia, atezaina metro pare batera ikusi duenean oin puntaz jo du, eta aurpegi ondotik sartu zaio baloia atezain letoniarrari. Txalo egin dut, kiroltasunez.

Bigarren zatian, jarraitzaile unionisten maldizioen artean bi gol sartu ditugunean, eutsi egin diot pozari, eta disimuloan egin dut txalo. Alan McDonald atzelariaren huts izugarri bati esker sartu dugu lehenengoa, eta hegaleko aurrelariaren jokaldi politari esker heldu da bigarrena. 1-2 irabazi diegu. Errenditu egin behar izan dute, azkenean. Gustura jarriko dira Fallseko lagunak.

Etxeko bidea hartu dut norgehiagoka bukatuta. Tropelean abiatu dira hirigunerantz, tropelean hegoalderantz, eta nik bakarrik jo dut Falls aldera. Etxerako bostehun metro eskas falta direla, etxea zein urrun dudan erakutsi dit hormako grafiti ikusgarriak. Bi kaputxadun, metraileta bana eskuan, eta mezu zuzena: «Death to all Irish nationalist. Better to die on your feet than to live on your knees in a United Ireland» (Heriotza irlandar nazionalista guztiei. Hobe zutik hiltzea, Irlanda Batuan belauniko bizitzea baino). UFF, Ulsterko Askatasunaren Borrokalariak.

Humbertoren etxera joango naiz, selekzio unionistaren porrotaren berri ematera.

Telebistako albisteak entzuten ari dira Karen eta Humberto. Azaldu diet Windsorren ikusitakoa.

– Ikustekoak izan dira Letoniaren golak, eta ikustekoak ikusle unionisten aurpegiak! Bigarrena izan da politena: hiru atzelari lurrean utzi ditu letoniarrak eta...

– Donegalletik barrena etorri al zara? Oinez eta bakarrik? –Kareni futbola bost.

– Bide bakarra da, ezta?

– Arazoak bilatzeko bide zuzenena bai behintzat. Zoro asko bizi da auzune horietan, eta horietako bat Fallsera zentozela ohartzea aski litzateke gorriak pasatzeko.

– Ez da hainbestekoa izango. Zer egin behar nuen bestela? Hango taxiek ez ninduteketen hona ekarriko...

– Hirigunera joan, jende artean, eta hirigunetik hona, taxi beltza hartuta.

– Tira, tira... Edonor niregana etorrita ere, atzerritarra naizela berehala ohartu eta bakean utziko ninduketen.

– Nahi duzuna egin, baina etorri berria zara eta hobe zenuke hemengo jendeak esaten dizunari jaramon pixkat egitea.

Haserre puntua sumatu diet Karenen hitzei. Nago arriskua benetan dena baino handixeagoa egiten dutela, baina ez diot esan.

– Begira hau.

Belfast Telegraphe zahar bateko azala erakutsi digu. *El Diario Vasco* irakurtzen ari naizela iruditzen zait arratsaldeko periodiko hau eskuetan hartzen dudan bakoitzean. «IRA bombs links basques» dio titular handitan (IRAko bonbek lo-

tura daukate euskal herritarrekin), eta Askapenakoa dela uste dudan neska ageri da argazkian, preso errepublikarrei elkartasuna adierazteko prentsaurrekoa ematen.

– Joan den abuztuan argitaratu zuten hau, eta beldurrak airean ibili ziren euskal ordezkariak. Lealistek badakite euskaldun izateak zer esan nahi duen.

– Espainiarra naizela esan eta kito.

– Fallsera datorren espainiarra euskalduna da eurentzat.

Gogoratu Bloody Sunday, Charles

Galesko Printzearen ongi etorrian parte hartzeko asmoz heldu gara Derryra. Dublinera doa Charles gaur gauean. Bloody Sunday famatuan, 1972ko urtarrileko azken igandean, paraxutista britainiarrek Derryn hil zituzten hamalau irlandarren senideek autobusa antolatu dute. Erresuma Batuko Armadako paraxutisten buruzagi nagusia da printzea.

Belfastetik autobusez etorri gara Derryra, Ipar Irlandako bigarren hirira, hemendik Irlandako hiriburura joateko. Belfasten ez bezala, katolikoak gehiengo dira Derryn, eta nazionalista dute alkatea, John Humeren SDLP alderdikoa. Derrytarra da Hume bera, eta baita Martin McGuinness Sinn Feineko bigarrena ere. Hemengo protestanteek, britainiarrek, *El Correo Español*-ek, *El Diario Vasco*-k eta *El País*-ek Londonderry esaten diote Derryri.

Bogside auzunean zain daukagu Dublinerako autobusa. Derryko auzune katoliko nagusia da Bogside, eta esanahi berezia du komunitatearentzat. 1968ko urriaren 5ean eskubide zibilen aldeko –komunitate katolikoarekiko diskriminazioaren aurkako– lehenengo manifestazioaren ondoren Bogsiden bi egunez izandako istiluak jo izan dira Ipar Irlandako egungo gatazkaren abiapuntutzat.

Hemengo bizilagunen eta polizien arteko borrokek –Bogsideko Bataila izenez ezaguna– are famatuago egin zuten auzunea 1969an; orduko hartan barrikadez hesitutako *no-go* areak (Poliziak sartzea ezinezkoa zuen gune katolikoak) eraiki eta *Free Derry* aldarrikatu zuten. 1972ko igande odoltsuko gertaerak ere Bogsiden gertatu ziren. «Derry askea» iragartzen duen mural erraldoia dago gaur egun ere Bogsideko sarreran: «Free Derryn sartzen ari zara».

Sartu gara, beraz, Free Derryn. Belfasteko Fallsen ikusten diren mezu, irudi eta kolore berak ageri dira Bogsideko hormetan: auzuneko gerra presoen zerrendak, 1981eko gose greban hildako hamar errepublikarren irudiak eta ize-

nak, Bloody Sunday egunean hildako hamalaurak, Irlanda Batuaren aldeko muralak, britainiarrei hanka egiteko gonbidapenak...

Hogeita hiru lagun bildu gara Dublinerako asmoarekin, Humberto eta biok barne. Jende gehiago espero genuen. Charlesek hainbeste merezi du.

– Lan-eguna da eta autobusez lauzpabost ordu daude Dublinera –esan digu John Nash gure kontaktoak–. Ez genuen askoz jende gehiago espero.

Lazo berdea daramate paparrean bidaiari guztiek, eta pankarta parea jarri dute ibilgailuaren alboetako leihoetan, kanpora begira: «Bloody Sunday, inozentzia hil zen eguna» dio handienak eta «Bloody Sunday Justizia Kanpaina» (taldearen izena) besteak.

Eseri eta abiatu ahala ekin dio alboko emakumeak. Gure zorionerako, irlandarrek ez dakite isilik egoten; parean egokitzen zaizuna berehala hasiko zaizu galderak egiten, eta atseginez erantzungo dizu galderarik egiten badiozu. Jendetasun ezaren seinaletzat daukate albokoari jara-

monik ez egitea, galderarik ez egitea. Gureak azalduta, bereak eskatu dizkiogu.

– Bloody Sundayko biktimaren baten senidea al zara?

– Ez, Jainkoari eskerrak! –Aitaren egin du–. IRAko kide baten alaba naiz.

Gaizki ulertu diot, Ipar Irlandako azentu itxiaz mintzo da. 70en bat urte izango ditu, eta IRAkoaren ama dela esango zuen, ez alaba. Herri Batasunaren maifestazio zenbaitetan lehenengo lerroan ikusi izan ditudan emakume helduen tankera hartzen diot Sheals-i.

– Zure aita? IRAko kidea?

– 1916an egin zuen borroka. Dublinen britainiarren aurka altxatu zirenean Derryn jendea bildu zuen nire aitak Dublinera jaisteko, baina Derryn bertan atxilotu zuten. Gero, Derryko espetxetik ihes egin eta Ingalaterran berriro atxilotu. Hamasei urte egin zituen giltzapean.

Senarra RAFeko piloto ohia duela esan didanean hizkuntzak nahasi nauela otu zait berriro. Baina ez: aita IRAkoa, eta senarra RAFekoa (Erresuma Batuko Aire Armadakoa), protestantea.

– Amak hitza ukatu zidan horregatik, gizon jatorra zela konturatu zen arte. Ideia errepublikarrak ditu orain senarrak. Leihotik begira jarri gara bi kanpotarrak, Shealsek muga bertan daukagula ohartarazi digunean. Soldadurik ez dago bertan, eta gelditu gabe pasa da autobusa, baina ezagun du treguarik gabeko garaian ez zukeela hain erraz igaroko. Gaur egun ere hor daude soldaduentzako txabolak eta metalezko hesi altuak errepidearen bi alboetan, kamera ugari guri eta inguruari begira eta abiada geldiarazteko koxkak errepidean. Autobusak ez du muga zuzen zeharkatzerik izan: S bat egin behar izan du britainiarrek utzitako hesiak saihesteko.

– Treguarik ez balego, soldaduak barrura sartuko lirateke, eta boltsa guztiak miatu. Oraindik hor dauzkate kamerak, sasikume horiek –goxoki zorroa zabaldu, ingurukooi eskaini eta ahora eraman du bat Shealsek.

Autobusaren atzealdetik gure aurreko eserlekura etorri da John Nash, bidaiaren antolatzailea. Ia familia osoa dator Dublinera Johnekin: Marga-

ret emaztea, bi seme-alaba, bi anaia, arreba eta suhia. 1972ko urtarrilaren 30 hartan Derryko Bogside auzunean paraxutistek hil zuten William Nashen anaia da John. 19 urte zituen orduan William zenak, 21 Johnek.

– Bezperan ezkondu ginen, hain justu ere, Margaret eta biok. Larunbat osoa eman genuen bion familiek ezkontza ospatzen –edaten alegia, irlandarrek ez baitute ospakizunetan askorik jaten–. Igandea zen Margaret eta biok hotelera joan gineneraco. Esnatu berriak geunden, beraz, manifestaziora abiatzean. Hiruretan hastekoa zen.

Ez zen edonolako manifestazioa. Hiru urte eta hiru hilabete ziren Derryn eskubide zibilen aldeko lehen manifestazioa egin zenetik, bi urte t'erdi soldadu britainiarrak Ipar Irlandara heldu zirenetik, urte t'erdi Internamendu Legea –epaiketarik gabeko espetxeratzea– ezarri zutenetik, eta 174 lagun hilak ziren ordurako hiru urte luzeko gatazka politikoan. Eskubide zibilen aldeko martxa ordura arte komunitate katolikoak antolatutako agerraldi garrantzitsuena izatea espero zen.

NICRAk (Ipar Irlandako eskubide zibilen aldeko elkarteak) ezer larria gertatzeko arriskua saihestu nahian, manifestazioan ez parte hartzeko edo behintzat armarik ez eramateko eskatu zieten banandu berri ziren IRA Probisionalari eta IRA Ofizialari. Bi talde armatuek bete egin zuten, itxuraz, antolatzaileen eskaera. Agintariek ez zuten manifestazioa legeztatu. Soldaduak Bogside inguruan ziren manifestazioa hasi baino lehenagotik.

– Hoteletik irten eta Bogsidera hurbildu ginenean ibilgailu militarrak ikusi nituen kalean. Irekita zeukaten atzealdea eta garbi asko ikusten zen ‘lanera’ etorriak zirela, ondo armatuta. «Badirudi hilketak izan litezkeela gaur kalean» esan nion emazteari. Baina nik ez nuen benetan halakorik espero! Plastikozko balez jendea zaurituko zutela espero nuela esan nahi nuen...

Hamar mila manifestatzaileen artean zeuden Johnen gurasoak eta anai-arrebak, martxa arratsaldeko hiruretan abiatu zenean. Johnek aita zeraman aldamenean.

– Halako batean oihuka entzun nuen jendea. Eta harri batzuk airean. Hobe genuela urrutira-

tzea esan nion aitari, eta manifestazioaren atzealdera abiatu ginen. Tiroak entzun ziren batbatean, jendea korrika, garrasika... Eta bi edo hiru mila lagun harrapatuta gelditu ginen kale batean. Soldaduak guri tiro egiten sumatu nituelarik, etxe arteko hutsune batera bota nuen neure burua. Erori egin nintzen eta, atzera begiratu nuenean, ikusi nuen gazte bati tiro batek aurpegian nola jo zion, eta nola altura gutxiko horma batekin estropozo egin ondoren haren atzean desagertu zen. Hildakoa Bamey McGuigem zela jakin nuen gero. Nire babeslekutik irten gabe egon nintzen tiroketak iraun zuen bitartean, hamar bat minutu, eta etxeratzea erabaki nuen azkenik.

Etxera itzulitakoan ez zuen panorama onik topatu. William anaia hil egin zuten eta aita tirokatuta zauritu. Ama ospitalean zegoen, aitarekin.

Guztira hamahiru lagun hil zituzten egun hartan soldaduek, eta hogeita bost tiroz zauritu. Hauetako bat hil egin zen biharamunean. Manifestaziotik armez eta bonbaz egindako erasoei erantzunez tiro egin zutela adierazi zuen hasie-

ran Londresek. Soldaduek hildakoez eta zauritutakoez gain beste zauriturik ez zen ordea, eta lekuko guztiek zioten soldaduen tiroen aurretik ez zela ez tirorik ez eztandarik entzun.

Ordutik Gobernu britainiarrak erantzukizuna bere gain har dezan lanean ari dira Bloody Sunday Justizia Kanpaina taldekoak. Astero biltzen dira, eta Armadaren edota Poliziaren gehiegikeriak jasan dituzten beste hainbat talderekin koordinatzen dira Senideak Justiziaren Alde elkartean.

– Bloody Sunday ez da bukatu guretzat. 1972ko urtarrilaren 30ean hasi besterik ez zen egin. Egun hark ekarritako saminak bero irauten du. Eta hori gutxi balitz, biktima gisa beharrean errudun gisa tratatzen gaituzte.

– Soldaduak defendatu egin zirela zioen lehen bertsio hura ez al dute aldatu?

– Egiaren eta barkamen eskaeraren zain gaude oraindik. Gertatutakoari buruz esan zutena lotsagarria da. Egia esaten ez duten bitartean ezin dugu barkatu. Eta barkatu ahal izateko, barkamena eskatu behar digute.

Irish News zabaldu dut Dublinera heltzeko ordubete-edo falta denean: Loughgalleko auziari buruzko epaiketa hasi dela irakurri dut. SASeko (Aire Armadako zerbitzu berezietako) soldaduek bederatzi lagun –IRAko zortzi eta zibil bat– hil zituzten tiroz 1989ko maiatzaren 8an. Oliver Hughesek eta bere anaiak buzo urdina jantzita eramateko zoritxarra izan zuten egun hartan: buzo urdinez jantzita zihoazen SASekoen begiradapean zeuden IRAko komandokideek ere, eta soldaduek ez zuten errukirik izan Hughestarrekin ere.

Bizirik geratu zen anaiaren testigantza dakar Belfasteko egunkari nazionalistak: «Ehundaka tiro entzun nituen, anaiaren oihuak gero, eta bi tiro sentitu nituen bizkarrean. Ospitalean esnatu nintzenean, hamalau tiro jaso nituela jakin nuen, horietako bat buruan, oso hurbiletik nahita egina. Hilda nengoelakoan gorpuen depositora eraman ninduten beste bederatzi gorpuekin batera, baina bizirik nengoen. Bi aste egin nituen koma egoeran».

Soldaduek seiehun bala jaurti zituztela dio forensearen txostenak.

Hogei urte barru honelako autobus batean imajinatu ditut Oliver Hughes eta hildako bederatzi irlandarren beste senideak. Egia noiz onartuko eta barkamena noiz eskatuko zain.

Postetxearen paretik abiatu da manifestazioa arratsaldeko bost t'erdietan. Nazionalismo irlandarraren historian aparteko lekua du Dublingo Postetxeak: Hego Irlanda independentziara eraman zuen altxamendua Postetxe honen hartzearekin hasi zuten Conollyk eta gainerako heroi irlandarrek 1916an. Egun, kutsu abertzalea duten ekitaldiak Postetxearen parean egiten dira Dublinen, jendetza biltzeko batere egokia ez den arren: hiriguneko errepide nagusiaren erdian dago, O'Conell kalean, eta ez du plazarik inguruan. Trafikoa erabat etenda dago, eta hala iraungo du ekitaldia amaitu bitartean.

Bi mila lagun inguru abiatu gara O'Conell kalean behera, Trinity College ondotik pasa, Udaletxe eta Parlamentu inguruetan ibili eta bueltan Postetxera itzultzeko asmoarekin.

Zenbaki bana erakusten duten 45 lagunek zabaldu dute martxa: letik 45era, paraxutista britainiarrek hogeita bost urtean hil zituzten 45 irlandarren oroigarri. Erresuma Batuko Koroaren indar militarrek 25 urteotan 300 irlandar hil dituztela gogorarazten du atzerago datorren pankartak, eta herio-doinuak jotzen dator musika banda, pankartaren aurretik baina 45 lagunen atzetik.

Bloody Sundayko gure adiskideek autobusean ekarritako bi pankartak daramatzate, eta Apologise (Barkamena eskatu) hitza osatzen dute bederatziren artean, bakoitzak letra bana eramanda.

Sinn Feinek sinatutako oihala ere bada: «Errepublika Sozialista Demokratikoaren alde», eta mordoska bat dira Printzeari buruzkoak: «Ongi etorririk ez Para-Printzeari» *(para* esaten zaie paraxutistei, Ipar Euskal Herrian bezala), «Hoa etxera Para-sitoa», «Iparraldean Para dena, ez da Printzea Hegoaldean». Bandaren doinuak urrutiago entzuten diren heinean, ozenagoak dira manifestatzaileen oihuak:

– Charly! Charly! Charly!... –bozgorailukoak.

– ...Kanpora! Kanpora! Kanpora! –denok.

– Para! Para! Para!...

– Parasitoa!

Manifestazioa bukatuta, berriro Postetxean, autobuseko bidai-lagunak izan dira ekitaldi politikoko protagonistak. William zenaren eta Johnen arreba Lindak hartu du hitza. Linda gaztea da Johnen aldean; 45 urte ditu Johnek, eta 35 inguru Lindak. Anaia hil zutenean neskato bat baino ez zela esanez hasi du hitzaldia.

– Gauza bakarra dago sarraskia bera baino larriagoa: sarraskirik izan ez zela dioen gezurra, hain zuzen ere. Jendeak ikusi zuena ez zen gertatu, jendeak entzun zuena ez zen gertatu, jendeak sentitu zuena ez zen gertatu, eta jendeak gaur egun sentitzen duena iraganean bizitzeko modu bat besterik ez da.

Apal ari da, irakurtzen, oihurik egin gabe. Eszenatokian bertan, Lindaren atzean, John eta besteek pankarta erakusten dute: «Inozentzia hil zen eguna».

– Iraganaren gatibu garela entzun behar izan dugu sarri, baina eurak dira historiaren benetako gatibuak, euren historiaren beldur direlako. De-

serosoegia da eurentzat. Errealitatea gordinegia da eurentzat, gordinegia aurre egin ahal izateko.

Printzeari ongi etorria egingo dioten irlandarrei gogor mintzatu zaie Linda:

– Bloody Sunday gertatu zenetik 23 urtera Paraxutista Erregimentuaren buruzagi nagusiaren etorrera ospatzen ari dira irlandar batzuk lur irlandarrean. Tristea da, eta gaitzetsi beharrekoa. Britainiarren eta irlandarren arteko adiskidantzarako lehen urratsa izan zitekeen bisita hau, baina horretarako azken urteotako historiaren errealitateari aurre egin behar zaio, ez errealitate hori ezkutatu eta ukatu.

John Bruton lehen ministroaren Fianna Gael gobernu-alderdiak eta Albert Reynolds lehen ministro ohiaren Fianna Fail oposizio-alderdi nagusiak sostengua eman diote Printze britainiarraren etorrerari. Izan ere, alderdi txikiak baino ez dira altxatu Charlesen bisita ofizialaren aurka: Sinn Fein –Hego Irlandan botoen %1 inguru jaso ohi duena– eta ezkerreko alderdi minoritarioagoak.

Printzeak zalantzan izan du bisitaren bigarren egunean Sligo konderriko Mullaghmore herrira joan ala ez. Bere osaba Lord Mountbatten urtero etorri ohi zen Mullaghmorera uda pasatzera, 1979ko abuztuaren 29an IRAk haren untzia bonba batez txikituz hil zuen arte. Beste hiru lagun ere hil ziren eztandan. Ordutik Ingalaterrako erret familiako inor ez zen Irlandako Errepublikara etorri. Charlesek harreman estua zuen nonbait osabarekin, eta Sligora bisita sinbolikoa egingo zuelakoan zegoen prentsa. Ez da joan ordea; gurekin geratzea erabaki du, Dublinen.

Trinity College unibertsitate dotorearen atarian itxoin diogu, ehundaka batzuk irlandarrekin batera. Ikasleak dira asko, baina pertsona helduak ere badira tartean. Ez zaigu iruditu kontrako giro handirik aurkituko duenik Printzeak. Ez dugu behintzat bezperako manifestazioko girorik igartzen. *Union Jack* pare bat ikusi ditut eta «Ongi Etorri, Printzea» dioen dozenerdi afitxa ere bai jende heldu samarraren eskuetan. Poliziak hartua du inguru guztia, baina segurtasun neurriak ez zaizkit ikusgarriak iruditu. Miaketarik

ere ez inon, eta frankotiratzaile bakarra ikusi dut nik teilatu batean.

Ez dugu askorik itxaron beharrik izan. Polizia motordunak aurrena, polizia motodun gehiago gero, autoak, kotxeak, autoak... eta kotxetzarra azkenean. Autotik irten denean protesta oihuak ozenago entzun dira txaloak baino, baina txalo egin dutenak askoz ere gehiago izan dira garrasi egin dutenak baino. Ozenen eta garbien entzun diren orroak derrytarren ahotatik heldu dira. Hiru hitz, behin eta berriro, dolua adierazteko bandera beltzak astindu bitartean:

– Gogoratu Bloody Sunday! Gogoratu Bloody Sunday!

Arrautzak hegan ikusi ditugu. Hurre ibili dira, baina ez diote eman. Polizia bati bai, eta auto dotore horietako bati ere bai. Charlesek txaloak entzuten dituen aldera begiratu eta diosal egin dio jendetzari, besoa jasota. Txalo artean erantzun diote askok.

– Txepel samarra harrera, ezta? –Humberto ni bezain dezepzionatuta geratu da.

Harrera motza egin diote irlandarrek Galesko Printzeari. Txalo epel ugari eta kontrako oihu

gutxi. Eguna Printzearen atzetik pasa beharrean, Dublingo guinnessa dastatzea deliberatu dugu, iparraldeko eta hegoaldeko guinnessaren arteko aldea neurtzearren. Autobusez itzultzeko Sinn Feineko bulegoaren parean egin dugu hitzordua eta, noski, galduta gabiltza Dublinen. Hogeiren bat urteko mutilari galdetu dio Humbertok:

– Aizu? Ba al dak zu Parmell Square non dagoen?

– Harantz noa neu. Etorri nirekin. Parmell Squareko zein lekutara zoazte?

– Sinn Feineko bulego aurrera –Belfasten ez nukeen hain lasai erantzungo, norekin ari naizen jakin gabe, baina Hego Irlandan ez dago arazorik.

– Sinn Fein! Fiuuuuu! Ba al dakizue zer den hori?

– Badakigu, bai. Ez kezkatu.

– I-R-A! –hiru letrak banan-banan esan dizkigu, ondo ulertuko diogula ziurtatzeko edo– Ez sartu gero barrura!

– Autobus bat hartu behar dugu bulego parean.

– A! –lasaitu egin da–. Nora joateko?

– Derryra itzuliko da autobusa.

Elkarrekin egin ditugun bost minutuan ez du berriro ahorik ireki. Berritsua eta umore onekoa zirudien mutila mutu geratu da, Sinn Feineko bulego parean Ipar Irlandarako autobusa hartzekoa den bikote atzerritarraren aurrean. Ipar Irlandara sekula joan eta joango ez den irlandarretakoa izango da. Ez diogu galdetu.

– Eskerrik asko, gazte.

Go raibh mhaith agat

Poleglass auzuneko Glenballn Place kaleko 26. zenbakira joaten naiz gaelikoa ikastera. Connor dugu irakasle astean bitan behintzat biltzen garen zazpi lagunok.

– Failte Romhai –gelara sartu ahala agurtu nau Ann Mariek.

Ez dira nolanahikoak nire ikaskideak. Unibertsitate sasoiakituko nituela espero nuen, aldean liburu pilo batekin ibiltzen diren horietakoak. Baina beheko suaren inguruan jesarrita daudenek aspaldi ahantzi zuten eskola garaia. Ann Marieren etxeko egongela-eskolan bilduta gaude; ez dakit zergatik, nahiko ilunbetan, klandestinitate giroan, maltzurkeriaren bat asmatzen edo azpilanean arituko bagina bezala.

Besapean ekarritako *Progress in Irish* liburua zabaldu dut. Irakurketa pixka bat egingo dugu gaur. Izerdi hotza botatzen du Connorrek ozen irakurtzeko eskatzen didan bakoitzean. Ingeles idatziaren eta mintzatuaren artean diferentzia

handia baldin badago, zer esanik ez gaeliko idatziaren eta mintzatuaren artean.

–*Cad e mar ata tu* idatzita daukazu hor, Humberto. Baina zuk *Kitxae maretatu* esan.

Gure irakasleari asko kostatzen zaio klasearekin aurrera egitea, abiadura handiko trenarena baino, pazientzia handiko idi-gurdiaren abiadura egokiagoa baita guretzat.

Giro jatorra daukagu. Eta alaitasuna eransten dio Patsyk, 70 urteko agureak. Hego Irlandako Cork-en jaioa da, baina gaztetan etorri zen Belfastera –barkatu, Beal Feirste-ra (gaelikoko eskolan gaude)–. Klaseko bi orduak Kieran eta Carol Anneri adarra jotzen ematen ditu Patsyk; ez dio Connorri jaramon handirik egiten. Sikieran, giroa onduz lanak errazten dizkio, jendea tentuan ipintzen baitu. Mintza-praktikarako giro egokia eta ausardia berari zor dizkiogu. Kementsua da agurea, eta ez du amore emango ukatu izan zioten hizkuntza ikasi arte.

Terry eta Eileen senar-emazteak daude Patsy xelebrearen aldamenean jesarrita. Bikote gazteak alaba izan du orain gutxi, aurrenekoa, eta gaelikoz hazi nahi dutelako sprintean ikasi gura

dute hizkuntza. Agian presa horregatik izango da Terry klaseko azkarrena, bere taxi beltzarekin Fallseko ibilbidea egiten duen habailan ikasten baitu.

– Gaur egungo gaztetxoek gaelikoa ikasteko aukera badute, oinarrizko hezkuntza gaelikoz egiteko ikastetxeak badira-eta –Culturlanneko ikasgeletara eramango dute euren alabatxoa–. Gure haurtzaroan ez zegoen horrelakorik, ezta alfabetatze erakunderik ere.

Orain gure AEKren pareko eskolak dauzkate irla osoan zehar: Glor nGael, Gonradh na Geilge, Comhaltas Ceolteori Eireann, Cumann Lutchleas Gael eta beste hainbat erakunde.

Connorren irakastaldiak nahikoa ez-eta, Glor nGaelek Fallsen daukan eskolara ere joaten gara Patsy eta biok. Goizero bi ordu egiten ditu Patsyk Sean gaztearekin, astelehenetik ostiralera; egunen erdietan agertzen naiz ni. Aste osoko klaseengatik libra bakar bat besterik ez digute kobratzen Glor nGaelen. Egunero ateratzen diguten tea ordaintzeko ere ez! Irakasleek musutruk ematen dituzte eskolak. Bi solairuko egoitza zaharkituak argi asko adierazten du balibide eko-

nomiko urriekin dihardutela. Behean ez dago leku handirik: kafea eta tea prestatzeko baliatzen duten ezkaratza, aldi berean egongela eta bulego modura erabiltzen duten gela desordenatua, eta korridore ilun eta luzea. Goian: komunak eta klaseak emateko bi gela. Gure ikasgelako paretatako pintura ustelduta dago, jausi beharrean; arbela dagoen hura izango da txukunena, arbelak estaltzen duelako seguruenik. Falls errepidera ematen duen leihotik hartzen dugu arnasa.

Gaurko irakaslea Connor dela eta Poleglass kaleko etxean gaudela gogorarazi dit Terryren ukalondokoak. Connorrek *Goramaiegot* (eskerrik asko) ahoskatu du, eta nik letraz letra aletu behar. Alua!

– *Go / r-a-i-b-h / m-h-a-i-t-h / a-g-a-t* –kostata baina, asmatu dut!

Errepublikarra eta protestantea

Suzanne Bunting bizirik atera zen hiru paramilitar unionistek duela hogeita bat urte bere etxean egin zioten erasotik. Ohi denez, gaueko ordu txikietan burutu zuten erasoa, etxekoak lotan zeudela. Suzannek jadanik orbaindurik dauzka hiru balek hesteetan eragin zizkioten zuloak. Ixten zailagoa den beste orbainik badu: zerraldo utzi zuten Ronnie senarra.

Fallsen bizi den jatorri protestanteko errepublikar apurretarikoa da Suzanne. Irlandako dantza tradizionalen saioa ikusten ari den errepublikar multzoaren artean topatu dugu, Felons Club tabernan. Bezeriagatik, talde paramilitar lealisten helburua da. IRAko preso ohiak eta hauen senitarteko eta lagunak besterik ezin dira bertara sartu. Tabernak gotorlekua dirudi, aurrealdean burdinazko ateburuko kamera oroikusleak gure bisitaren berri eman dio ataritik kontrolatzen ari den zaindariari, ateaz bestaldeko ate-

zain pareak sarrera eman edo ukatzeko. Asturuak Milltowngo hilerriaren eta RUCeko komisaldegiaren aldamenean jarri nahi izan du taberna.

– Suzanne Buntingekin geratu da elkarrizketa egiteko –bisitaren nondik norakoen berri eman die gidaritzat hartu dudan Martin O'Callaghan Sinn Feineko kideak.

– Eta nor da berori? Nondik dator?

– Euskalduna da, kazetari lanetan ari da Irlandan eta hemengo gatazka ezagutzera etorri da.

– A!, ETA, pin pan pun... Aurrera, barru-barruraino.

Tabernako jendetzaren marmarrarekin duten lehian garaile dira Christy Moore kantari irlandarraren «The city of Chicago» abestiaren doinu goxoak. Duela 150 urte milioi t'erdi hildako eragin zuen gosetetik ihesi –gehienak gaelikoz mintzatzen ziren nekazariak– Estatu Batuetara eta Australiara abiatu ziren milioi bat irlandarren oroimena egiten du Mooreren kantuak. Milaka lagunen ihesbidea moztu zuten Atlantikoko olatuek, eta itsasuntziek hilkutxa deitura hartu dute harrezkero.

– Nire senarra, Ronnie –Suzanne astiro hasi zait hizketan–, Irish Revolution Sozialist Party (IRSP) alderdiko kidea zen. 70eko hamarkadan oso ezaguna egin zen bere jarduera eta borroka politikoaren ondorioz.

Alderdi poltiko nazionalista eta marxista da IRSP. Sinn Feinek legez, Irlanda Batuaren alde egiten du, baina xede hori gauzatzea garrantzitsua bada, kapitala eta elizak –katolikoa zein bestelakoak– borrokatzea ez du aise alboratuko. Irish National Liberation Army (INLA) talde armatuaren beso politikoa da IRSP. Sinn Feinek Londresko Gobernuarekin zituen negoziazioekin bat ez zetorren talde batek sortu zuen INLA, Seamus Costello izaki disidenteen buru, 1977an Dublinen hil zuten arte.

Ez da IRAn emandako zatiketa bakarra. Hiru urte lehenago, 1977an, banaketa berria ezagutu zuen mugimendu errepublikarrak. Gobernu britainiarrarekin negoziatzeko tregua deitu zuen IRAk. Orduan ere McGuinness eta Adams negoziazio taldeko kideak ziren, beste batzuen artean. IRAko adar batek ez zuen begi onez ikusi elkarrizketa prozesua, eta talde armatua bitan

zatitu zen: IRA Probisionala (Provos) –azken honen segida da gaur egun IRAtzat jotzen dena– eta IRA Ofiziala. Gerora Workers Party edo Langileen Alderdia jaio zen, IRA Officials-en beso politiko gisara.

– Major Ronald Bunting –ia itaundu barik isuri zaizkio oraindik barrua irakinarazten dioten egun haietako oroitzapenak– buruzagi unionista historikoaren semea zen nire senarra. Eta horrek zaildu egiten zuen bere egoera pertsonala, sekula santan ez baitiote barkatuko protestantea izanik errepublikar bilakatu izana. Ordura arte nire gurasoekin bizi ginen auzune protestantean, baina hanka egin behar izan genuen pertsonaia ezaguna egin zelarik. Protestante unionistentzat katolikoak baino gorrotagarriagoak gara errepublikaren eta Irlanda Batuaren alde egiten dugun protestanteak.

Bunting bikoteak Fallsera etorri behar izan zuen, bertan harrera ona izango zutelako segurantzaz eta errepublikarren artean babestuago sentituko zirelakoan. Babestuago bai, baina seguru inon ez. Handik bi urtera, 1980ko azaroaren 15ean pairatu zuten erasoa.

Gerora, buruzagi politiko errepublikarrek edo mugimendu errepublikarrean lan aktiboa egin dutenek bezalatsu, birritan aldatu da etxebizitzaz. Egun Poleglass auzunean bizi da: langabeziaren astindu zakarra gogor sentitzen den eremuan.

– Gurasoen etxera itzultzeko asmorik ba al duzu?

– Gogoa bai, baina asmorik ez. Azken hogei urteotan, Ronnie hil zutenetik hona, birritan besterik ez ditut hemendik hamabost minutura dauzkadan gurasoak ikusi. Dena den, ongi pentsatuta, nahiago dut gauzak dauden moduan uztea. Gurasoei zer pentsatzen dudan, zein lagun ditudan eta non bizi naizen argituko banie izugarrizko atsekabea hartuko lukete. Ez dute sekula ulertuko.

– Badago Ipar Irlandatik at estereotipo bat, zeinaren arabera protestantea izanik ezin zaitezkeen nazionalista irlandarra izan.

– Badaude Irlanda Batua lortu nahi duten protestante apur batzuk. Azken laurogei urteetan britainiarrek eragin duten protestanteen eta katolikoen arteko zatiketa da horren arrazoia.

Baina Irlanda Batuaren alde ez dagoen katolikorik ere bada. RUC Ipar Irlandako Polizian, esaterako, %7 katolikoak dira. Herritarren artean ez dago katoliko lealistarik, haiek ez baitute Gobernu lealista bere bezala errekonozitzen, ez Sinn Feinekoek ez SDLP alderdi sozial demokratakoek ezta IRSPkoek ere.

Bat-batean, ordurarte gure solasaren lagun eta konplize izan dugun musikotsa etsai bilakatu zaigu. Bolumenak gora egin du eta niretzat ezezaguna den doinua nagusitu da tabernako bi solairuetan. Malgukia bailuen, jendea zutitu egin da. Suzannek ere esaldiaren haria eten eta altxa egin da. Mundu guztia kantatzeari lotu zaio. Irlandako ereserki nazionala da. Taberna ixteko ordua.

Lee Clegg kalean!

– Askatu egin dute Lee Clegg! –Imanolen telefono deiak kolpe batez esnatu nau.

– Txantxetan ala? Ez dira ausartuko! Bake prozesua kili-kolo geratuko litzateke.

– Altxa ohetik behingoz eta begiratu leihotik. Dendatik etxera nentorrela, nire aurrean bi furgoneta bide erdian gurutzatu eta su eman die gazte talde batek. Blokaturik utzi dute Donegalleko bidegurutzea.

Dozena bat ke-ildo nabari da Belfast Mendebalde eta iparraldeko teilatuen gainetik. Sanjuan biharamuneko traza dauka hiriak. Falls inguruko kale eta errepideak autoez eta kamioez osaturiko suzko barrikadez beterik daudela dio BBC irratiak:

– Goizeko sei t’erdietan utzi dute libre Lee Clegg soldadu britainiarra. Karen Reilly hamazortzi urteko neskatilaren hilketagatik betirako kartzela zigorra ezarri zioten. Clegg eta beste soldadu batzuek Opel Astra urdin bati gelditzeko agindua eman zioten Belfast Mendebaldean jarritako

kontrol batean. Autoak stop egin ez, eta tiroka geldiarazi zuten soldaduek. Gidariaren aldamenean zihoan Ballymurphyko neska zerraldo utzi zuten.

Irratiak ahaztu egin du, *joyrider* izenez ezagunak diren kotxe lapurretan jarduten duten ehundaka gazteetariko bat zela Karen Reilly. Auzune errepublikarretako gazteen artean oso hedaturik dagoen ohitura omen da inoren autoak hartu eta osteratxoa ematea. Gauez izaten dira lapurretak, gauez izaten delako trafikorik gutxien, eta une horixe profitatzen dute autoz batetik bestera habaila bizian ibiltzeko.

Turf Lodge eta Ballymurphyko karriketan barrena entzuten da, eskuarki, kotxeen burrunba. Gazte irlandarren denborapasa arriskutsua. Gurpilen marrak ezabatu eta kanbioari astindu ederrak eman ostean, autoa utzi eta etxeratzen dira joyriderrak. Hala izaten da gehienetan. Haatik, bidean polizien edo soldaduen kontrolarekin topo egiten dutenek komisaldegirako bidea hartzen dute, edo Karen Reillyren kasuan bezala, heriotzarakoa.

Reillyren heriotza izan zenetik hiru urte eman ditu giltzapean Lee Clegg Paraxutisten Konpainiako soldaduak. Epaia berraztertu ondoren, Patrick Mayhew Ipar Irlandako estatu-idazkari britainiarra buru duen epaimahaiak –Betirako Kartzela Zigorren Berrikuspenerako Batzordeak–, hasierako epaiari muturrekoa eman eta Clegg kalean uztea erabaki du.

Epaimahaiaren irudiko, hilketa baino zoritxarreko istripua izan zen soldaduari gertatutakoa. Errepublikar eta irlandar nazionalistentzat aldiz, britainiarren moral bikoitzaren eta justiziaren irizpide bereziaren azken isla baino ez da.

Donegall Roadeko bidegurutzean BT telefono konpainia britainiarreko furgoneta eta kamioi handia sugarretan daude. Hirugarren auto bat ere badago bidean trabeskatuta. Azken hau oraindik osorik. Imanolen kaleko taxi geltokitik kapela gorriko mutil lodikotea irten da, gasolina ontzia esku artean. Atzetik lauzpabost mutil gehiago. Horietariko bat Gearoid M, Sinn Feineko goi kargu ospetsu baten semea. Egun batzuk lehenago ezagutu genuen Springfield errepidean izan zen manifestazioan.

– Gure haserrearen lekuko zarete. Esan mundu osoari zergatik egiten ditugun honelakoak. Gaur ere begi bistan geratu da nazionalistak bigarren mailako herritarrak garela britishen aldean.

– Ez duzue norbaitek salatuko zaituzten beldurrik? Kale guztia zuei begira dago eta baten batek mingaina luzea izan dezake.

– Fallsen inon baino seguruago sentitzen naiz. Era batera edo bestera borroka berean gaude denok. Eta traidoreek badakite hemen lekurik ez daukatela. Garbitu egiten ditugu, besterik gabe.

Bisera gorrikoak antolatu du Donegalleko ekintza –bisera gorri franko izan dela jakin izan dugu gero–. Hirugarren autoa kiskaltzen jarri dutenean entzun dira sirenotsak. Ziztu bizian aldegin dute Donegalleko komandokideek. Norbera bere etxera seguruenik. Gearoid M.ek diosala beroa egin digu gure paretik igarotzean, bere lana primeran bete duela adierazi guran-edo.

Suetena iragarri zenetik estreinakoz, poliziek balen aurkako txalekoa daramate soinean. Imanolek eta biok bake prozesua kinka larrian dago-

elako seinaletzat hartu dugu txalekoaren detailea.

– Ikusten nortzuk dauden jende artean?

Poliziak land rover-etatik jaitsi eta bidea eragozten duten kamioien sua itzaltzen hasi besterik ez, eta biseraduna eta Gearoid poliziaren lana ikuskatzen dagoen jendetzara batu direla ohartu gara, harrituta. Gertatutakoarekin zerikusirik izan ez balute bezala daude, izozki bana zurrupatzen, ezer ez dakitenarena egiten. Kalekoak ere indiferentziaz portatu dira.

– Honekin nahikoa izan ez baduzue –Gearoid hurbildu zaigu berriro–, hemendik lasterrera barrikada berria egiteko asmoa daukagu. Whiterock errepidean. Gaur ez zaizue lanik faltako zuen egunkarirako.

Whiterock errepidean ez dago taxi bulegorik. Hango mutil-kozkorrek ez dute operazio-zentruen premiarik, ezta inolako logistikarik ere. Helduagoren batek furgoneta edo kamioren bat geldiarazten badu, eurek egingo dute gainerakoa trebezia paregabez.

Gearoid M.ek handik pasa nahi duen esnezalearen furgonetari alto eman dio:

– Gure herriaren borrokarako behar dugu zure furgoneta.

– Baina, hau...

Esnezale gihartsuak ukabilkada baten laurdenaz despatxatuko luke nahiko balu, baina birritan pentsatu eta amore eman du.

Lehoi nagusiak ehiza harrapatzen duen eran, Gearoidek autoa konfiskatu eta lehoikumeen atzaparretan utzi du mokadu goxoa. Intifadaren bertsio irlandarra. Izkina guztietatik gazte mordoska bat hurreratu da barrikadari su ematera. Aldez aurretik merkantzia lurraren kontra apurtuko dute, arerioaren prentsak esne-lapurrak esan ez diezaien.

Hirurak eta hamarrean abiatu gara manifestazioan, Sinn Feinen egoitzaren paretik. Manifestazioaren buruan sei zinegotzi, ez pankartarik ez ezer. Seitik hiru ezagutzen ditugu: Alex Maskey, Joe Austin eta Tom Hartley. Hiruzpalau metro atzerago dator jende multzoa. Lehen bost ilaretakoak –gure adiskide Eric eta Malachy tartean– elkarri besotik helduta datoz, segurtasun hesia

osatzen. Ehundaka lagun bildu gara, milatik gora agian. Ez dago gaizki, eguerdian deitu eta arratsaldean egina izateko.

– Zer nahi dugu? –Tom Hartley hasi da garrasika.

– Presoak kalera! –denok batera.

– Noiz nahi dugu?

– Orain!

Ez da manifestazioan beste sloganik oihukatu. Baina hormetako graffiti egin berrietan Lee Clegg da protagonista: «Lee Clegg kalera, denok kalera».

– Hirigunera sartzeko asmoa ote dute? –-ez dakit Imanolen irribarrea istiluen beldurragatik den edo istiluen egarriaren seinale.

Falls utzi eta hirigune aldera jo dugu manifestazioan, ezagutzen ez ditugun kaleetatik barrena.

Hogei-hogeitabost metro zabalerako Grovesnor errepidera heldu garenean aienatu dira gure zalantzak: Poliziak hiriguneko sarrera itxi egin du. Bost lerrotan jarrita dauzkaten berrogeita hamar jeep-ek eta ehunetik gora poliziek kalearen zabalera osoa blokatu dute. Plastikozko bala

jaurtitzaileak daramatzate aldean. Bideo kameraduna eta argazkilaria ere ez dira falta polizien artean.

Polizi-barrikada ehun metrora dugularik gelditu da manifestazioa. Hizketa lasaian ari dira aurrealdean Sinn Feineko buruzagiak, zer egin erabakitzen-edo. Manifestarien multzotik irten eta bi aldeen tartean dagoen kazetarien lubakira biltzeko baliatu dugu atsedena.

La astekariko Colon erreportariarekin egin dugu topo.

– Zer gertatuko da orain?

– Auskalo. Edozer gauza.

Bazter batera erretiratu gara kazetariak, aurrera egitea erabaki dutela ohartu garenean. Sinn Feineko buruzagiak aurre-aurrean doaz, lehen bezala. Eta elkarri besotik helduta zetozen bost lerroek bakarra egin dute. Pauso luze eta bizkorrean poliziengana hurbiltzean, eguneko slogana oihukatu dute arestian baino ozenago:

– What do we want?

– Prisoners out!

– When do we want it?

– Now!!!

Enfrentamenduak berehalakoa zirudienean, gelditu egin da manifestazioa polizi-lerrotik bost metrora. Alex Maskey zinegotzia polizi arduradunarengana hurreratu da. Minutu eskaseko solasaldia. Alex Maskeyk kazetariak eta manifestariak bildu eta protesta ekitaldia bukatu dela jakinarazi du.

Kamioi, furgoneta eta auto kiskaliak zenbatuz egin dugu etxerako bidea: 20tik gora badira Sinn Feinen egoitzatik gure etxe parerainoko kilometro t'erdi inguruan. Fallsen hiru barrikada gune daude: zortzi ibilgailu birrindurik Sinn Feinen egoitza aurrean; handik kilometro erdira, Culturlann zentroaren inguruan, dozenerdi bat; eta Donegalleko bidegurutzean beste dozenerdi bai behintzat. Kilometro bat gorago, Andersonstown auzunean bi autobus errepidean trabeska jarri eta kiskali egin dituztela esan digute.

Taxi beltzek lanean jarraitzen dute.

– Zuek, euskaldun parea, zikindu zuen esku zuriak! Zertara etorri zaretela uste duzue! –mehatxua egin digu Eric adiskideak, koktel molotovez

beteriko hogeita lau botilako garagardo kaxa daramala.

Malachyk gu bakean uzteko esaten dio Erici.

Arratsaldeko ekintzak bukatu osterako egin dugu gauerako zita Eric eta Malachyrekin.

– Gauez izango da benetako dantza. Kazetari on batek ezagutu beharko lukeen dantza-saioa –proposatu digu bikote istilu zaleak.

Eta dantzaldiari koreografia ederra egokitu zaio gau mugitu honetan. Ilargiaren printza amatatzen dute Armada britainiarreko helikopteroetatik erortzen diren argi errainuek. Lau helikoptero dira Fallseko aire-eremuaz jabetu direnak. Beste horrenbeste kriseilu zeruan eskegita.

Helikopteroen fokoen azpian Ericek eta Malachyk beren barrikada antolatzeari ekin diote setatsu eta gogobete.

– Mutilak, bidea moztu beharra daukagu –diotso Malachyk inguratzen dion gazte taldeari, Eric traktore batekin agertu denean.

– Barrikada altxatakoan, bakoitzak har dezala koktel molotov bana Polizia erortzen denerako, eta haien kontra jaurti.

Argibideak emanda, bukatutzat eman dute Ericek eta Malachyk Beechmount auzuneko lana, eta Fallsetik gora jo dute hurrengo auzuneko ekintza antolatzera. Dagoeneko Fallsen hasieratik Beechmountera dagoen kilometroan bizpahiru barrikada muntatu dituzte.

– Koldarrok, hor geratu behar al duzue gau osoan? –Ericek guri.

Beechmountetik Andersonstownera beraz. Eric eta Malachy aurretik, arnas-estuka; gu biok atzetik.

Andersonstownera iristeko bost bat minutu baditugu, Milltown hilerri entzutetsuaren aurreko polizi-komisaldegi ondotik igaro garenean. Kalean ez da deus ikusten. Helikopteroen burrunbak eta polizi-sirenotsek urratzen dute gauaren isiltasuna. Eta bat-batean tiro hotsak entzun ditugu.

– Azkar mutilak, azkar!

Buelta eman eta etorri garen bidetik itzultzeko keinua egin dugu guk, haien agindua hauxe zelakoan. Oker. Eric eta Malachyk tiro hotsen jatorriaren bidetik segi dute trostan.

– Gu bai kokolo parea!

– Hauek ogia busti nahi dute piper saltsan. Goserik bai? –atzera egiteko gonbitea sumatu diot Imanolen galderari.

Baiezkoa ematear nagoelarik, Malachyren oihuak gure tentsioak baino gehiago astindu gaitu.

– Agudo mutilak! Zertara etorri zarete hau ikustera ez bada?

Andersonstowneko barrikada jadanik eraikita dago.

– Berandu iritsi dira gure lagunak. Norbaitek aurrea hartu die.

– Sikieran, hemen Ericek ez digu eskuak zikintzeko agindurik emango.

Auzuneko bidegurutzea bitan banatzen du Andersonstowneko barrikadak. Gu gauaen aldean, harriak eta koktel molotovak jaurtitzen ari den talde multzoarekin bat egiten dute Eric eta Malachyk. Beste aldean, lehenxeago entzundako tiro hotsen jatorria argitu digu RUC Poliziak: *plastic bullet,* plastikozko pilotak.

Emma Groves-en etxe paretik ari dira gazte errepublikarren koktelei erantzuten.

Panpin begiak

Gatazkak utzi dituen biktimetako bat da Emma Groves. 75 urteko emakumea itsu utzi zuen 1971ko azaroan soldadu britainiar batek jaurtitako rubber bulletak aurpegian bete-betean jo zuenean. Andre dotorea da Andersonstown errepideko 157.eko atarian hartu gaituena. Ile kiribildu ederki apainduak, belarritako beltz biribilak, eta pieza bateko jantzi luzeak Emmaren berezko dotoretasuna nabarmentzen dute. Betaurreko ilunek damaiote puntu goibel bakarra makularik gabeko emakumeari.

– Panpin begiak ditudala esaten didate bilobek –betaurrekoak kendu ditu Emmak aurreko bi arrotzok egiazta dezagun bere kuttunen ingenuitatea–. Zintzoak dira haurrak.

Hau esateko ere ez du aldartea gaiztotu, eta barre aierua egin du bere plastikozko begiez txantxa egiterakoan. Bere biloba txikia sartu da gelara, amamak berba egiten digun bitartean; eskuan plastikozko hegazkin koloretsua dakar.

– Seamus, utz gaitzak unetxo baten. Berriketan gaudek. Zer esango du, bada, urrunetik etorritako mutil pare honek?

Ikusi ez arren, Emmak etxean gertatzen den guztia mende du. Etxean batetik bestera ibiltzeko arazorik ez zaio nabari, bazter guztiak neurtuta balitu bezala. Bere urratsen hurbiltasuna sentitzen dutenean eskailera eta malda guztiak desagertarazten direla esan daiteke.

– Ikasi beharra izan dut aurrera egiteko. Ezkaratzekoak izan ezik, beste guztiak neuk egiten ditut, itsu geratu aurretik egiten nuen legez. Paraxutistak tiro egin zidan arte, hamaika seme-alabaren ama maratza nintzen. Harrezkero, noraezean, iparrik gabe ibili nintzen zenbait urtetan zulotik atera ezinik. Kanpoko eta barruko iluntasunaren morroi izan nintzen denbora luzez, beti negarrez nire gelan sartuta. Baina gainditzea lortu dut.

– Zergatik eraso zintuzten paraxutista britainiarrek?

– Senarrarekin eta zortzi seme-alabarekin batera nengoen etxeko egongelan. Kalean istiluak zeuden, eta leihotik begiratzea otu zitzaidan.

Soldaduek mutil gazteak beren etxetik atera eta atxilotzen zituztela gogoratzen dut. Orduan, egonezinak jota-edo, nere kanturik gustukoena jartzeko esan nion Eithne alabari, Irlandako herri kantu bat. «The Four Green Fields» abestiaren lehen notak entzundakoan gertatu zen. Nik ez nuen soldadua ikusi, beste norabaita begiratzen egongo nintzen. Horixe da nire begiek argia ezagutu zuten azkena.

Besaulkian jesarrita dagoen amamari ez zaio flakezia keinurik antzematen iraganeko pasarte goibela gogoratzean. Irmo eta zut eusten dio gorputzari, berbak aparteko hoztasun finagaz ahoskatzen ditu. Iragana ahaztu barik aurrera jotzeko erabaki tinkoa hartu duenaren indarragaz mintzo zaigu Emma Groves.

– Plastic bullet eta rubber bullet, plastikozko eta gomazko piloten eraginez ni baino okerrago atera denik ere izan da urteotan, eta hori berriro gerta ez dadin ari naiz borrokatzen. Izan ere hamazazpi lagun, gehienak hamaika eta hamazortzi urte bitarteko neska-mutilak, hil dira plastikozko eta gomazko pilota hauek jota. Hanketara tiro egiteko diseinatuak izan ziren baina... Sea-

mus bezalako mutil-kozkorrak akabatu dituzte –orain arte sentimenduei eusten egon den emakumeari ahotsa kraskatu zaio behingoan.

Emmak gelako mesanotxean gordeta dituen pilotak atzerritarrei ekartzeko esan dio Seamus gaztetxoari. Hamar zentimetro inguruko luzerako eta bi zentimetroko diametroko proiektil beltzak dira rubber bulletak; krema kolorekoak eta pittin bat txikiagoak egun poliziak eta soldaduek erabiltzen dituzten plastic bulletak. Emmaren esku ahurrean ia ez da kabitzen ale bana.

Etxe honetara sartu garenean gelako beste edozein txokok adina garrantzi zuen leihoak nire arreta zuzpertu du bapatean. Handik sartzen den argi errainuen bideari jarraituz pausatu dut begirada eta pentsamendua. Eta bart entzundako plastikozko piloten hotsak etorri zaizkit gogora.

Uztailak 12

Taxi beltzak Castle Courtera baino eramango ez gintuzkeenez –eta handik oinez ordu erdi behintzat behar dugu Ormeau errepidera–, taxi pribatuekin froga egitea deliberatu dugu.

Beltzak ez diren taxiei pribatu esaten zaie: kolore ezberdinetakoak dira, ez daukate ibilbide finkorik eta esandako helbidera eramango zaituzte. Alabaina, kalean besoa altxata ez duzu geldiaraziko. Bulego ugarietako batera joan beharko duzu, edo telefonoz deitu, nora zoazen esan, eta taxiak jasoko zaitu. Ez daukate taximetrorik: ibilbidearen luzeraren eta bidaiari kopuruaren arabera gora-beherarik baden arren, bizpahiru libra gehienetan.

Katolikoak zein protestanteak izan litezke taxi hauek. Treguarik ez zegoen garaian auzune katolikotik protestantera ez zintuen eramango taxi katolikoak, eta alderantziz ere ez. Baina egun zertxobait aldatu da kontua eta hasi dira batetik bestera mugitzen.

– Ormeau Road ingurura joan nahi genuke –bulegariari.

– Ez da posible. Ez al dakizue uztailaren 12a dela?

– Badakigu bertaraino joatea zaila dela, baina Queen’s Unibertsitateraino eramanez gero gu konforme, handik oinez segituan gaude Ormeau Roaden. Kazetariak gara.

Gure joan behar horri garrantzia emateko nabarmendu diot kazetariak garela. Ez gaitzala turista txoriburutzat hartu.

Uztailaren 12a orangisten jai eguna da, 1690. urtean protestanteek –William Orange-ko printzea buru zutela– katolikoak garaitu zituzteneko Boyne-ko bataila famatua ospatzeko zorioneko jaia, katolikoek protestanteen harrotasun zalapartatsua pairatzen duten zoritxarreko eguna. Urte osoan Ipar Irlandako kaleetan protestanteak nagusi baldin badira, areago uztailaren 12an. Milaka katolikok Hego Irlandara hanka egiten du uztailaren 12aren astean, jasanezina egiten baitzaie unionisten nagusitasun erakustaldia.

Auzune protestante guztietatik orangisten martxak abiatuko dira goizean, musika eta pauso militarrean, Belfasteko auzune ezberdinetan barrena ibili ondoren Shankillen batzeko. Eta handik Edenderry zelaira, eguerdian festa handia eta ekitaldi politikoa egiteko. Tentsioa handia dago, azken gertaerak direla-eta.

Portadown herrian, egunotako martxa orangista bat auzune katolikoa zeharkatzekoa zelarik, bertako bizilagunek bidea itxi zieten elizatik zetozen orangistei. Polizia bi komunitateen erdian jarri eta protestanteei bidea zabaldu ez zienez, Ipar Irlanda osoko orangistak bertara joan eta, pasatzen utzi arte, ez zirela handik mugituko.

– Hil edo bizikoa da borroka hau! Ez dugu etsiko! –oihukatu zuen Ian Paisleyk milaka orangistaren aurrean. Enfrentamendu bortitzak gertatu ziren Poliziaren eta orangisten artean, baina azkenean, 48 orduko tentsioaren ondoren, akordioa lortu zuten: martxak auzune katolikoa zeharkatuko zuen, baina musika militarrik jo gabe, isilik, errespetuan. Hala egin zen.

Portadownekoa baino lehen ere izan da liskarrik martxa orangistak direla-eta. Duela hamar egun Ormeauko zubian –gaur tentsiogune nagusia izatea espero den lekuan– gertatutakoaren lekuko izan ginen.

Orduko hartan, komunitate katolikoak Ormeauko errepide nagusia (protestantea) beheko errepidetik (katolikoa) bereizten duen zubian kontzentrazioa egin zuen, protestanteen nagusitasuna aldarrikatzen duen martxa orangista bertatik pasatzea probokazioa zela argudiatuta. Poliziak itxi egin zuen zubia, istiluak eragozteko, eta orangistek ez zuten pasatzerik izan. Zubiaren alde protestantean egin zuten ekitaldi erlijioso-politikoa. Artzain protestanteak hartu zuen hitza, bozgorailua eskuan:

– Badirudi ez dugula zubi hau pasako...

– Eta nire semea zer? –orangista uniformerik gabeko batek kendu zion hitza erreberendoari–. Bestaldeko putakume horiek garbitu zuten nire semea!

– ... baina guk pasako dugu azken zubia, Jesukristo daramagulako gurekin. Eta zubia pasa-

tzen utzi ez digutenek ezin izango dute azken zubi hori pasa.

Azken zubia pasako ez zutenen artean ziren, nonbait, orangistei bidea ixten ari ziren RUCeko poliziak.

– Begira! Erreginaren koroa daramate uniformean, Erreginaren zerbitzariak dira, Erreginak ordaintzen die... eta hemen Erregina defendatzen dugunon aurka egiten dute! Arazo sortzaileen alde!

Otoitz egin, «God Save The Queen» abestu eta etorritako bidetik joan ziren orangistak, zubiaren bestaldetik, alde katolikoak garaipen txaloak entzuten ziren bitartean. Kazetariok, errepidearen bazter batean, uztailaren 12an Poliziak jarrera bera hartuz gero zer gertatuko ote litzatekeen galdegin genion erreberendoari:

– Uztailaren 12a beste egun bat izango da.

Taxiak unibertsitatera ekarri gaitu eta, Ormeau aldera pauso batzuk eman orduko, Poliziaren land-roverrekin egin dugu topo.

– Kazetariak gara.

– Ezin duzue hemendik joan. Hiru kale beheragoko kontrol puntutik pasatzeko modua izango duzue.

Ormeau errepideko zati katolikora sartzeko bide guztiak itxita dauzka Poliziak. Zubiaren albo batean bildu gara ehunen bat kazetari, eta eurek kontatuta jakin dugu goizean gertatutakoa: RUCek bost t'erdietan hesitu du ingurua, eta bertako jendeari ez dio errepidera irteten utzi: edo kanpora edo atzera etxera. Goizeko zazpietatik bilduta dauden auzoen kontzentrazioa ez dugu ikusten ahal, baina zubitik berrehun bat metrora omen daude bostehunen bat lagun. Infornazioa baino informazio eza nagusi da kazetarien artean.

Poliziako prentsa arduraduna hurbildu da. Mikrofono eta kamera guztiak hari begira.

– Zer gertatuko da? Pasako al da martxa?

– Oraintxe ikusiko duzue –bibote luzearen eskuineko adarrarekin jolasean ari da eskuaz.

– Baina pasako al dira? Musika joz pasako dira?

– Ezin dizuet esan, orain ikusiko duzue.

– Zenbat orangista datoz?

– Ez dakit.

– Zenbat polizia daude momento honetan auzunean lanean?

– Berrehun edo hirurehunen bat.

Gezurra, gehiago daude.

– Zer gertatu zen atzo gauean auzunean?

– Ez dakit, ez nintzen bertan izan.

– Zertara etorri da babalore hau?

Azkeneko galdera neure kolkorako egin dut.

Hamarrak aldera hasi gara danbor, xirula eta bonbo soinua entzuten. Badatoz orangistak, eta begibistakoa da pasa egingo direla. Poliziak azken bi hilabeteetan bost aldiz geldiarazi du orangistan martxa zubi honetan, baina gaur, uztailak 12, ez da ausartuko. Txaloak entzuten dira zubiaren alde batean, isiltasuna kazetariak baino ez gu gauden aldera.

Igaro dute zubia, eta musika militarra, garaipenaren musika, ozenago jotzen hasi dira orain. Botila batzuk jaurti dituzte auzotarrek, baina ez dira martxistengana heldu. Urrutiegi daude.

Auzunean familia bakarra irten da atarira. Protestaka egon dira 70 urte inguruko ama eta bere seme-alabak izan daitezkeen hirurak, uni-

forme militardunak pasaeran izan diren bitartean. Atzeko lerroan doan orangista batek argazkia atera die eta irribarre egin.

– Kendu argazki-kamera sasikume horri! Kendu kamera! Non dago Polizia?

Polizia han bertan da, baina beste kezka batzuk ditu. Auzotarrek ustekabean harrapatu dituzte poliziak eta hauek nahi baino gehiago hurbildu dira errepideko azken zatira. Botila jaurtiketak eraginkorragoak izan dira bigarren ahalegin honetan. Poliziak atzera bota ditu berehala, eta aurrez aurre daude orain Polizi lerroa eta katolikoena.

– Lasai! Lasai! Utzi Polizia bakean! Protesta baketsua da hau! –Gerard Ricek, Ormeau Beheko liderrak, ez du istilurik nahi. Propaganda klase hori kalterako dela garbi dauka.

Orangistak Shankillerako bidean dira jadanik, eta frustrazioa jabetu da. Poliziarekin tirabiran ibili ondoren, errepidera irten eta eserialdia egitea lortu dute. «Lotsa» irakurri dut emakume batek besoak gora erakusten duen pankartan. Poliziaren lerroa zeharkatu eta zubira hurreratu ere egin dira gero. Eta orangistak itzultzeko

ordua heldu arte bertan gelditzea erabaki dute. Hamaikak dira, eta zazpiak arte ez dira itzuliko, baina aldeginez gero RUCek errepidea berriro hartuko duen beldur dira.

– Hemen geldituko gara! Orangistak behin pasa dira, baina ez dira berriro pasako! –Poliziaren land-roverrera igota hitz egiten die bildutakoei Gerard Ricek, inguruan dituen euli mikrofonodunek tartea uzten diotenetan.

– Land-roverretik jaisteko eskatzen dit Poliziak! Zer iruditzen zaizue? Land-rover hau nik ere ordaindu dut eta, beraz, erabili egingo dut!

Barrez erantzun diote.

– Euskaldunak zarete, ezta? –beste nonbait ere kazetari artean ikusia dugun gaztea gerturatu zaigu, kamera zintzilik duela, gazteleraz hizketan.

Rogelio da, Efe agentzia espainiarreko berriemailea. Zientzia politikoei buruzko masterra egiten ari da hemengo unibertsitatean, eta Eferentzat ezezik Espainiako beste zenbait eskualdeegunkarirentzat ere idazten du. Ormeau Road

utzita, Edenderryko zelaira joatea proposatu digu:

– Argazki ederrak ateratzeko aukera ona izango da han. Goazen, itzuliko gara gero. Egundoko txaloak entzun ditugu atzean, oraindik Ormeau Roadetik irten ez garela: hamburgesa eta saltxitxa otarteko saltzailea etorri da furgonetan, egun osoan Ormeauko zubia zaintzea erabaki duten ehundaka lagunen urdailek zerbait beharko dutelakoan. On egin!

Oinez abiatu gara, urruti samar dagoela esan diguten arren. Uztailaren 12a da, urteko jairik handiena zubiaren alde batekoentzat, eta ez dago taxirik. Ez behintzat auzune protestanteetara sartuko denik. Edenderryko zelaietarako bidean, Lisburn auzune protestantean hasi gara agerraldi orangisten arrastoak ikusten: hamburgesa saltzaileak non-nahi, garagardo eta Coca-Cola latak bazterretan, bandera britaniar txikiak lurrean eta handiak balkoietan, aulki tolesgarri hutsak kale ertzean... martxak ikusle ugari izan dituen seinale. Baina Edenderry uste baino urrunago dago. Bi ordu egin ditugu oinez, eta orain-

dik beste ordubeteko bidea daukagula esan digute.

– Bart gaueko suetan izan al zineten? –galdetu digu Rogeliok, atsedena hartzeko eserlekua aurkitu dugunean.

– Ez ginen ausartu, James pisukideak eta beste zenbaitek ez irteteko esan ziguten, oso arriskutsua dela.

– Ni bertako ezagun batzuekin ibili nintzen, eta batere arazorik ez. Baina inor ezagutzen ez baduzu, arriskutsua izan daiteke. Zoroaren moduan jartzen dira suaren inguruan.

Shankillen ibili zen bart Rogelio, Shankillen bandera irlandarra ikusten den urteko egun bakarrean. Su ematen diote.

– Bart Aita Santuaren panpina ere erre zuten, hiru koloretako banderarekin batera. Eta horren ondotik, eromena. Mozkorkeria bapo, suaren inguko festan. Halako batean, fraka laburrak besterik ez zeramatzan gazte bat suaren erdi-erdira erori zen, eta bertan planto geratu. Hogei segundu igaroko ziren bere lagunek atera zuten arte.

– Etxeko ganbaratik ederki asko ikusten ziren su ikaragarriak Belfasteko bazter guztietan. Las-

tima! Shankillera joan behar genuen, Imanol, Jamesi kasurik egin barik.

Edenderry ahaztu eta zerbait jatearen aldeko agertu naiz. Humberto ere etsitzekotan sumatu dut, baina Rogeliok, ezetz. Auto-stop egingo duela. Han dator autoa: irten da Rogelio errepide erdira, belaunak apur bat tolestuta eta bi besoak zabalik jarrita. Gidariak ez du gelditu beste erremediorik izan.

– Kaixo, kazetari atzerritarrak gara eta Edenderryra joan beharra dugu. Hara al zoaz?

– Bai, igo! –munta handiko zerbait egiten ari denaren aurpegia jarri zaio gidariari. Auto-stop egiteko modu berezia du, Rogelio honek. Ikasteko asko daukagu.

Senpereko lakuaren inguruko parajeen traza hartu diet Edenderryko zelaiei. Herri Urrats, baina unionistena. Familiak seme-alabekin bazkari legea eginez, musika bandetako kideak atsedenean garagardo tragoak hartuz, gazte ugari balantzaka garagardo edo sagardo botila eskuan dutela, ilara luzeak hamburgesa postu mugikorretan... Rogeliok aurkitu ditu ezagunak han hemenka, eta elkarren arrastoa galdu dugu.

Bandera britainiarrak bazter guztietan: lurrean zabal-zabal, kamisetatan, umeen aurpegietan margoturik, kapeletan. Baita Union jackaren koloreko pelukak ere. Ulsterkoa nonnahi ikusi dugu –frantziarra bezalakoa, baina lerroak etzanak–, «Errendiziorik ez», lelodunak gehienetan. Union Jack handia eta orangisten bandera laranja ikusi ditut urrutira. «Belfasteko orangistok EZETZ diogu» jartzen du letra handitan, ekitaldi politikoa egiten ari diren eszenatokiaren azpian.

– Milimetro bat ere ez! –garrasika hitz egiten du hizlariak–. Ez gara milimetro bakar bat ere mugituko!

Erreberendoa da hizlaria, eta erreberendoak dira taulara igota dauden guztiak. Nor baino nor sutsuago aritu dira txandakako hitzaldietan.

– Gerry Adamsen mahai berean esertzeak goragalea ematen ziola esan zuen Majorrek! Orain berak ematen digu goragalea, bere ministroek Adams terroristari eskua ematen diotelarik. Guri ez diutute ziria sartuko, ez horixe! –batek.

– Bi aukera dituzte gure herri hau, beti Erreginari leial izan zaion herri hau, Irlanda katolikoari saldu nahi diotenek: gauzak dauden bezala utzi edo gerra piztu! –hurrengoak.

Bakearen eta adiskidetzearen aldeko hitz bakar bat ez dugu entzun artzain orangisten ahotik; eta dozena erdi bat pasa dira mikrofono aurretik. Jende artean ikusi dut Humberto eta hurbildu egin natzaio.

– Bake prozesurako aportazio ederrak, apaiz hauenak.

– Santa Kruz apaizak ere halatsu hitz egingo zien bere gerrilariei.

Hitzaldiak bukatuta, eta musika banda onenei sariak emanda, otoitz egin eta «God Save The Queen» abestu dute denek, zutik, solemnitatez.

– Errendiziorik ez! –azken oihuak.

Ekitaldia amaitzearekin batera hasi dira zelaiak egundoko kolorea hartzen: Kanada, Eskozia, Zeelanda Berria eta Australiako orangistak etorri dira, baita Ghanako orangisten burua ere, eta hauen banderak, etxekoenak bezala, zutitzen hasi dira. Orangista elkarteak, bakoitzak au-

rrean musika banda duela, errenkadan jarri dira eta errenkadan hartu dute Belfasteko bidea.

– Badaezpadako punishmentak emango ditu bonbojole horrek! –euskaraz ere ingelesezko hitzak esaten ohitu gara oharkabean. Zigorra esan nahi du *punishment* hitzak.

– Beldurgarriak dira, bai, bonbojole hauek! Kaskamotza eta gizena da Humbertori kontuz ibiltzekoa iruditu zaiona. Tatuajez beterik dauzka besoak eta fundamentuz ematen dio bonboari, eskuin ezker, imintzio handiak eginez eta izerdi patsetan. UFF, Ulster Freedom Fighters, talde paramilitar lealista nagusiaren hizkiak musikatresnan, elkartearen bereizgarria den estandartean bezala. Paramilitarrena dirudien uniformez jantzirik estandartea daramana eta aldameneko biak: kamuflajeko alkandora, bota militarrak, txapel beltza eta betaurreko beltzak. Salbuespena da, hala ere, paramilitar itxurako uniformeena. Jantzi militar klasikoagoak daramatzate beste bandetakoek.

Bost atabalari, bonbojole batek eta dozena bat xirularik osatzen dute banda bakoitza. Musika militarra jotzen dute etengabe, eta musika

honen erritmoan datoz ilaratan Orange elkarteetako kideak, gizonezkoak ia beti (emakumezkoentzat bereziak diren elkarteak badira, baina gizonezkoak baino ez dira onartzen ohikoetan). Berrogeita hamarren bat elkarte bildu dira Edenderryn.

Eurekin itzuli gara hirigunera, argazkilari lanak, eta plantak, eginez. Ia hamar kilometro ibili gara musika militarraren doinuan eta, uneoro, jendez mukuru ikusi ditugu kale ertzak. Familia giroan asko, festa giroan gehienak, mozkor giroan batzuk, denak desfile orangistari txaloka, milaka lagun, banderatxo britainiarrak airean.

– Eskerrak gure lagun errepublikazaleek hau sekula ikusi ere egin ez duten.

– Hainbeste jende bere britainiartasuna hain harro erakusten ikusita, nola demontre lor daiteke hemen Irlanda Batua?

– Ez daukate batere lanik, Fallseko gure lagunek!

– Bobby Sandsen heriotzaren urteurrenean hemen bildutako jendearen ehuneko bata ere ez zen bildu. Eta Sandsena ospakizun handia da katolikoentzat.

Union Jack eta danbor-hotsez nekaturik, Ormeauko zubira jo dugu atzera, hamburgesa jaten utzitako lagunen bila. Polizia gutxi dago inguruetan, eta sei ordu lehenago utzi ditugun leku berean topatu ditugu. Lehen bostehunen bat baziren, milatik gora dira orain. Ez dirudi Poliziak protestanteei itzulerako bidea zabaltzeko asmorik duenik. Salomonen erabakia: joanekoan katolikoak izorratu, etorreran protestanteak.

Gerard Ricek eman du berri ona, Poliziaren ibilgailuaren gainetik berriro: orangistak beste bidetik datoz eta, albo-albotik pasako diren arren, ez dute auzunea zeharkatuko. Poliziaren ibilgailuek ongi bereizi dituzte auzotarrak eta zubiaren ondoan hamar metrora baino ez dagoen pasabidea. Danbor eta xirula soinuak entzuten hasi garenean, zutik jarri eta kantari hasi dira katolikoak, abesti ezaguna txaloekin lagunduz: «We shall overcame, we shall overcame, some day...» (Irabaziko dugu, egunen batean).

– Guk irabazi dugu! –oihu egin du Gerard Ricek adioan.

– Gora Gerard! –erantzun du batek.

– Gora!

Leher eginda, ahotsa urratuta bukatu du egunotan liderrarena egitea egokitu zaion gazteak. Ez du berehalakoan ahaztuko uztailaren 12 hau. Bere zoritxarrerako, zubiaren bestaldekoek ere ez dute berehalakoan bere aurpegia ahaztuko. Aurrerantzean, gutxirentzat adina garrantzitsua izango da Gerardentzat suetenak irautea. Ez dauka taxi blindaturik.

John Hume tabernan

Ordu erdi itxaron behar izan dut, idazkariak jesartzeko eta «berehala etorriko da Hume jauna» eztiki esan didanetik SDLP alderdi sozial demokratako buruzagi historikoak bostekoa luzatu eta «kaixo Humberto, barka iezadazu, baina goiz neketsua da gaurkoa» esan arte. Nik, trukean, «ez zaitez kezkatu, konturatzen naiz» erantzun diot, barruak jaten baina diplomaziaz.

Ipar Irlandako bigarren alderdi nagusiaren egoitza izateko ez du itxura ederra etxeak. Ez diot egoera tristean dagoenik edo desitxurosoa denik, baina Euskal Herrian alderdi honen parekoa den EAJren Bilboko Sabin Etxeko diseinu futuristarekin eta igogailu galaktikoekin alderatuz gero, erdi aroko etxola baten antza izan lezake SDLPko egoitzak.

Itxaronaldia lasai hartzeko eta ez gogaitzeko, gelako altzariak eta paretetan eskegita dauden paperezko oharrak eta afitxak ikusmiratzeari ekin diot. Tarteka, idazkariari –Jackie deitzen dela jakin dut, norbaitek hala deitu baitio– begi-

ratu bat baino gehiago bota diot eta konturatu naiz batzuetan bion begiradak kateatu egin direla. Baina korapiloa estutu aurretik aldendu ditut begiak eta, han, pareta horiztatuan eskegita dagoen gizonezko irrifartsu batengan pausatu ditut. Afitxa hauteskunde kanpainetan agertzen diren horietakoa da, baina bertan agertzen dena ez da John Hume, Gerry Fitt baizik, alderdi sozial demokrataren sortzaile eta aitzindaria.

John Hume sortzaileen taldekoa izan arren, ez zuen 1979 arte SDLPko lidergoa eskuratu. 1968an protestante eta katolikoen arteko enfrentamenduak hasi zirenetik komunitate nazionalistaren diskriminazioaren aurkako martxa eta mobilizazio ekintza baketsuetan parte hartu izanagatik egin zen ezaguna Hume. Behin Stormonteko erregio-legebiltzarrean «We shall overcome» (Geurea da garaipena) kantuka hasi ziren bera eta beste zazpi lagun. Biltzarra 30 minutuz eten zen eta Poliziak arrastaka atera zituen Hume eta salaketa-kideak.

Jackie eta nire begiak berriro ere lotuta daudelarik harrapatu gaitu John Humek. Gorbataren korapiloa nasaituta eta alde batera utzita, arnas

estuka eta aurpegi zurbila ekarri du, atzeratuta datorrenaren kezkaz. Elkarrizketa kanpoan, «ezagutzen dudan leku egoki batean» egitea iradoki du Westminster parlamentu britainiarreko eta Europako legebiltzarreko kideak.

Kaleratu eta Bayview Terrace etorbidea alde batetik bestera inguratzen duen RUCeko gotorlekuaren adreiluzko horma gorriskak, alanbradak eta kamera zelatariak ageri dira gure aurrean. Eta zuriz idatzitako letra batzuk: «Free Derry».

– Bake prozesuan gaudelako ez dute pintada hori garbitu, bestela...

Hauxe besterik ez dit esan John Humek bulegotik irten eta «leku egokira» iritsi garen arte. Kazetariaren eta politikariaren arteko ohiko protokoloari muzin egin dio.

– Hortxe da. Zerbait har genezake hitz egiten dugun bitartean –eta Asylum Road-eko errepideaz bestalde dagoen pub bat seinalatu du hatzez–. Unetxo bat mesedez, tabakoa erosi behar dut.

Ultramarino antzeko dendatxo baten sartu-irtena egin du Ipar Irlandako lehen alderdi nazionalistako buruzagiak, korbata okertuta oraindik

eta jaka sorbalda gainean. Eskuartean Benson & Hedges zigarro paketea ekarri du.

– Kaixo John –Kealy's Pub-eko tabernari gazteak–. Non jarriko zarete? Zer hartuko duzue? Betikoa?

– Ez. Kafea, mesedez.

Orain arteko jarrera lehorretik irribarrera, eta irribarretik sarkasmoaren algarara jauzi egin du:

– Sentitzen dut itxaronarazteagatik, baina bake prozesua piztu zenetik pistolak lanik gabe geratu dira eta berba egin behar dugunok lana soberan daukagu. Ez dakit nola amaituko dudan hau luzatzen bada! Asteburuan egun pare bat libre hartu beharko dut senitartekoekin Donegalera joateko.

Ipar Irlandako nazionalisten konderri maitatuena da Donegal. Hego Irlandako Errepublikan dago, baina irla osoko parte iparraldekoena da. John Hume ere haraxe joaten da lanak uzten dionean edo atsedenaren bila dabilenean: Greencastle-ko bungalowera, itsasertzera, Foyle errekak eta Atlantiko itsasoak. bat egiten duten badiara. Badiaz bestaldean McGilligan presondegiko argiak ñir-ñirka hasten dira ilunabarrarekin

batera. Ez dira hogei urte izango kartzela hartan soldadu britainiarrek Humeren soina pinturaz blai laga zutela. Martxa baketsuaren antolatzaileetakoa zen Hume gaztea.

Aurrean dudan gizonari, hala ere, ez diot inoiz bihurria izandako arrastorik nabari. Tripa biribila, masail beteak betaurrekoen azpian, gerri zabalak. Behi baten moduan, patxadaz mugitzen da bake prozesuaren arkitekto nagusitzat daukaten Derryko laguna. Gerry Adams, Albert Reynolds Irlandako Errepublikako lehen ministro ohia eta John Major-ekin batera, bake prozesuko habea baita John Hume. Ez dirudi horrek puztu egin duenik. Apal eta umil portatzen da uneoro. Areago, herabe traza hartu diot nire nykonaren begiztailutik, artegatsu eta begiak nora zuzendu jakin ezean, azken mende laurdenean telebista eta argazki kameren argi eta flashen tximistetara ohitu izan ez balitz bezala.

SDLP alderdia jaun eta jabe da Derryn. Betidanik nazionalisten gunea izan den arren, errepublikarrek ez dute gauza handirik lortzen McGuinnessen hirian: azken hauteskundeetan 17 zinegotzi lortu ditu Humeren. alderdiak, Sinn Fei-

nek 5 besterik ez. Arrazoi nagusi bat badu horrek: John Hume. Bogside eta Creega auzuneetan izugarrizko karisma dauka itxuraz izotza baino jelatu eta lehorragoa den gizon honek. Foyle errekaren ekialdean daude auzune katolikoak eta bertan bizi dira Derryko 75.000 katolikoetatik gehienak. Craigavon zubiaz bestaldean, 30.000 lagun bizi dira, unionistak.

– Ipar Irlandak gure jende eta populazioaren arteko ezberdintasunak errespetatzen dituen erakundeak eduki beharko lituzke. Hegoaldeak eta Iparraldeak erakunde komunak izan behar dituzte. Gure alderdiaren arabera, Europako eredua balekoa da hemengo arazoari aurre egiteko. Gatazka nazionalak dauden herri edo guneek aintzat hartu beharko lukete eredu hau, baita Euskal Herriak ere. Inor ez litzateke sekula ezberdintasunagatik mehatxatuta sentitu behar. Jendeak du benetako garrantzia, ez lurraldeak. Craigavon bezalako zubiak akordioaren bitartez soilik desegin ahal izango dira Irlandan. Euskal Herriak ere hortik ikasi behar luke.

– Euskadi ezagutzen duzu?

– Ez asko. Donostian pare bat bider izan naiz egun batzutarako. Ederra benetan. Arrain ona mahai gainean... Arrain zale amorratua naiz. Herri honetan arrain gutxi jaten dugu tamalez.

– Autodeterminazioa al da irtenbidea?

– Bai Euskal Herrian baita Irlandan ere. Jendea da banatuta dagoena, ez lurraldea. Batetik mentalitate unionista dutenak, nazionalistak bestetik. Unionistak gutxiengoa dira Irlandan, baina nagusi Ipar Irlandan. Eta horregatik segitzen dute hemen, beren burua, nortasuna eta egungo botereari eutsi nahi diotelako. Egoera hori mantentzen den bitartean diskriminazioa jasango du komunitate nazionalistak.

– Zelan gaindi daiteke egoera hori?

– Elkarrizketaren bitartez. Unionistek elkarrizketa mahaian eseri beharko lukete euren ondarea eta nortasuna babesteko akordioa adostu ahal izateko. Behin akordioa lortuz gero, autodeterminazio erreferenduma deitu beharko litzateke. Bi erreferendum: biak egun berean, bata iparraldean, bestea hegoaldean.

– John, luzerako ala? –tabernaren beste muturrean platerez gainezka dagoen mahaitik etorri da ahotsa; Humeren lagunak dira.

– Ez, finito, amaitu dugu.

Humeren lagunek utzitako lekutxoan jesarri da nola edo hala.

– Hasteko zopa eta ondoren... arraina, amuarraina.

– Eta edateko, John?

– Betikoa, guinnessa.

Apustu latza

Guinessari trago luzea ematen harrapatu dugu Mark, Rock tabemako leihoan eserita, gure zain.

– Beste guinness bat, Mark?

Oraindik erdi betea du edalontzia Markek, baina baietz esan dio Humbertoren eskaintzari. Bass pinta eskatu diot nik, bezperan nahikoa guinness edana nago-eta. *Ale* marka bat da Bass, Guinnness *stout* marka den bezala. Garagardo beltza da *stout,* eta bertoko garagardo argia *ale.* Kontinenteko zerbeza –*lagger*– baino ilunagoa da hala ere *ale.* Baina tabeman ez da normalean *stout, ale* edo *lagger* pinta eskatzen, marka galdegiten da zuzenean: Guinness, Bass eta Harp dira estimatuenak, Belfast Mendebaldean bederen.

Guinness gehiegi edan nuen bart, ez da zalantzarik: haizetsu darabilt sabela goiz osoan, fu eta fa. Elikagai aberatsa omen da, izan ere, guinnessa.

– Etorriko ote zineten duda egiten ere hasia nintzen. Bart gauean jarritako hitzordua ahaztea

ez litzateke harritzekoa izango. Mozkortu samarrak ikusi zintuztedan.

Goiz bazkaldu –arrautza parea hirugiharrarekin jatea bapo bazkaltzea da hemen– eta Rock tabernara etorri gara bart Marki agindu bezala. Irribarre atsegina du Markek. Ile beltz motza, begi urdinak eta gorputz iharra. Hogeita hamar urte. Preso errepublikarren aldeko mobilizazioren batean lehendik ikusia dudala esango nuke.

Bart aurkeztu ziguten Orchid tabernan. Elkarrizketa luzea izan genuela gogoratzen naiz, agiriren bat espainolera itzultzea nahi duela esan zigula ere bai, baina ez daukat askoz gehiago gogoan. Humberto aurreratu zait, eta agiriarena berriro esplikatzeko eskatu dio. Irribarrea zabaldu zaio.

– Datorren astean, Senideak Justiziaren Alde izeneko kanpainako ordezkari batzuk Genevara goaz, hiru auziren berri ematera: Casement-eko auzipetuen afera, Gibraltarko hiru hildakoena eta gurea.

– A bai! Zure anaiaren kasua!

– Hori da. Txosten bana idatzi dugu auzi bakoitzeko ordezkariek, eta hizkuntza ezberdineta-

ra itzuli nahi ditugu han banatzeko. Zuek gure kasuko txostena itzultzea nahi genuke, aste honetan astirik baldin baduzue.

Armada britainiarreko unitate ezkutu baten autoa ostu zuten, hala zela jakin gabe, 1989ko abenduan *joyrider* gazte batzuek. Militarra zen adierazle agerikorik gabeko ibilgailua, baina barruan gordeta zeuden pistola eta fusil mordoskak, kodifikatutako agiriek eta mapek ederki asko erakusten zuten autoaren jabeak nor ziren. Eskuratu zituzten arma eta agiriekin zer egin jakin ez, eta nagusixeago ziren lau lagunengana jo zuten gazteek, dena hauen esku uzteko. Lau horien artean zegoen Marken anaia, Peter.

Agiriak eta mapak erre egin zituzten Peter eta adiskideek, baina armak gorde. Pistola bat, ez dakigu zergatik eta zertarako, bosgarren adiskide bati eman zioten. Eta honek ez zien onik ekarri. Guztien zoritxarrerako, handik egun gutxira bosgarren hori atxilotu egin baitzuten, arma gainean zeramala. RUCeko eta Armadako inteligentzia zerbitzuek ordu gutxi behar izan zituzten gazteari armaren jatorria aitorrarazteko.

Lau lagunen izenak emanda, proposamen berezia egin zioten intelegentzia militarrekoek:

– Zuk armak, agiriak eta mapak guretzako berreskuratu eta, trukean, libre utziko zaitugu. Ahaztu egingo dugu dena. Mapak eta agiriak erre zirenik jakin ez, edo gogoratu nahi ez, eta atxilotuak baietz esan zien, ahaleginduko zela dena berreskuratzen, eta ekarriko zituela.

– Ez ahaztu agiriak eta mapak –eta ez zen paperen kontua errepikatzen zioten lehen aldia.

Belfastera itzuli, lagunei gertatutakoa azaldu eta, eztabaida gogorraren ondoren, armak itzul zitzaten komentzitu zituen. Agiriak eta mapak, jakina, ezin. Gabe konformatu beharko zuten militarrek.

Gaur edo bihar atxilotuko zituztela etsita, Polizia euren bila noiz joango zain gelditu ziren Peter eta bere hiru lagunak, inteligentziakoek atxilotuari baino ez baitzioten barkamena agindu. Arma, agiri eta mapen trukean agindu zioten gainera barkamena, eta arrnak besterik ez zituen lortu.

Baina ez zituzten preso hartu. Eta Poliziaren seinalerik ere ez zuten nabari euren inguruetan.

Asteak aurrera joan ahala, urduriago jartzen hasi ziren, ez baitzuten ulertzen zer gertatzen ari zen. Erretako agiri eta mapak, garrantzi handikoak izateaz gain, ezkutuko operazioren baten parte izan zitezkeela pentsatzen hasi ziren. Horixe izan zitekeen ez atxilotzearen arrazoia: mapa eta agirien desagerpena leporatu ezina, mapa horien existentzia ezkutatu beharra... Aste batzuk pasa ziren eta, Gabonak aldera, militarrak eurekin ahaztea erabaki zutela sinetsi zuten.

Militarren agiri eta armekin izandako istilua errazegi alboratuta, ohiko zereginetara itzuli ziren lau lagunak. Falls kaleko Graham apustu etxe ezagunean lapurreta egiten ahalegindu ziren 1990eko urtarrilaren 13an. Peter, Eddie eta laugarren laguna barrura sartu ziren, eta John autoan geratu zen zain, iheserako prest. Eddiek gezurrezko pistola zeraman, eta gainerako hirurek armarik ez.

Soldadu bereziek ez zieten ezertarako betarik eman. Auto barruan zegoen Johni sei bala sartu zizkioten metro erdiko distantziatik, Peter hamar aldiz tirokatu zuten apustu etxetik irten zenean, eta hamabi bala jaso zituen haren

atzean zegoen Eddiek. Taldeko laugarren kidea bezeroen artean nahastu eta soldaduak ohartu gabe ihes egitea lortu zuen. Berari esker josi ahal izan dituzte istorio honen zati ezberdinak Markek eta hiru hildakoen senideek.

Aldamenean daukagun leihotik burua ateraz gero bertan ikusiko genuke Peter, John eta Eddie hil zituzten lekua. Whiterock eta Falls arteko bidegurutzean dago egoitza, Graham sarearen apustu etxeetako bat.

Larunbat arratsaldetan joan-etorri handia izaten da Grahamen: ez da apustua egin daitekeen egun bakarra, baina bai nagusia. Larunbatean izaten baitira Ingalaterrako zaldi lasterketa garrantzitsuenak. Libra mordoska bat tabernan, eta beste mordoska bat apustu etxean. James pisukideak ere larunbatero egiten dio bisita Graham etxeari. Apustu bikoitza hemen, sinplea han... eta etxera, BBC telebista kate britainiarrak zuzenean ematen baititu karrerak. Larunbateroko kontua, auzune katolikoetan bezala protestanteetan.

Astegunetan, berriz, ez dirurik ez etxerik ez bide duen jende zarpaila ikusi ohi dut apustu etxearen atariko eskaileretan. Litro t'erdiko sagardo botila alboan –mozkortien edaria dirudi sagardoak hemen–, parean harrapatzen dituzten guztiei txanponen bat edo beste eskatzen pasatzen dute eguna. Rock tabernaren aurrean hartzen dute babesa, apustu etxearen atariarekin aspertzen direnean.

– SASekoak al ziren zure anaia-eta hil zituzten soldaduak?

– Armadako Inteligentzia Zerbitzuko 14. Unitateak galdu zituen armak eta mapak, gero jakin denez. Ziur gaude unitate berekoek hil zituztela, SASekin lotura duten unitate horretakoek.

Britainia Handiko Gobernuaren oposizioko parlamentari batek, Kevin McNamara laboristak jakinarazi zuen 14. Unitate berezi horrek parte hartu zuela Graham apustu etxeko operazioan. Gaizkile arrunt batzuek segurtasun agiri garrantzitsuak lapurtu izanak, Armadako talde berezi honen segurtasun operazio luze bat eten zuela aditzera eman zuen diputatu laboristak. Adierazpen hauek zabaldu zieten komunikabideei iker-

ketarako atea, eta bizirik ihes egindako gaztearen bertsioak argia ikusi zuen azkenean.

– Segurtasun britainiarreko bozeramaileek gezurtatu egin zituzten informazio guztiak. Gainera, lapurreta egiten ahalegindu zirenak hiru besterik ez zirela zioten, eta diote oraindik ere. Ez zutela inor bizirik utzi, alegia –aise hitz egiten dugu heriotzaz eta biziaz hemen, garagardo eta garagardo artean.

BBC telebista kate britainiarreko sona handiko programa batek, Spotlight informazio saioak egin zuen kazetari-ikerketa osoena. Lau hilabeteko lanarekin ondorioztatu zuten, Armadaren arma batzuk desagertu egin zirela, eta gero itzuliak izan zirela, baina lapurretara joandakoak lau zirela, eta ez hiru. Gainera, soldaduak inor atxilotzeko saiorik egin ez zutela jakinarazi zuten mundu guztiaren aurrean, zuzenean tiroka hasi zirela.

– Epaiketarik izan al da hilketak direla-eta?

– Epaiketa? Bai zera! BBCk erreportaia hura eman zuen hilabete berean erabaki zuten nire anaia eta bere bi lagunak hil zituzten soldaduak ez epaitzea. Hemen etsita gaude, eta horregatik

goaz Genevara, ea Europa alde horretan propaganda pixkat bada ere egiten dugun. Beste Bass bat? –eskaintza egin ostean begiratu dio Markek nire edalontziari.

– Guinnessa, mesedez –Lupulu jainkoa naiz.

Eskuz futbolean

Ez da giro Clones-en. Hogeita hamar mila lagun etorri gara muga ondoko Clonesera, futbol gaelikoko finala ikustera, eta gainezka dago herria. Herritik kilometro batera hasi gara oinez, eta poliki-poliki prozesioan gatoz estadio aldera. Ikaragarria da zalaparta, batzuen eta besteen aldeko oihu etengabeak eta bozina-zaratak direla medio. Bandera saltzaileak eta hamburgesa dendatxoak bazter guztietan: norgehiagoka aurretik jan eta edan beharrekoak irensten ari da jendea. Alkoholik ez dago salgai, baina ongi hornituta etorri dira koadrilak, gazteenak batik bat.

– Etsi beharrean gaudelakoan nago, Humberto –hamburgesa denda txiki bati begira gelditu naiz.

– Hamburgesa triste bat jan behar al dugu?

– Fish and chips, nahiago baduzu, baina sabela engainatu beharra daukagu.

– Fish and chips ez, mesedez.

Oilasko hamburgesa, patata frijituak eta Coca-Cola bana hartu ditugu. Irlandarrak dirudi-

gu. Garagardo lata poltsaka bakarrik falta zaigu euren pare jartzeko. Eta bandera. Denek daramate bandera. Zurigorria Tyrone konderriaren selekzioko jarraitzaileek, zuriurdina Cavanekoek.

Ulsterko bederatzi konderrietako selekzioak aritu izan ziren norgehiagoka: Ipar Irlandako seiak (Antrim, Down, Armagh, Derry, Tyrone eta Fermanagh) eta Errepublikako iparraldeko hiru (Donegal, Monaghan eta Cavan). Cavan eta Tyrone ez ziren finalera heltzeko faboritoak. Donegal, Down eta Derry izan ohi dira Ulsterren nagusi, baina aurten ustekabea eman dute zurigorriek eta zuriurdinek. Bietako bat izango da Ulsterko txapeldun.

Irlandako lau probintzia historikoek –Leinster, Munster, Connacht eta Ulster– txapelketa bana egiten dute euren konderrietako selekzioen artean, eta lau irabazleek Irlanda osoko txapelketa jokatuko dute irailean, Dublineko Croke Park-en. Harako txartela jokoan dute, beraz, Cavanek eta Tyronek.

Goiz irten dugu Belfastetik, Cloneserako garraiobide zuzenik ez baita: Armaghera eraman

gaitu lehenengo autobusak, Monaghanerako autobusa hartu dugu gero, eta auto-stop egin bertan Clonesera heltzeko. Zortea izan dugu, azken kilometroetan ekarri gaituena Belfastetik zetorrenez, bueltan ere berak eramango baikaitu. Zita egina daukagu partidua bukatu ondorenerako.

Egundoko ikusmira piztu du Ulsterko finalak. Hogeita hamar mila lagun sartzen dira Cloneseko estadioan, eta sarrerak aspaldi agortu ziren. Belfasteko Casement zelaia baino handiagoa da Clonesekoa.

Casement Park da Belfasteko joko gaelikoetarako zelai nagusia, Fallsen mendebaldera dagoen Andersonstown auzunean, taxi beltzen ibilbidearen barruan. Estadioa txikia da Clonesekoaren aldean. Hamabost mila lagun inguru sartuko dira bertan: harmaila bakarra du, zelaiaren albo batean, eta gainerantzean zelaia inguratzen duen mendi-malda da harmaila. Ulsterko hurling finala ikustera joan ginen orain hamabost egun. Berdindu egin zuten: Antrim-ek 1-13, Down-ek 3-

7. Azken minutuan lortu zuten berdinketa etxekoek.

Taxi beltzean heldu ginen bertara finalaren egunean, arratsaldeko hirurak baino ordu laurden lehenago, Antrimeko kolore zuri-horiez jantzitako lau gazterekin batera. Sarreragatik bost libra ordaindu, atarian preso errepublikarren alde eskean ari zirenei libra bat, eta aurrera. Barruan ere baziren Saoirse presoen senideen elkarteko kide gehiago, lazo berdearen truke borondatea eskatzen batzuk, eskuan zeramaten plastikozko kubora besterik gabe txanponen bat botatzeko besteak.

Ezagun zuen, partidua hasi aurretik ere, komunitate katolikoaren festa zela. Bandera irlandar handiaren ondoan, Ulster probintzia historikokoa, Antrimeko eta Down konderrietakoak eta GAAkoa (Joko Gaelikoen Elkartea). Nahasita zeuden Antrimeko bandera zuri-horiak eta Downeko gorri-beltzak. Gehixeago ziren etxekoak, baina txikia zen aldea, ez baitziren urrutitik etorri Downekoak; Belfastekin muga egiten du hegoaldean Down konderriak.

Partiduaren aurretik zelairatu zen musika bandak Irlandako hita koloreduna zeraman buruan. Eta Irlandako ereserkia jo zuen bitartean zutik eta isiltasun osoan iraun zuten jokalariek nahiz ikusleek. Epaileak pilota gora botatakoan hasi zen zalaparta. Eta makil festa.

Hockeyan erabiltzen diren makilen antzekoak, egurrezkoak, baliatzen dituzte hurling jolkalariek. Futbolekoaren tamaina bertsua du zelaiak, eta atea futbolekoaren eta rugbikoaren nahasketa da: gola sartzeko atea dago, sare eta guzti, eta entseiua egiteko zutabe altuak ere badira bi alboetan. Atezainak eta zelaiko hamalau jokalarik parte hartzen dute talde bakoitzean. Euren helburua: ahal bada gola sartzea edo, bestela, pilota atearen gainetik baina zutabeen artetik pasaraziz entseiua egitea behintzat. Golak hiru puntu balio du, eta puntu bakarra entseiuak.

Hurlingean, kasik dena libre da. Pilota makilaz jotzen da gehienetan, baina eskuz, ostikoz edo nolanahi ere bai. Pilota eskuz har daiteke, baina ezin da eskuan hartuta korrikarik egin: pilota makilaren gainean eramanez egin dezakete korrika. Aurkaria gerarazteko, sorbaldaz-edo oz-

topa daiteke bestearen korrikaldia, baina besoez edo zangoez ez. Jokoz kanporik ez denez, aurrelariek aurkako atezainaren ondo-ondoen jokatzen dute, eta atzelariak ez dira hauengandik metro erdi baino gehiago urruntzen. Ahal duten bitartean, noski. Eta penaltietan, atezainak bi atzelariren laguntza dauka jaurtiketa gelditzeko ahaleginean.

Munduko talde-kirolen artean bigarren azkarrena da hurlinga, izotz hockeyaren ondoren. Zelaian jokatzen direnen artean bizkorrena, alegia. Pilota, belar hockeyan ibil tzen denaz bestera, airean ibiltzen dute gehienetan, lurretik jaso eta eskuaz pilota airera bota ondoren ematen baitiote kolpea makilaz. Paseak, berriz, eskuz eman eta eskuz jaso ohi dituzte, makilaren laguntzaz batzuetan. Kaskoa daramate jokalari gehienek.

– Makilkaden beldur direlako izango da, pilotakaden beldur baino.

Halaxe jardun zuten Antrimek eta Downek, norgehiagokaren 70 minutuetan, 1-13 eta 3-7ko emaitzarekin berdindu zuten arte.

Gol bakarra baina hamahiru entseiu egin zituzten etxekoek (hamasei puntu beraz), eta hiru

gol baina zazpi entseiu besterik ez Downeko gorri-beltzek (puntu kopuru bera). Handik astebetera jokoa errepikatu eta erabaki zuten Ulsterko txapelduna Down zela: 1-19 / 2-10 irabazi zion etxeko selekzioari.

Bestelakoa da giroa gaur Clonesen. Jendetza askoz ere handiagoa da, eta jarraitzaile-taldeak bereizita daude multzo handitan. Zelaiak inguru guztian zementuzko harmailak dauzka, eta eserleku bakoitzak bere jabea, albo bateko goiko aldeko belargunean izan ezik.

Ikaragarria da giroa. Kirol gaelikoen artean zaharrena eta bereiziena hurlinga den arren, futbol gaelikoak pizten du ikusmin handiena.

Hurling finaleko giroari zerion usain politikorik ez da sumatzen hala ere. Clones Irlandako Errepublika da: mugan dago, Ulster da, baina Monaghan konderrian dago, Hego Irlandan alegia. Eta Hego Irlanda ez da Ipar Irlanda. Bazter batean bada presoen aldeko pankarta bat, baina besterik ez. Bi taldeen izenak gaelikoz irakurri ahal ditut markagailuan: Cabhan eta Tir Eoghain.

Zelai berean jokatzen dute hurlinga eta futbola, eta joko-arauak oso antzekoak dira. Hamabost lagun talde bakoitzean, hiru puntuko gola sartzea edo punto bakarreko entseiua egitea da helburua. Baina makilarik gabe jokatzen dute, jakina.

Zangoa eta burua bezala eskua ere erabil dezakete. Aurkaria gorputzez geldiaraztea libre da, baina heldu ez. Eta ez dago jokoz kanpokorik. Baloia urrutira jaurtitzeko eskuz hartu (astirik baldin badute) eta ostikoz jotzen dute. Urruti samar dagoen kide bati pasatzeko baloia ukabilez jotzea da onena, eta laguna oso hurbil badago bi eskuez elkarri ematea. Baloia eskuan dutelarik, debekatuta dago lau pauso baino gehiago ematea. Baina lau urratsen ondoren bote bakarra ematea nahikoa da berriro beste hainbeste urrats egin, berriro botea eman, eta korrika jarraitzeko. Oso jokaldi berezkoa dute, bestalde, botea eman beharrean baloia norberaren oinera bota eta, baloiak zelaia ukitu gabe, oinarekin gora botaz baloia berriro eskuratuta korrika segitzea. Eskularruz jantzita jokatzen dute futbolari askok.

Gola oinaz, eskuz, buruz edo nahi denarekin sar dezakete... baina bada muga bat. Baloia eskuan eramanez gero, gola ezingo du norberak eskuz egin: edo ostikoz sartu beharko du edo lagun bati pasa eta, honek bai, eskuz erreematatu ahal izango du, beti ere baloia heldu gabe.

Tyronekoek aurrea hartu dute eta, puntu bakoitzeko bandera guztiak batera haizatzeko ohitura dutenez, harmailak zurigorriak dira aspaldian. Gero eta apalduago sumatzen ditugu alboan dauzkagun Cavaneko jarraitzaileak, baina ez dute erabat etsi... minutu pare bat falta delarik, Tyroneko jarraitzaileak zelaira jauzi egiteko prest ikusi dituzten arte.

Harmailetatik zelaira jaitsiak dira ehundaka gazte, belarretara. Zelaia inguratua dute eta cornerretako izkinetara zelai barruraino etorri dira. Txilibitoa jo du azkenean epaileak, eta han joan dira bandera zurigorridunak zelai erdira jokalariak besarkatzera. Berderik ez da sumatzen zelaian: zurigorria da orain.

– Goazen gu ere behera! Tyronekoak izango gara gaur!

Clonesen bandera zurigorri artean geratzea txarra ez, baina Oliverrekin hitzordua egina genuen Belfastera bere autoan itzultzeko. Zain izan dugu aparkalekura heldu garenerako, eta berehala abiatu gara Iparralderantz.

– Ze, gozatu al duzue partiduarekin?

– Asko. Bizia eta gogorra izan da –ispiluari begira mintzatu natzaio, atzeko eserlekutik.

– Partidu ona iruditu zait niri. Baina nork daki! Futbol gaelikoan ikusi dugun lehena da. Kalitatezkoa izan al da?

– Ez da txarra izan. Hobeak ikusi ditugu, baina eskasagoak gehiago. Jokaldi ikusgarririk ez da izan, baina aspergarria ere ez.

Joko gaelikoen zale amorratua da Oliver. Belfasten bizi da –irakasle Queen's Unibertsitatean– eta, gaur bezala bakarrik egonda ere, hurling edo futbol partidu interesgarriena jokatzen den zelaira joaten da igandero.

– Bi kiroletan jokatu nuen gazteago nintzenean –40 urteak hurbil izango ditu–. GAAko kidea naiz, eta futbol europarra –*soccer* esaten diote

amerikarrek bezala– eta rugbia ez zaizkit batere axola.

– Irlanda osoko selekzio nazionala duen kirol bakarrenetakoa izanda, Ipar Irlandako nazionalistak rugbizaleak izango zinetela uste nuen.

– Ez da selekzio nazional bakarra, baina egia da Irlandaren bi zatiak batzen dituen selekzio garrantzitsuena dela. Baina Ipar Irlandako katolikoak ez gara sekula rugbizale izan. Ni neu, kirolzalea naiz, baina ez ditut rugbiko-arauak ezagutzen.

Hurling, camogie, futbola eta handball. Lau dira kirol gaelikoak. Hiru, funtsean, camogie emakumezkoen arteko hurlinga baita azken finean, arau aldaketa txiki batzuekin.

Handball, izenak dioen bezala, esku-pilota da.

– Zuen herriko *pilota*ren oso antzekoa –ondo ahoskatu du *pelota* hitza Oliverrek, gazteleraz.

– Hurling eta futbolaren berri izan dugu prentsan, telebistan nahiz bertatik bertara, baina handball-en gainean ez.

– Ez da hirietan jokatzen. Baserri giroko kirola da gehiago.

Jokoen jatorria zaharragoa den arren, kirol gaelikoak biltzen dituen erakundea, GAA, joan den mendearen erdialdean sortu zen, Liga Gaelikoak biltzen zituen hizkuntz eta kultur mugimenduen sorreraren garai berean. Irlandarren nortasun nazionalari eusteko borroka politiko nahiz kulturalaren testuinguruaren barruan ulertu behar da GAAren sorrera.

– Nik eta nire ingurukoek hurling eta futbol gaelikoa jokatzearen arrazoia nortasun nazionalaren kontzientzia da. Jokatzea eta ikustea atsegin dugu, noski. Baina euren aldeko aukera egitea gure nortasuna adierazteko modu bat da. Gainera, GAA 32 konderrietako erakundea da, Irlanda osorik hartzen duena, partizio politikoa kontuan hartu gabe.

Belfasteko prentsari begiratua botaz gero ere berehala antzematen da nork egiten dion jaramon kirol gaelikoei. *Irish News* nazionalista moderatuak egunero orrialde bat badakar gutxienez joko gaelikoei buruz, baina *Belfast Telegraphe* neutral-itxurako unionistak zutabetxo bat eskaintzen dio astelehenetan bezperako partidu nagusiari, eta besterik ez astean zehar. *News Le-*

tter lealistak lerro bakar bat ere ez sekula. Kirol gaelikoak protestanteek oso begiko ez dituztela baiesteko aukera izan dut aste honetan *Belfast Telegraph*eko gutunen sailean: Ulster TV kateak futbol gaelikoari igandero ordubete eskaintzea gogor gaitzesten zuen irakurle batek, Ipar Irlandako komunitate bakarrak jokatzen zuen kirolari telebista publikoak halako arreta jartzeari onartezina irizten ziola argudiatuz. Gainera, soldadu edo polizia britainiarrek GAAren jokoetan parte hartzea espreski debekatuta dutela salatzen zuen.

– Egia da, bai, eta sarritan erabiltzen dute gure aurka. Baina zer nahi dute egitea? Poliziak eta soldaduak gure aldageletan sartzen uztea? Urte luzetan gure komunitateari eraso egin besterik egin ez dutenak, eta gaur ere horretan ari direnak, ezingo ditugu ba beso zabalik onartu! Eta gainera, nork bermatuko luke euren segurtasuna?

Irlandarren independentzia-borrokaren historiara jo behar da debeku horren jatorriarekin topo egiteko. Irlandako Errepublikaren independentzia eta irlaren partizio politikoa ekarriko

zuen garai gatazkatsuan (1916-1921), Armada britainiarrak infiltratuak sartu zituen GAA erakundean, komunitate nazionalistaren eta mugimendu errepublikarraren bihotzean sartzeko modu zuzenetako bat bezala. Ordukoa da araua. Eta azken 25 urteotako gatazkak ez du debeku hori altxatzen batere lagundu.

– Denontzat onargarria den konponketa politikoa lortzen ez den bitartean ez dugu debeku hori kenduko.

Inoiz baino jende gehiagok jokatzen du kirol gaelikoetan, sekula baino jarraitzaile gehiago ditu, komunikabideei inoiz baino arreta handiagoa jartzen diete... Ez du zalantzarik Oliverrek, osasun onean daude berak hainbeste maite dituen kirolak eta luzaroan bizi ezinik ez dute.

– Eta hauek, aldiz, ez daukate ezer –bide ertzeko etxe batean zintzilik ikusi duen bandera britainiarrari begiratuz jarraitu du hizketan–. Pena ematen dit komunitate protestanteak. Historiarik eta tradiziorik gabeko jendea baita. Guk baditugu kirolak, badugu hizkuntza, baditugu dantzak, musika... Zer daukate eurek? Ezer ez!

Eta historiarik eta tradiziorik ez duena ez da ezer!

Barruak lasaitu ederra hartu dio Oliverri azken kilometroetan: esan beharrekoak esan dizkigu, eta guk entzun.

– Croke Park-era joateko asmorik bai? Sarrerak lortzea ez da erraza, baina interesa badaukazue lagunduko nizueke. Futbol gaelikoko eta hurlingeko finalerdiak eta finalak jokatzen dira Croke zelaian irailean. Ikaragarria izaten omen da festa.

– Eskerrik asko, baina irailerako Euskal Herrian izango gara.

– Croke Parkeko festa ezagutuko bazenute, asmatuko zenukete aitzakiaren bat ordura arte Irlandan geratzeko. Etxe parean utzi gaitu Oliver 'taxistak'. Telefonoak hartu dizkiogu elkarri, noizbait guinness festa ederra egingo dugula hitz emanda.

– Guinnessa ere irlandarren historiaren eta tradizioaren parte baita, ezta Oliver? –adarra joz agurtzeko adina konfiantza egin dugu Clonesetik Belfasteko bidean.

– Eta historiarik eta tradiziorik ez duena ez da ezer!

Leialtasunak

Shankill errepidean ehundaka bandera britainiar eta orangista daude oraindik. Uztailaren 12a joan zen, baina unionisten ikurrek beren lekuetan diraute. Preso lealistak askatzea eskatzen duen pankarta handia kentzen ari dira, hala ere, azpitik pasa garen une berean.

Eguraldi ona egiten du eta oinez egin dugu Falls errepublikarretik Shankill lealistarako bide laburra. Sinn Feinen egoitzaren paretik pasa gara, eta ordu laurdenean PUP (Alderdi Unionista Progresista) alderdi lealistaren egoitzara heldu.

Egoitzaren sarreran Sinn Feineko egoitzan ikusi dugun giroaren antzekoa nabari da: itxaron gela bat, aberats izateko itxurarik ez duen jendea harrera-gelara sartzeko zain, presoen aldeko afitxa batzuk, eta etxebizitza, babes sozial, hezkuntza edota osasun arazoei buruzko informazio agiri ugari. Auzuneko bizilagunek PUP edo UDP alderdien egoitzetara jotzen dute, Fallseko auzotarrek Sinn Feinekora jotzen duten bezala,

administrazioarekin arazoren bat baldin badute, aholku-zentro ere badira-eta alderdien egoitzak.

Billy Hutchinson agertu zaigu berehala: garaia, oso argala, ile urdindua, baina burusoiltzen hasia. Berrogei bat urte. Gure aurkezpena egin ahala, grabagailua piztu du Humbertok.

– 1972. urtean, hamasei urte nituela, UVF (Ulsterko Bolondresen Indarra) talde paramilitar lealistan sartu nintzen. 1974an kartzeleratu egin ninduten: bi hilketa leporatu eta bi betiko espetxe-zigor ezarri zizkidaten. Hamasei urte egin nituen barruan eta, 1990ean irten nintzenean, PU-Peko kide egin nintzen. Suetenak iragarri zirenetik alderdiko bozeramaileetako bat naiz, eta Londresko Gobernuarekin elkarrizketan ari den ordezkaritzako burua.

Eztarriko intxaurra gora eta behera mugitzen du Hutchinsonek hizketan ari delarik. Bagenekien bi hilketa egotzi zizkiotela eta kartzelan hainbeste urte egin zituela: *Belfast Telegraphe* egunkariko azalean agertu zen orain ez asko Galesko Charles printzeari bostekoa ematen, polemika piztu baitzuen printzeak «hiltzaile bati» eskua eman izanak.

1980ko hamarkadan sortutako alderdiaren historiatxoa egin digu, eta guk galderarik egin gabe mahairatu du berak UVF talde paramilitarrarekiko harremana.

– Baina esan al daiteke alderdikoek UVFrekin harreman zuzena daukazuela?

– Harremana ez dago ukatzerik. Guk uste dugu Ipar Irlandako arazoak politikaren eremuan konpondu behar direla, baina uste dugu, baita ere, biolentziaren gaitzespenak ez duela arazoa konpontzen. Harreman estuak ditugu UVFrekin, eta horren arrazoia zera da: UVFk analisi politikoa behar duela; eta guk hori ematen diogu. Bihar suetena hausten bada eta UVFk norbait hiltzen badu, guk ez diogu hilketa horri sostengua emango, baina talde paramilitarrari analisi politikoa eskaintzen jarraituko dugu.

Izan ere, UDA-UFF, UVF eta beste talde paramilitar txikiagoek suetena iragarri zutenean, PUP eta UDP (UDA-UFFren beso politikoa) alderdien ahotik egin zuten. Talde paramilitar bakoitzak funtzionamendu autonomoa dauka, presoen kolektiboak ere era bereizian antolatuta daude,

baina erabakiak elkarrekin hartzeko egitura daukate: Talde Lealisten Aginte Bateratua.

– Une jakinetan biltzen gara bi alderdiak, eta Gobernuarekin hizketan ere elkarrekin ari gara. Baina alderdi ezberdinak gara, eta filosofia politiko ezberdinak dauzkagu. Gainera, jabetu al zarete UDPk ez duela *unionista* hitza sigletan? Ulster independentearen alde daude UDP eta UFF. Gu, aldiz, unionistak gara.

Droga trafikoa dela medio Hutchinsonen alderdiak eta UDPk polemika garratza izan berri dutela gogoratu naiz. UDPri eta UFFri drogen aurka gogor ekiteko eskatu zien Hutchinsonek berak publikoki, euren artean droga trafikatzaileak zeudela zeharka adieraziz.

– Droga trafikoa ozen gaitzetsi dugu. UVFk erakundetik bota ditu drogetan nahasita zeuden kide guztiak, eta garbi esana du drogekin zerikusia duten guztien kontra ekingo duela.

– Talde lealistetan ba al da jenderik drogetan nahastuta?

– Ez dago zalantzarik. Talde paramilitar lealistetan badira droga trafikoan dabiltzanak. UVFk

jende honen kontrako jarrera hartu du. Geldiarazi egin behar dira.

Ez du UDPren eta UFFren aurkako hitzik atera, baina aldekorik ere ez. Ulertu diogula uste dugu.

– Lealista esaten zaizue talde paramilitarrekin harremana daukazuen alderdiei. Ingalaterrako koroarekiko leialtasuna duzuela esan nahi du horrek?

– Nire leialtasuna ez da Erreginarekikoa, ezta estatuarekikoa ere, Erresuma Batuko demokraziarekikoa baizik. Eta nik filosofiaren bati baldin badiot leialtasuna, sozialismoa da filosofia hori, eta ez monarkia.

IRAren aurka borroka odoltsuan jardun duten talde lealistak ultraeskuindartzat nituen Belfastera etorri aurretik. Ez inori hala entzunda, ezta inon irakurrita ere. Horrela behar zuela iruditzen zitzaidan: abertzale ezkertiarren aurka, ultraeskuindar estatuzaleak. Baina zuriaren eta beltzaren arteko bereizketa errazak ez du balio Ipar Irlandan.

– Ezkerrekoa da gure alderdia. Langile klasea ordezkatzen dugu batik bat. Eta batzuk esango

dizuete diferentzia handia dagoela Sinn Feinen eta gure alderdiaren artean, eta nik ukatu egingo dut. Sinn Feinen eta gure arteko diferentzia huskeria da politika ekonomiko-sozialean, berdintsuak gara gai guztietan, gai konstituzionalean izan ezik: britainiarrak garela sinesten dugu guk, eta Sinn Feinek ez. Bestela, ideologia bera daukagu, eta esperientzia komuna. Arazo berberak jasan eta jasaten ditugu, bai ekonomia arloan bai gatazkaren gordintasunean.

– Arazo beretsuak izango dituzue, baina suetena hausten bada elkarren aurka egingo duzue borroka berriro. Elkar hilko dute zuen talde paramilitarreko eta IRAko kideek.

– Tamalez horrela da. Baina euren esku dago. Eurek ez badute suetena hausten, lealistek ez dituzue armak berriro hartuko.

Abian den bake prozesuan sinesten duten eta parte hartzen ari diren alderdi unionista bakarrak dira PUP eta UDP minoritarioak. Shankillen indar handia daukate, baina Ipar Irlanda osoan botoen %1 baino ez dute biltzen bien artean. UUP eta DUP alderdi nagusiekin ez dute inolako

harremanik aspaldian, eta gogor kritikatzen dute elkar, helburu nagusietan bat datozen arren.

Hizkera ere arras ezberdina dute Hutchinsonek eta alderdi nagusietako liderrek. Paisleyk eta Molyneauxek ez dute izenik Irlandarentzat –*irla hau* esaten diote, irla osotasunean hartzen dutenean–, eta ez lukete sekula irlandar direnik esango. Hutchinsonek, bai.

– Irla honen ipar ekialdean jaio nintzen, eta horrek irlandar egiten nau, Kultura aldetik irlandarra naiz eta politikoki britainiarra. Irlandarra naiz eta britainiarra. Irlandar adina britainiar. Gainera, uste dut Ipar Irlandako etorkizuna Irlandako Errepublikari lotua dagoela, Irlandako Errepublikak izan beharko lukeela erantzukizun maila bat Ipar Irlandan, beti ere Ipar Irlandako herritarrok onartzen dugun heinean, akordioz egiten den heinean.

– Onartuko zenuke, Ipar Irlandako gehiengoa Irlanda Batuaren alde agertuko balitz?

– Onartuko nuke.

Grabagailua itzalita, harrituta utzi gaituela esan diogu Hutchinsoni. Alderdi unionista nagusien mezua zein den jakinda, talde paramilita-

rrak sostengatzen dituztela jakinda, beste era bateko diskurtsoa espero genuela aitortu diogu. Diskurtso itxiagoa.

– Gure mezua ezagutarazteko arazoak ditugu. Atzerrian batik bat. IRAk eta Sinn Feinek propaganda makineria eraginkorra dute, zuen herrian batez ere, euskaldunei esker. Euskaldun asko etortzen da Belfastera, eta Fallsera joaten dira, alderdi horretako borrokaz interesatuta, baina ez dira kezkatzen alde honetan zer gertatzen den.

Euskaldunak garela aitortzeko unea heldu da, baina ez dugu ahorik zabaldu. Ez dugu behar bezala erreakzionatu. Berak galdetu digu segidan:

– Espainiako zein aldetakoak zarete?

– Euskal Herrikoak gara.

– Euskaldunak, orduan... Tira, gauzak aldatu dira apur bat.

Horren hurbil, hain urruti

– Nire bizitza osoan ez naiz egundo Shankill auzunean barrena ibili. Telebistan bakarrik ikusi ahal izan dut.

Azken bost urteetan kazetari lanetan jardun du Colonek *La Nuachtán na nGael* (Gaelikoen albistegia) gaeliko hutsez Ipar Irlandan argitaratzen den astekari bakarrean. Hego Irlandan bada beste bat: *Anois.*

Culturlannen dauka erredakzioa *La* astekariak. Ipar Irlandako sei konderrietako gaelikoaren etxea da Culturlann McAdam O Fiaich, gaeliko zale eta sustatzaileen biltokia. Eraikin berezi honek eliza izanaren aztamak gordetzen ditu: dorre nagusia eraikinaren erdi-erdian, erlojua haren altzoan, sarrerako ate handiak, eta lehendabizikoa gainditu osteko pasilutxo goibela, bigarren ate bat gero, antzinako sarraila eta guzti.

1973ra arte eliza presbitariarra zen gaurko Culturlann. Komunitateen arteko gatazka hasi arte nahasita bizi ziren katolikoak eta protestanteak, baita gaur egun erabat nazionalista den

Fallsen ere, non mendearen erdi partean unionistak nagusi ziren. Gatazkaren larriagotzearekin aldegin egin zuen komunitate protestante osoak, beste auzune batzuetatik katolikoek hanka egin zuten moduan. Eliza hutsik geratuta, Armada britainiarrak bereganatuko ote zuen zurrumurrua zabaldu zen Fallsen. IRA ez zegoen arerioaren gotorlekurik ametitzeko prest, eta erre egin zuen.

– Berreraiki eta alfonbra enpresa batek erosi zuen orduan –gogoratzen du Colonek–. Halaxe ezagutu nuen nik mutikotan, *La* astekarirako publizitate eske joan nintzenean. 80ko hamarkadaren hasieran erosiko zuen Eliza katolikoak, eta 1991. urtean bihurtu zen Culturlann, gaelikoaren eta gure herriko kultur adierazpideen ardatza.

Culturlannen goiko solairuan daude astekariaren erredakzioa eta Radio Feilte irratiarena, eta beste bietan haur eta gaztetxoen Meanscoil Fairste eskolako gelak, Ipar Irlandako lehen ikastolak. Beheko solairua goikoak baino zaratatsuagoa da. Liburutegia dago bertan, musika eta liburu gaelikoak kontsultatu zein saltzeko. Zarataren arrastoari segitu eta liburutegiarekin bat egi-

ten duen kafetegira iritsi gara. Te bana atera digu Colonek, lanetik atsedena hartuta.

Gai politikoez arduratzen da Colon astekarian, baina argazkilaritza edota produkzio lanetan ere sarri jarduten du. Bera da informatika arazoak konpontzen dituena. Eta Radio Feilte irrati libreko esatari nagusia da gainera. Errepublika librean baino ez dago gaelikozko irrati legala, Radio na Gaeltachta, baina haren uhinak ez dira Ipar Irlandara ailegatzen.

– Hogeita zortzi urtetan ez naiz egundo Shankill auzunean barrena ibili –Fallseko gazteen artean batere ohikoa ez den ile mataza luzeak estaltzen dio kaskoa.

Muturretik muturrera ezagutzen ditu Colonek ipar eta hego Irlandako bazterrak, Donegal konderritik hasita Cork-eko porturaino. Belfasteko mutilak bisitatu ez duen parajerik ez dago. Uhartea bere esku ahurra balitz bezala ezagutzen du. Bere etxetik bost minutura dagoen Shankill auzunea, ordea, ez du sekula zapaldu. Eta ez nahi ez duelako, bizitza jokoan jarriko lukeelako baizik. Errepublikarren fruitu debekatua da Shankill.

– Zuek biok atzerritarrak zarete eta aste batzuk besterik ez daramatzazue Belfasten, baina nik inoiz ikusi eta bisitatu ezingo ditudan kale eta lekuetan ibili zarete.

Minik egiteko asmorik gabe, baina zapalduta sentitzen denaren amorru etsiarekin aurpegiratu digu bere arrangura.

– Sinesgaitza egiten zait. Shankill ondo-ondoan dago, eta zu hara agertuko bazina ez litzaizuke ezer gertatuko.

– Fallsen bizi garenok ongi dakigu zein arriskutsua izan litekeen Shankilleko eremuan gaudela inork ezagutuko bagintu. Ez ginateke bizirik aterako. Gure bekatua Fallsen bizitzea da, eta Irlanda Batuaren aldekoak izatea.

Gerry Adams-en autografoa

Elkarrizketa egiteko modurik ez daukagula jakinarazi diguten arren, ez da batere zaila Gerry Adamsekin topo egitea Belfast Mendebaldeko kaleetan barrena egunero bazabiltza. Gutxien espero duzunean agertuko da zure espaloitik zuganantz hurbiltzen. Etxe ondoko hilerriko bidesketatik zakur beltzarekin paseatzen, hitzaldi bateko entzuleen artean, edo Fallseko Sinn Feineko egoitzatik gertu daukan etxerako bidean aurkituko duzu mugimendu errepublikarreko buruzagia. Bakarrik sekulan ez. Gutxienik bi bizkarzain inguruan, Falls auzunean baldin badabil ere.

Batetik bestera joateko, beretzat propio prestaturiko taxi beltz blindatua baliatuko du, Belfast Mendebalderako kamuflajerik onena. Auzune nazionalistetatik kanpo betebehar politikoek baino ez dute eramaten. Eta ez duzu hirigunean erosketak egiten edo garagardo bat hartzen topatuko.

Familia irlandar, errepublikar eta katoliko bateko hamar anai-arrebatan nagusiena da 47 ur-

teko bizarduna. Aiton-amonen eta gurasoen bide beretsutik jo du borroka politikoan. 40ko hamarkadan RUC Poliziaren erasoaren ondorioz tiro batek zauritu zuen aita. Eta aitaren esperientziatik ezagutu zituen Gerry gazteak ziegako iluntasunaren mingotsa, urte batzuk giltzapeturik eman baitzituen Sinn Feineko buruzagia izango zena jaio aurretik.

Mugimendu errepublikarrean burubelarri murgiltzeko erabakia, ostera, ez zitzaion sendiko odolaren borborrean piztu, 1964an poliziarekin izandako gertakari baten haritik baizik. Sinn Feinen egoitza batean sartu eta, dena hankaz gora utzi ondoren, Irlandako bandera bahitu zuten RUCeko agenteek. Adamsek 17 urte baino ez zeuzkan, baina eskola utzi eta mendira joatea erabaki zuen.

Tabernari lanetan aritzen zen Adams, Duke of York pubean. Belfasteko erdialdean dagoen taberna, *Newsletter* egunkari unionistaren egoitza parean, NILP Ipar Irlandako Alderdi Laboristako alderdiaren bulegotik gertu. Tabernako lanek eta Sinn Fein alderdikoek betetzen zuten Adams nerabearen eguna.

Gazte argal hark Fallseko bazter guztiak dantzan jartzen zituen diskriminazioaren aurkako borrokan, batez ere langabetuen eta etxegabekoen alde egindako lan kementsuaz. *United Irishman* argitalpen errepublikarra kalean saltzeagatik kartzelaratua izan zen behin baino gehiagotan. Taberna ere utzi egin behar izan zuen diskriminazioa bere azalean sentitutakoan. Uztailak 12ko jai eguna zela-eta, zegokion paga bikoitza eskatzeagatik kaleratu zuen ugazabak.

Errepublikarren artean zabalduta dago, Sinn Feineko egungo burua IRAko komandantea izan zela: Belfasteko Ballymurphy eremuan lehendabizi eta hiriburu osoan gero, talde armatuko batzorde militarreko zazpi kideetako bat bilakatu aurretik.

1972ko uztailean, Londresen, Gobernu britainiarraren egoitza ofizial batean William Whitelaw Ipar Irlandarako estatu idazkariarekin bildutako IRAko delegazioko kide izan zen Gerry Adams, 25 urteko gaztea. Hilabete lehenago atera zuten Long Kesh-eko internamendu-eremutik, hastear zeuden elkarrizketetan parte har zezan erraztеko.

IRAren eta mugimendu errepublikar osoaren zuzendaritza Hegoaldean zegoen artean –Sean McStioifan zen IRA Probisionalaren buruzagi nagusia, eta Ruairi O'Bradaigh Sinn Feinekoa–, baina ordurako Iparraldeko 'gazteak' eragin garrantzitsua izaten hasiak ziren. Izan ere, Armada britainiarraren hegazkin militarrean Whitelawengana joandako delegazioko zazpi kideen artean, Belfasteko provoen ordezkari zen Gerry Adams ezezik, derrytarrak ordezkatzen zituen Martin McGuinness ere bazihoan.

Tregua eta elkarrizketa haiek ezer onik ez zioten ekarri mugimendu errepublikarrari. Negoziazioak hasi ahala eteteaz gainera –bilera bakarra egin zuten Estatu idazkariarekin–, delegazio errepublikarrean parte hartu zuten gehienak atxilotu egin zituzten: Sean McStiofain eta Martin McGuinness urte berean, Gerry Adams hurrengoan.

IRAko kidea izan zela ukatu egiten du gaur egun. Baina mugimendu errepublikarreko buruzagitzara iritsi orduko hutsik gabeko ibilbidea, inoiz ezagutu den ibilbiderik azkarrena, bete duela aitortzen diote Belfasteko IRAkide ohiek.

– Adamsek Belfast kontrolatzen zuen –dio Kevinek, Adamsen garaikideak–. Eta Belfast kontrolatzen zuenak gerra kontrolatzen zuen.

Long Kesheko 11 zenbakiko barrakoian zegoelarik –Bobby Sandsen ziegakide–, Adamsek iritzi zutabea idatzi zuen *Republican News* aldizkarian, Brownie goiti zenaz. Idatzi honetan ahots alternatibo baten lider bezala agertu zen. Adamsen proposamenek berehala izan zuten oihartzun zabala H-Blokeetako hesietatik kanpo ere.

Kartzela utzi eta berehala ekin zion mugimendu errepublikarra bide berrietara eramateko ahaleginari. Alderdia Dublindik zuzentzen zuen (The Southerness) taldearen estrategiarekin bat ez zetozen Iparrekoak (The Northerness), eta Gerry Adams buru zutela, mugimenduaren lema Iparraldera ekarri zuten pixkanaka. 1983an, Ruairi O’Bradaighek Gerry Adammi utzi behar izan zion alderdiko lehendakaritza.

Futboleko jokalaria bailitzan, autografoak sinatzen aurkitu dugu gaur Corrigan parkean, errepublikarrek antolatutako ekitaldi politikoko en-

tzuleen artean. Nik ere eskatu diot neuretzako zirri-marra bat. Elkarrizketarik ez baina, sikieran, Adamsen sinadura gordetzeko, gero sinaduraren azterketa sasi-grafologikoa eginez etekinen bat ateratzeko itxaropenaz.

Zori oneko eguna izan da. Nire izena eta dataren azpian, gure herriari aupada bat eman guran honako hau idatzi baitu: «Gora Uskadi!». Euskal Herrian bizpahiru bider izana da Adams, azkeneko aldiz nire koadernoan «Gora Uskadi!» idatzi baino sei hilabete lehenago.

– Urrunetik besterik ez bada ere, Euskal Herriaz entzun edo ezagutzen ez duenik ez dago auzune errepublikarretan –jendetzaren artetik agertu den Donagha prentsa arduraduna guregana bildu da–. Baina, egiatan, guretzat ezagunagoak dira beste herrialde batzuk.

– Zein?

– Hegoafrika eta Palestina, batez ere.

Horregatik ikusi ditugu gure ikurrinarekin eta Irlandakoarekin batera palestinarren eta hegoafrikarren banderak Sinn Feinek Belfasteko Andersonstown auzunean daukan O’Conolly egoitzan.

– Euskal Herria guretzat garrantzitsua izan arren, areago dira Hegoafrika eta Palestina. Bi herrialde hauek erakutsi diote munduari askatasuna eskuratzeko batzuetan ezinbestekoa dela altxatzea eta bortizkeria erabiltzea. Bi prozesuak, batez ere Nelson Mandelaren Afrikako Kongresu Nazionalak burututakoa, arrakastatsuak izan dira, eta nazioarteko iritzi publikoaren begirunea eta onespena jaso dute.

– Beraz, Adams gure herriaren izena E eta guzti idazteko gai denean izango da Euskal Herria irlandarren artean aipagai.

– Ordurako britishak hanka eginda izango direla espero dut.

Egurra gazte antisozialei

Paramilitary beatings put at 124 since ceasefires. *Irish Times*eko artikuluaren titulua da: «Paramilitarren suetenen ondorengo jipoiak 124ra heldu dira». Goitik behera irakurri dut:

«Paramilitar errepublikar eta lealistek 124 *punishment* (zigor-jipoi) eman dituzte suetenak iragarri zituztenetik, RUCek atzo jakinarazitako datuen arabera: IRAk 76 jipoi eman ditu 1994ko irailaren leheneko suetenaz geroztik; lealistek 48. IRAk suetena iragarri zuenetik lealistek eurena iragarri zuten arteko bitartean, protestanteek 13 zigor-tiroketa egin zituzten.

»Datuak ekainak 12 bitartekoak direnez, ez dute kontuan hartu Belfast Iparraldean gertatu berri dena: emakume bat beisboleko bateekin egurtu zuten Rathcoole Estate auzune lealistan, zigor-jipoi bat ematen ari zirenean kolpatuari laguntzen ahalegindu zelako.

»FAIT (Intimidazioaren eta Terrorearen Aurkako Familiak) taldeak, zigor-jipoi eta zigor-tiroketen aurkako kanpaina egiteko eratutako elkar-

teak uste du, jipoiak bukatzekotan, presio publikoaren eraginez bukatuko direla, eta horretarako biktimek eta euren senideek jendaurrean salatu behar dituztela.

»Nancy Gracey FAITen sortzaileak dioenez, elkarteak gogor egingo du *punishment*en aurka: “Atsedenik gabe egin behar diegu aurre. Gure senitarteko batek zerbait oker egiten badu, Polizia eta Justizia badira horretaz arduratzeko. Eraso horiek egiten dituztenek ezin dute epaileak balira bezala jokatu. Errepublikarrek esango dute komunitate nazionalista jasaten ari den egoerari ematen dion erantzuna direla jipoiak; baina hori esatean botereaz eta kontrolaz mintzo dira”.

»Sinn Feinek adierazi du, erasoak ez dituela justifikatzen. “Gure jarrera oso argia da” esan zuen bozeramaile batek atzo. “Guk ez daukagu zerikusirik jipoi horiekin. *Punishment*ak amaitzearen kontua, zigor-jipoi horiek ematen dituen jendearen arazoa da”. Jipoiek Sinn Feinen posizioari kalterik egiten ote dion galdetuta, erasoen kontu honetan Sinn Feinek SDLPk baino erantzu-

kizun handiagoa ez duela nabarmendu zuen bozeramaileak.

»Joan den hilabetean, Protestant Action Force (Ekintza Indar Protestantea) taldeak heriotz mehatxua egin zien ustezko bost droga trafikatzaileei Larne-n, Antrim konderrian. Segidan oharta-razi zuen Michael Ancram ministroak, PUP eta UDP alderdi lealistekin hasitako esplorazio-elkarrizketak eten egingo zituela, baldin eta alderdi hauek heriotz mehatxuak gaitzesten ez bazituzten. Eta PUPek gaitzetsi egin zituen.

»Joan den hilabetean halaber, PUPeko Billy Hutchinsonek onartu egin zuen paramilitar lealista zenbait droga trafikoan nahasita zeudela, eta erakundetik kanporatzeko eskatu zuen.

»Belfasteko ospitale bateko iturriek adierazi dute, bestalde, kasu gehienetan zigor-jipoiek zauri larriagoak eragiten dituztela, suetena baino lehenagoko zigor-tiroketen zauriek baino».

Suetenaren aurretik, belaunetan edo besoetan tiro bana ematen zieten droga trafikatzaileei, kotxe lapurrei eta *jokaera antisozialeko* auzotarrei, IRAk auzune katolikoetan eta talde lealistek auzune protestanteetan. Suetenarekin, suzko

armak eta erakundearen siglak gorderik dauzkatela, bestelako armak baliatzen dituzte zigorrerako: beisbol bateak. Erakunde militarrararen izenean ordez, Drogen Aurkako Ekintza Zuzena, Ballymurphy Ekintza Taldea eta horrelakoen izenez partitzen dute orain Justizia.

– Irakurri al duzu hau? –artikulua non dagoen atzamarraz adierazi eta egunkaria hurbildu diot Jamesi.

– Bai, Imanol –ez du egunkaria eskuetan hartu–. Astero daukagu zerbait.

– Astero baino, asteburuero.

Asteburuan alde batean zein bestean eman dituzten zigor-jipoiei buruzko artikulua irakurtzera ohitu gara astelehenetan. Berrogei bat asteburu joan dira IRAk suetena iragarri zuenetik. Hiru *punishment* asteko: ia bi, auzune errepublikarretan; bat baino gehixeago batez beste auzune protestanteetan.

– Beldurtuta egongo dira droga trafikatzaileak. Zer esanik ez Fallseko hainbat hormetan jarri dituzten afitxen ondoren. Ikusi al dituzu? –buruarekin baietz egin dit James pisukideak.

Egunotan gure kalean ikusi ditugun afitxak jarri dituztenak ez dabiltza txantxetan. Droga trafikatzaileen izen eta abizenak eman dituzte. «Erne: Jende honek zure seme-alaben osasunari kalte izugarria egin diezaioke». Droga trafikatzaileak omen diren hamazazpi auzotarren zerrenda dator. Bakoitzaren deiturak aurrena, eta Falls barruko zein auzunetan bizi diren gero: Lower Falls, Clonard, Saint James... Eta azken esaldia: «Drogak. Amaitu negozio anker hori orain!».

Ez da irakurri dudan droga trafikatzaileen aurkako lehen abisua. «Ballymurphy Action Group: We'll punish all known drug dealers» irakur daiteke gure etxetik oso hurbil dagoen horma batean. Ezagutzen dituzten droga trafikatzaile guztiak zigortuko dituztela, alegia.

– Fallseko karteletan salatutakoek Donegall Roadeko bidegurutzean egiten omen dituzte trapitxeoak –tea egiteko ura berotzen jartzera altxatu da James.

– Hori ere ba al daukagu etxe ondoko bidegurutze madarikatuan?

– Zerorrek irakurri. Aste honetako *Andersonstown News*ek dakar. Telebista gainean dago.

Belfast Mendebaldeko komunitate nazionalistaren astekari zabalduena da *Andersonstown News.* Errepublikarren aldekoa du ildo editoriala, baina ez da *An Phoblacht* Sinn Feinen agerkaria bezain politikoa. Ez edukietan ez ikuspegietan. Lehen orrialdeko zutabe batean dator notizia: «Bezeroei telefono publikotik hots egiten diete zita egiteko. Eta sarritan Rock kaleen eta Falls errepidearen arteko bidegurutzean saltzen dute merkantzia».

Rock kaleetako batean gaude, hain zuzen ere. Rockmount Streeten Jamesekin konpartitzen dudan etxean. Ezaguna da bidegurutzea, Donegall Roadeko bidegurutzea izenaz ezagunagoa, bertan lealistek egin dituzten atentatu mordoskagatik.

– Bidegurutzea baino gurutzebidea da hori –pentsatu dut nire kabutan, baina ez dakit ingelesez nola esan.

Droga esaten denean Belfasten, extasia esan nahi da. Gehienetan behintzat. Heroina arazorik ez baitago, hemengoek diotenez. Eta kokaina ere gutxi mugitzen da.

– IRAri esker da hori –esango dizu giro errepublikarreko edonork.

Haxixik bada. Erreta nago ni ere haxixa errepublikar baten etxean. Baina ez dut sekula inor taberna batean kanutoa erretzen ikusi. Ez tabernan ez inon, etxe partikularren batean salbu. Txokolate trafikatzaileak ere zigor-jipoien biktima izan badaitezke ere, extasia dute arazo nagusitzat.

– Orain gutxi, hamabost urteko neska bat hil zen dantzaleku batean extasia hartuta –jakinaraziko dizute, extasiaren arazoaren neurriaz galdetuz gero.

Sinn Feineko egoitzako paretetako kartelei so eginda, ezagun du droga kontuek kezkatuta dauzkatela. Drogarekin zerikusirik ez duten afitxak ere badira noski –1981ko gose greban hildakoen argazkiak eta Margaret Thatcherren irudia («Wanted, preso irlandarren hilketa eta torturagatik»), esate baterako–, baina harritu egin

ninduen drogei buruzko hainbeste kartel ikusteak: «Torn apart by LSD» (Hautsi LSDrekin), «Ecstasy Madness» (Extasia Eromena), «Fatal Atraction» (Herio Erakarpena), «Smash the drug rings» (Suntsitu drogaren zirkuloak –edo deiak–).

– Kontu hauen artean, dena den, Armagheko tabernarena egin zait bitxiena, James –begiratzeko moduan igarri diot ez daukala horren berririk–. Periodikoan leitu nuen lehengoan.

Armagheko hirigunetik kanpoko diskoteka bat IRAren mehatxupean zegoen aspaldian: extasi saltzaileak ibiltzen omen ziren tabernan eta, ugazabak neurriak hartzen ez bazituen, diskoteka itxi egin beharko zuela jakinarazi zioten. Droga trafikatzaileekin zer ikusirik ez zuela eta hauen aurka bere esku zegoen guztia egin ohi zuela argudiatu zuen jabeak, eta segurtatzen zuela diskoteka barruan batere salerosketarik ez zela egiten. Orain, bere bezeroek drogak kontsumitzen bazituzten, hori ez zegola bere esku...

Komentzitu zituen nonbait mehatxu egin ziotenak, baina ez zen aski. Diskotekan jarri ohi zuen *rave* musikak –*bakalao* musikak– extasia kontsumitzeko giro aproposa sortzea eragiten

zuelako, *rave* musika gehiago ez ipintzea aholkatu zioten. Eta ugazabak amore eman zuen.

– Ni ez naiz sekula drogekin nahastuta egon. Gehiago esango dizut –esan zion kazetariari–, beti egingo diet aurre droga trafikatzaileei. Eta itxuraz, auzotarren iritziz *rave* musika kentzeak lagundu egingo du drogaren aurkako ahaleginean. Nik ez dut uste, baina tira, musika aldatuta bakean utziko banaute...

– Zalantza batekin geratu naiz, James: auzotarrek bultzatuta ala IRAk mehatxatuta aldatu zuen musika?

– Biak, ziur aski.

Alboan eserita daukan gaztea aurkeztu digu Connorrek.

– Leo, nire lehengusua. Imanol eta Humberto, Euskal Herrikoak.

– Kanpotarrak! –argala baina indartsua da Leo, dena giharra; ulertu ez diodan zerbait esan dit bostekoa ematearekin batera, eta barrez lehertu da jarraian.

– Barkatu, ez dizut ulertu.

– Zer arraio egiten duzu Belfasten ingelesez esandako txiste bat ulertzeko gauza ez bazara? –algara zoroa berriro. Ez dit graziarik egiten, baina irribarre egin dut. Connorren lehengusua da. Dena giharra.

Garagardoak ateratzera joan da Humberto, eta bi irlandarrekin eseri naiz. Isildu gabe ari da Leo, Connorri txisteak kontatzen. Txiste bakoitzeko hamar-hamabost *fuck* ulertzen dizkiot, baina txisterik ez. Connorrek ez du ingelesarekin arazorik, noski, baina barre handirik ez diote eragiten lehengusuaren txantxek.

Garagardo argia edaten ari da Connor, eta sagardo pintarekin ari da Leo. Mozkor samartua dagoela esango nuke. Ulertu ez diodan beste zerbait esan dit, bizpahiru *fuck* tarteko, eta ondoren:

– Nahi duzu borrokan egin?! –zutitu, kamiseta erantzi eta ukabila estutu du, haserre plantak eginez.

– Nahiago dut Connorrekin eta Humbertorekin lasai berriketan jardun –ezin dut irribarrerik egin.

– Lasai mutila! Txantxetan ari nintzen –eseri egin da berriro, baina ez du elastikoa jantzi–. Connor! Zure lagunek ez al dakite txantxetan hitz egiten?

Ezagutu eta bigarren minuturako gorrotatzen hasi naiz Leo alu hau. Humberto guinness parearekin noiz agertu desiratzen nago. Leok isildu gabe segitzen du eta Connorri ez dio nirekin ingeles lasaian mintzateko betarik ematen. Humberto berriro azaldu denean, niri moduan egin dio eraso, borrokarako gonbitea eginez. Aspertzen hasita nago majadero honekin, eta Connor lotsatzen.

Hogei bat txiste kontatuko zituen Leok, Malachy adiskidea Humbertoren aldamenera etorri denerako.

– Zer egiten duzue honekin? –Leok ez entzuteko moduan egin dio galdera.

– Gure lagunaren lehengusua da. Oraintxe ezagutu dugu.

– Ez da jende ona. Ez zaizue komeni horrelako jendearekin ibiltzea.

Ordubete eskas iraun dugu Kelly’s tabernan Leoren txiste ulergaitzak entzuten. Hasierako

asmoa luze egotea zen arren, Leorengandik ihes egiteko Maddens tabernera joatea erabaki dugu. Laga dugu, beraz, lehengusu xarmanta.

Malachyk esandakoa ez diogu aipatu Connorri. Baina horren beharrik ez zegoen, Connor lehengusuagatik gaizkiesaka hasteko.

– Babalore bat da Leo.

– Beti al da horren desatsegina?

– Bai, beti ezagutu dut horrelakoa. Arazoak ere izan ditu horregatik.

– Zein arazo klase? –arestian Malachyk esandakoa buruan dauka Humbertok.

– IRAk hamaika aldiz ohartarazi du.

– Droga kontuetan aritzeagatik?

– Ez, ez dut uste. Antisoziala izateagatik, bazter guztietan borroka-giroa sortzeagatik, jendea bakean ez uzteagatik. IRAko hiru kide bila joan eta tabernatik atera zutenean belaunetan tiro bana jasotzeko garaia heldu zitzaiola pentsatu zuten ikusi zuten guztiek.

– Eta?

– Barkatu egin zioten. Bederatzi seme-alabako familia pobreko kidea da, eta aita errepublikarra du. Horregatik, pentsatzen dut. Baina Belfast

Mendebaldeko tabernetan ez du sartzerik orain. Fallsen bizi da, baina tabernetan ibiltzekotan, hirigunera etorri behar du.

Gazte 'antisozialei' etxeratzeko ordua ere jarri ohi die auzuneko IRAko taldeak. Jokaera aldatzeko abisua dator lehen-lehenik, behin ordu batetik aurrera kalean ez ibiltzeko agindua etor dakieke gero –gazteenei–, edota auzuneko taberna eta elkarteetara sartzeko debekua. Ezarritako arauei edo behin eta berriro egindako abisuei muzin eginez gero, zigorra etor daiteke azkenean. Tiro pare bat lehen, jipoia orain.

– Egia esan, zigorra jasotzekotan nahiago nuke tiro parea jaso, suetenaz geroztik ematen dituzten jipoi ikaragarrietako bat jasan baino.

– Ez da askoz hobea izango belaunern tiroa jasotzea –eskua belaunera eraman du Humbertok; azkurea du.

– Okerrago uzten dituzte beisbol bateek, txiki-txiki eginda.

– Horixe bera irakurri diot mediku bati *Irish Times*en.

Maddens jendez betetzen ari dela konturatu naiz, hirugarren erronda ateratzera jaiki naize-

nean. Ostiral iluntzea da, eta musikariak hasi besterik ez dira egin, biolin eta xirulekin. Egun polita, Maddensen garagardo batzuk hartzeko. Bass bat eta bi guinness, oraingoan. Connorren garagardo argia eraman dut aurrena, eta guinness pinten zain geratu naiz barran, ohi bezala. Edalontziaren hiru laurdenak betetzen ditu barmanak kolpe batean, baina azken parrastada bota aurretik atsedena ematen dio zerbeza ilunari, gasak gora egin eta apar zuria loditu dadin. *Guinness time* esaten zaio tarte horri.

– Lau laurogei, mesedez –bi pintak eskuratu dizkit barmanak.

Ezagutzen ditudan tabernen artean merkeena da Maddens. Libra bat eta hirurogei penike pinta bakoitza. Libra eta laurogei edo laurogeita hamar balio du pintak leku gehienetan. Eta bi libratik gora Hego Irlandan.

– To, guinnessa.

– Ikusten barraren bazterrean dagoen emakume heldu hori?

Connorrek gaeliko klaseak ematen zituen garaian ezagutu zuen Mairead. Irakaslea zen hau ere, eta errepublikarra. Semeari, jokaera antiso-

zialekoa nonbait, zigor-jipoi gogorra eman zion IRAk eta, handik hilabete batzuetara, bere buruaz beste egin zuen gazteak.

– Aitak IRAri leporatu zion semearen heriotzaren errua –isilago ari da orain Connor–, eta *punishment*en aurkako pintadez bete zuen Falls.

– Eta ama? –barrara begiratu dut; irribarre tristea nabaritu diot.

– Bananduta zeuden ordurako gurasoak, eta ama ez zen horretan sartu. Oso errepublikarra da. Tira, zen. Bera ere errua IRAri botatzen hasia baita.

Nahikoa berriketa eginda, etxerako bidea hartu dugu gauerdian. Oinez abiatu gara, eguraldi epela lagun. Hirigunetik Fallserako sarreran, ama birjina irudikatzen duen murala eta pintada bat ikusiko dituzu, biak horma berean. «Stop IRA beatings now» (Gelditu IRAren jipoiak oraintxe). ‘IRA’ eta ‘now’ hitzak kare zuriz ezabatzen ahalegindu da norbait. Baina ongi irakurtzen da.

H blokeetan

Sinn Feineko egoitzaren paretik abiatu gara, bi furgonetatan, Maze kartzelarantz. Egunero bi aldiz egiten dute joan-etorria bi ibilgailuok: goizeko hamaiketan abiatzen da lehen txanda, ordu bata t'erdian bigarrena. Lehenengoan goaz, eguerdian Sean Lynch IRAko presoa bisitatzera.

Falls errepidean gora, Andersonstown auzunea zeharkatu eta autobidean sartu gara. Hogei lagun goaz furgonetan. Ez dut inor ezagutzen.

Gidariaren alboko bi eserlekuetan doazen bi gazteak koadrilakoren bat bisitatzera doazela imajinatu dut. Aldamenean ditudan senar-emazteak bietako baten anaia ikustera joango dira; osaba eta aita ikustera, beraz, eurekin doazen hiru haurrak. Besoetan ume jaio berria daraman neska eta haurraren aiton-amonak oraindik alabatxoa ikusi ez duen presoari erakustera, seguru. Nor bere kontura doazen hiru emakume gazteak, airean joango zaien ordu t'erdia senarren edo senargaien alboan pasatzeko asmoz. Hamar urteko anaia bikiak, amarekin, aita bisitatzera.

Glasgow Celticen kamiseta daraman potoloa betiko lagunarekin betiko kontuez aritzeko gogoz doa Mazera. Edo polizi galdeketan bere izenik aipatu ez zuelako komandokide ohiari berriro eskerrak ematera agian.

Biki ilegorriei tarteka lehertzen zaien barrea izan ezik, isiltasunean egin dugu bidaia. Aurki aurrez aurre izango duten lagun, senar, maitale, neba, aita, seme, osaba, anaiari zer esango pentsatzen. Ordu erdi aski izan da Belfast Mendebaldetik Maze kartzelara heltzeko. Maze edo Long Kesh.

Long Kesh deitzen diote errepublikarrek Maze kartzelari, 1970. hamarkadan orain espetxea dagoen lekuan zegoen Long Kesh internamendu eremua gogoratzeko. Komunitate protestanteen eta katolikoen arteko liskarrak piztu berriak, Armada britainiarra Ipar Irlandara orduantxe iritsita, auzipetu gabe giltzapetzeko lege berezia jarri zuen indarrean Londresko aginteak, eta ehundaka irlandarrek ezagutu zuten orduan Long Kesh internamendu eremuetako hotza.

Presondegia eraiki zutenean Maze jarri zioten izena, baina Long Kesh esan diote beti errepubli-

karrek. 1981. urtean Bobby Sands eta beste bederatzi preso errepublikar heriotzaraino eraman zituen gose grebaren lekuko izan ziren Long Kesh kartzelako hormak.

Gaur, 1995eko udan, 680 preso politiko daude Long Keshen: 359 errepublikarrak dira, eta 321 lealistak. Ipar Irlandako kartzela nagusia da, gatazkaren ondorioz giltzapean dauden gehienak biltzen dituena. Ipar Irlandako beste hiru espetxeetan (222), Hego Irlandan (24), Britainia Handian (31) eta Estatu Batuetan (8) daude gainerako preso errepublikarrak (644). Preso lealista guztiak (690 orotara, errepublikarrak baino gehixeago beraz) Ipar Irlandako lau presoendegietan daude.

Espetxe atarian gaude, baina aurrean ez dugu gotorleku sendorik ikusten. Autoentzako aparkalekua, bisitarientzako taberna-jantokia, eta lekuari kontzentrazio eremu itxura ematen dioten alanbre hesiak kartzela inguratzen duten hormen gainean. Zerutik begiratuta –argazkian ikusi izan dut–, H formako zortzi eraikuntza bereizik osatzen dute presondegia. Ezagunak dira,

Long Kesheko H blokeak, 1981eko gose grebaz geroztik.

Presoei paketeren bat eman nahi dietenak aparteko gelara joan dira, eta kartzela barrura sartzeko ilaran jarri gara esku hutsik etorri garenok. Mostradorearen atzean dauden RUCeko bost polizia –kaleko polizien uniforme berdina dute–, bisitarien izen-abizenak hartu, presoaren zenbakia galdetu, bisita eskatuta dagoela baieztatu eta, arazorik ez badago, barrura sartzeko baimenak ematen ari dira. Inorekin arazorik ez airean, azkar ailegatu da gure txanda.

– Nor bisitatzera zatozte?

– Sean Lynch.

– Ea... –goitik behera zeharkatu du papera atzamarraz–. Nire zerrendan ez dago bisitarik Sean Lynchentzat. Zein zenbaki daukan ba al dakizue?

– Bai, A0095 –Humbertok buruz ikasi du Lynchen zenbakia.

– Ez. Zenbaki horrekin ez dago inor hemen. Zein bloketan dagoen ba al dakizue?

– Ez –biok batera.

Sinn Feineko bulegoan dena konponduta dagoela esan digutela adierazten ahalegindu naiz, umil. Baina parez pare daukadan poliziak ez dit jaramon handirik egin. Bulegokideengana jo du.

– Aizue, ba al dakizue Sean Lyinch zein bloketan dagoen?

– Zazpian uste dut. Itxoin... –guri begira jarri da, mostradorearen bestaldetik–. Nongoak zarete?

– Espainiarrak –Humbertok ez du dudarik egin.

– A! España! Que tal estan? Hablo un poco español.

Gure bisitarako baimenik ez da inon ageri, baina ez dio axola, udan Fuengirolan izandako poliziak konpondu digu arazoa. Deiturak hartu dizkigute, eta gela txiki banatan sartu gaituzte segidan, bisitari guztiekin egin bide duten gisara. Bi polizia daude bertan. Izen-abizenak galdegin eta gainean daramadan guztia eskatu dit batek, besteak azaleko miaketa egin didan bitartean. Ez zen zaila grabagailu txiki bat ezkutuan sartzea, pentsatu dut. Diru, boligrafo eta karne-

tak plastikozko poltsan sartu eta papertxo bat eman didate.

– Irteeran papertxo han erakutsi eta zure gauzak itzuliko dizkizute.

Humberto eta biok itxarongelara sartu garenerako mugimendua dago: tarteka polizia bat etorri eta izen batzuk oihukatzen dituenean –presoen izenak dira, izen bakarraren deiari bisitari batek baino gehiagok erantzuten baitiote–, dozena bat lagunak utzi egiten dute egongela.

Poliziaren ahotik Sean Lynchen izena entzun ahala, lau metroko hormez eta alanbradez hesituriko kalera irten gara, zain daukagun furgonetan sartzeko. Leiho itsuak ditu ibilgailuak, eta barruan goazen hamabi lagunak elkarren aurpegiei begiratu beste lanik ez daukagu, txangoak iraun duen bost minutu eskasean. Isiltasuna erabatekoa da.

Zazpigarren blokera eraman gaituzte. Presoen izenak oihukatu ditu polizia batek hemengo itxarongelan ere, banaka baina. Hogei bat minutuko itxaronaldiaren ondoren, heldu da gure txanda. Presoaren izena ozen esan, bisita gela-

rako bidea adierazi eta gurea zortzigarren mahaia dela jakinarazi digute.

Hamabost bisitalekuko areto handian sartu gara. Zazpi alde batera, zortzi bestera, eta pasiloa erdian. Metro t'erdi alturako horma mehek bereizten dituzte bisitalekuak; arrosa kolorekoak dira paretak, baita mahaiak eta aulkiak ere. Mahai handia eta zortzi aulki bisitaleku bakoitzak.

Sartu garenerako lehen sei mahaietan presoarekin hizketan ari dira bisitariak. Zazpigarren mahaian dagoen neskari gu sartzearekin batera heldu zaio laguna eta denbora gelditu duen besarkadan korapilatu dira. Kristalik ez dago presoaren eta bisitarion artean; libre da elkar ukitzea.

Pasiloaren bestaldean bi preso agertu dira, urrutitik guri begira. Bat beharrean bi datoz, itxuraz, gurekin hizketan egitera. Hobe. Gure eta haien begiradek topo egin dute segituan, eta zutik gaude guregana heldu direnerako. Bostekoa ematearekin batera aurkeztu ditugu geure buruak.

– Eta ni Sean Lynch naiz, eta hau Padraig McCotter. Preso errepublikarren zuzendaritza taldekoak gara biok. *Officer commanding* (buruzagi nagusia) naiz ni –plastikozko zorroan ekarri dituen Fanta, Coca-Cola eta txokolatetxoak mahai gainean utzi ditu–. Fanta ala Coca-Cola?

Bobby Sands gogorarazi dit Seanek ezinbestean. Preso errepublikarren arduradun nagusia, *officer commanding* zen Bobby Sands gaztea gose grebari ekin zionean. Kartzela honetan bertan. Irribarre herabea du Seanek, ume aurpegia esango nuke, ilea horia, argal samarra, eta beso gihartsuak. Hogeita hamabost urte baino gehiago ez ditu izango. Padraig zaharragoa da –berrogei bai–, eta sendoagoa; aurpegian zimur gehiago nabari zaizkio, ile beltza, eta kraskatua du ahotsa. Gizon gogorragoa, itxura batean.

– Zenbat denbora daukagu?

Erlojuari begiratu dio Seanek, eta Humbertori gero.

– Ordu eta laurden, ordu bi t’erdiak arte.

Nire ezkerretan eseri da Sean eta aurrez aurre daukadan Humbertoren eskuinean Pa-

draig. Grabagailuen eta boligrafoen faltan, edari latak eta txokolatinak dauzkagu mahai gainean.

Irlanda bitan zatitzen duen mugan bertan jaioa da Sean Lynch, Clones herrian, Hego Irlandako Errepublikan, Monaghan konderrian. Hego Irlanda administratiboki, Ulster probintziakoa historikoki, Ipar Irlanda britainiarretik kanpo dagoen hiru konderri ulstertarretako bat baita Monaghan. Inguru nazionalistan hazia, 1981eko gose grebak eman zion mugimendu errepublikarrean buru-belarri sartzeko azken bultzada, bere belaunaldiko makina bati bezala.

Padraig, jaio orduko zen mugimendu errepublikarreko kide: Belfast Mendebaldeko Andersonstown auzune nazionalistan jaio zen eta, hamabi urteko mutikoa zelarik, Armada britainiarreko land-roverrei harriak jaurtitzea zuen dibertimendua. 1976. urtean atxilotu zuten lehen aldiz, preso errepublikarrek burusi-protestari ekin zioten urtean hain zuzen.

Preso arruntaren uniformea jazteari uko egin zioten, eta jantzi bakartzat burusia izan zuten hilabete luzeetan Padraigek eta bere lagunek 1976an; 1977an *blanket protest* (burusi-protes-

ta) *dirty protest* (zikinkeria-protesta) bilakatu zen: kaka eta pixa ziegan bertan egin eta hormetan zabaltzen zituzten hondakinak; 1980ko urrian zazpi presok lehenengo gose grebari ekin zioten, abenduan beste 23k hasi zuten baraualdia, baina abendu bukaeran bertan behera utzi zuten, baldintzak hobetuko zirelakoan. Ez ziren hobetu ordea, eta 1981eko martxoaren lehenean utzi zion Bobby Sandsek jateari. 66 egun geroago, Sands hil zenerako, beste sei preso ere gose greban zeuden, eta bat hil orduko beste batek lekukoa hartuko ziola erabakita zeukaten. Biharamunean, beraz, Joe McDonellek ekin zion gose grebari. Urriaren 3an preso errepublikarrek gose greba uztea erabaki zutenerako hamar kide hil ziren. Helburuak lortu gabe zeuden artean, baina Elizaren eta senitarteen presioek eraman zituzten protesta bukatzeko erabakia hartzera. Borroka ezin gogorrago hark, berandu izan arren, eman zuen fruiturik.

– Ofizialki ez daukagu stasus politikorik, baina praktikan bai –Fanta lata astindu du Seanek hizketari utzi gabe, hutsik dagoela ziurtatzeko–. Administrazioak onartu egiten du kartzela

barruko lidergoa, eta eguneko 24 orduetan guk kontrolatzen dugu geure bizimodua.

Sean Lynchek eta Padraig McCotterrek, beste hiru kiderekin batera, Long Keshen dauden 360 preso errepublikarren zuzendaritza osatzen dute. Astero bilera egiten dute eta Lynchek, arduradun gisa, blokez bloke ibiltzeko aukera dauka, nahi duen preso guztiekin hitz egitekoa. Kartzela barruko baldintzekin oso gustura daude, eta harro.

– Urtetako borrokaren ondorioa da. 1981eko gose grebaren ondoren ez zuten gure bost eskaeratatik bakarra ere ofizialki onartu, baina berehala hasi ziren baldintzak aldatzen...

– Eta gaur egun orduko eskaeretan aldarrikatzen genuena baino askoz gehiago lorturik daukagu.

Bost aldarrikapen egin zizkioten Margaret Thatcherren Gobernuari gose grebalariek: norberaren arropak janzteko eskubidea, kartzela barruko lanak egin behar ez izatea, presoen artean antolatzeko eskubidea, denborapasarako bitartekoak euren esku izatea, eta 1976an hasi-

tako protestan galdutako zigor-barkamenak zuzpertzea.

Ez espetxe uniformerik ez burusirik ez daukate soinean Seanek eta Padraigek orain. Belfast Mendebaldeko Jaialdia gaelikoz iragartzen duen kamiseta zuria du Seanek, eta Hego Irlandako selekzioarena izan daitekeen elastiko berdea Padraigek.

Hiru urte egin zituen gatibu Padraigek, 1979ra arte. Kanpoan egin zituen, beraz, gose grebaren garai latzak, eta 1986an itzuli zen presondegi honetara. RUCek goizeko lauetan atxilotu zuen Padraig, etxean beste kide batekin zelarik. Biak tiroz zauritu zituzten atxiloturik eraman aurretik. Hamasei urteko zigorra ezarri zion epaileak Padraigi –zer leporatu zion ez digu argitu–, eta bederatzi hilabete barru kalean izango da. Astebururo kalera irteten da orain, zigorraren azken urtea betetzen ari diren guztiak bezala.

Urte berean atxilotu zuten Sean Lynch. «Mirariz» dago bizirik, Armada britainiarraren SAS unitate berezi baten operazioan atxilotu zuteneta. Irlandan SAS esatea, heriotza esatea da. Be-

rekin zihoan kidea hil egin zuten eta Sean oso larri zauritu.

– Zortea izan nuen. Besterik ez.

Shot-to-kill (hiltzeko tiro egin) politika izan dute ardatz SASeko zerbitzu bereziek urtetan: 1983an bi IRAkide hil zituzten Coalisland-en, 1987an IRAko zortzi kide eta oinezko bat Loughgall-en, 1988an hiru IRAkide Gibraltarren eta beste hiru Drumnakilly-n, 1990ean IRAkotzat jo zituzten hiru gazte Fallsen, 1991n IRAko beste hiru kide Coagh-en... Inor gutxi atxilotu dute SASeko eliteko indarrek; hil asko.

– Zorte txarra izan zuten nirekin. Besterik ez.

Hogeita bost urteko zigorra betetzen ari da Sean eta, bake prozesuak egoera aldatzen ez badu, urte mordoska bat egingo ditu preso.

– 2000. urtea hemen ezagutu beharko dut.

Luze mintzatu zaizkigu politikaz, gerraz, bake prozesuaz. Interes handiz jarraitzen ari dira bake prozesua, informazio ona daukate –komunikabide guztietarako aukera dutelako baino, kanpoko lidergoarekin jario oneko harremana dutelako–, presoek konfiantza osoa dute mugimendu erre-

publikarreko lidergoarekin, suetena erabaki zuzena izan zen...

– Baina kartzelan 17 urte egin ondoren orain kalean den Jim McCann-ek esan digu, bake prozesuaren garaian ez lukeela inolaz ere espetxe barruan egon nahiko. Gerra-ekintzekin moralari eustea erraza dela alegia, eta suetenaren itxaronaldia luzeegia dela presoarentzat, zailagoa dela moralari eustea. Ezagutuko duzue Jim McCann!

– Noski, lagun handia dut –isilik geratu da Sean une batez, irribarrez, bere lagun Jimek guri aitortutakoa hausnartzen–. Ez da egia osoa. Gerrako ekintzek morala igotzen duten bezala, prozesu politikoak ere moralari euts diezaioke.

– Armak hartzea eta borroka egitea estrategia politiko baten barruan hartutako erabakia izan zen, eta suetena deitzea estrategia horren barruan gertatu beharreko gauza bat zen. Lehenago edo beranduago, armak utzi eta negoziatzen hasi beharra zegoen.

– Egia da, hala ere, preso batzuk urduri daudela. Denbora gehiegi igarotzen ari da eta gauza gutxi gertatzen. Kontuan hartu behar da, gainera, 1972ko eta 1975eko suetenen esperientzia

txarrak jendearen memorian daudela, eta inork ez du orduan gertatutakoa gertatzerik nahi.

– Nola bizi izan zenuten suetenaren iragarpena kartzela barruan?

– Egia esanda, IRAren agiria irakurtzea shocka izan zen. Urte askotan borroka modu bati lotuta egon, eta borroka modo hori aurrera eramateko dena eman ondoren, borroka armatua bukatu dela irakurtzea eta barneratzea ez da erraza.

Sean hizketan ari zaigun bitartean Padraigek atzera begiratu eta, pasiloan aurrera eta atzera dabilen funtzionarioetako bati deitu dio.

– Tony, utzidazu boligrafo bat mesedez.

Eskua jakaren poltsikora eraman eta boligrafoa atera du zaindariak, presoari emateko. Txokolatina biltzeko paperetako bat hartu du, eta guri luzatu.

– Idatz itzazue zuen izenak paperean. Ahaztu egingo zaizkigu bestela.

Padraigek ez du zaindaria berriro deitzeko beharrik izan. Hiru minutu ez dira pasa Tony boligrafo eske etorri zaionerako. Konfiantza suma-

tu dut presoaren eta zaindariaren arteko harreman laburrean. Tentsiorik ez behintzat.

Ordubete luzea egin dugu Irlandaz hitz egiten, eta Euskal Herriaren txanda heldu dela erabaki du Padraigek. Galdera sorta luzea dute bederen eta, Irlandan oso gutxik bezala, badaukate Euskal Herrian gertatzen denaren berri: zein egoeratan daude presoak han? Independentzia lortzeko zer posibilitate daukazue? Zer joeratakoa da zuen egunkaria? Euskal Herrian interesik ba al dago hemen gertatzen ari denari buruz? ETAk eta HBk zer pentsatzen dute mugimendu errepublikarrek bake prozesuarekin hartu duen bideaz?

Euskaraz baino errazago erantzun ditugu galderok gure ingeles baldarrean. Eskerrak futbolaz ere badakiten.

– Zein taldetakoak zarete?

– Athleticzaleak, biok. Newcastle UEFAtik kanporatu genuen iaz.

– Hori ez al da Howard Kendallek entrenatzen zuen taldea?

– Horixe bera.

– John Toshackek ere euskal talde bat entrenatzen zuen, ezta?

– Reala, bai. Hori Donostiakoa da. Gurea Bilbokoa. Eta zuek, errepublikar guztiak bezala, Glasgow Celticekoak izango zarete, noski.

– Ez, ez, ez...

Barre egin dute biek, eta ez digute aitortu zeinen jarraitzaile diren. Talde ingelesen bat, seguru. Manchester United edo. Futbolak alde guztietan sortzen baititu kontraesanak.

– Ez dizuegu azaldu kartzela barruko gure azken borrokak futbolarekin izan zuela zerikusia...

Estatu Batuetako Futbol Mundu Txapelketaren atarian zirela, gaueko partiduak ikusi ahal izateko baimen berezia eskatu zuten preso errepublikarrek. Gaueko bederatzietan hastekoak ziren norgehiagoka batzuk, eta hamarretako ziega barruan egotea zen legea. Ziegan beranduago sartzeko baimen eskaerari uko egin zion presondegiko zuzendaritzak.

– Guretzat munta handiko kontua zen. Irlandako selekzioa sailkatuta zegoen.

Mundu Txapelketa hasteko astebete falta zela ekin zioten protestaldiari: gauez ziegara joateko ordua heltzen zenean, egongelan bertan geratzen hasi ziren, mugitu gabe. Arrastaka eraman behar izaten zituzten euren ziegetara.

– Bi egun falta zirela, gainera, telebista bat ezkutatu genuen, presio handiagoa egiteko. Merezi izan zuen, lehenengo partidua ikusteko bada ere: Italiari 1-0 irabazi genion. Ikusi zenuten partidua?

Hego Irlandako selekzioaren garaipena ospatzen ari zirela, artean ez zekiten ekainaren 18ko gau hartan bertan UVF talde lealistako komando batek sei lagun hil zituela Loughinisland-eko taberna batean. Irlanda-Italia partidua ikusten ari ziren Barney Green, Eamon Byrne, Patrick O'Hare, Adrian Rogan, Don McCreaner eta Malcolm Jenkinson ere.

Baina nahiago izan dugu bisitaren azken minutuetan kirolari buruz hitz egiten jarraitzea. Joan zen artean futbol gaelikoko Ulsterko finala ikusi genuela esan diegu. Clonesko zelaian, Seanen jaioterrian.

– Telebistaz ikusi zenuten?

– Ez, ez, bertara joanda. Txundituta geratu ginen. Egundoko jendetza.

– Bai futbol gaelikoan bai hurlingean jokalari izandakoak gara biok.

– Baina ezagutzen al dituzue ba arauak? Ulertzen al duzue jokoa? –Seanek egundoko inbidia duela ezagun du.

– Partidua segitzeko adina bai. Ez dituzue arau zailegiak. Joko nahiko primarioa da, ezta?

Ados daude, eta barre egin dute. Atsegin dute irlandarrak astakirtentzat hartzea. Guk inbidia ematen jarraitu dugu, Lee Clegg soldadua askatu ondorengo kale istiluak telebistaz ikusi genituen galdegin digutenean.

– Zuzen-zuzenean ikusi genituen, etxe ondoan bertan gertatu baitziren.

– Non bizi zarete ba?

– Fallsen, Donegall Roadeko bidegurutzean.

– Bai zera! Fallsen? Gerraren erdian, orduan!

Harro gaude, Fallsen bizitzea egundoko balentria bailitzan. Eta bertatik bertara ikusitako denak azaldu dizkiegu, IRAko bi kideak halakoak sekula ikusi gabe baleude bezala.

Gustura entzun digute. Fallseko saltsaren erdian bizi garela jakiteak konfiantza ematen die, antza denez. Ordu t’erdia joan da ordea, eta ordura arte funtzionari pare bat baino ez bazebilen, zortzi batera sartu dira aretora. Beste presoen bisitariak agurtzeko baliatu dituzte Seanek eta Padraigek azken minutuak.

Tomate zopa

Gary McMichael buruzagi nagusiarekin elkarrizketa egin nahi genuela adierazi genuen UDPren (Ulsterko Alderdi Demokratikoaren) egoitzan, baina McMichaelekin baino John Whiterekin egitea hobe genukeela esan zigun prentsa arduradunak.

Entzuna genuen benetako liderra White zela, eta ez McMichael. Honen aita bai, John McMichael alderdiko buru eta estratega izan zen, harik eta 1987an IRAk auto azpian lehergailua jarrita hil zuen arte. John McMichaelek unionismoaren alde bizia eman zuela gogorarazteko jarri zuten alderdi lealistako buruzagi Gary semea, baina White da liderra. Hau elkarrizketatzera sartu gara UDPk Shankillen duen egoitzara, eguerdian baitaukagu hitzordua.

PUPen egoitzatik kilometro erdira dago UDPren egoitza: bost minutu luze oinez. Sinn Feinen eta PUPen egoitzaren antza daukate alderdi lealista honen bulegoek: aholku zentroa du auzota-

rrentzat, eta gai sozialei buruzko afitxak paretetan eta informazio-paperak mahaietan.

Mahaietako batean sinaduraz betetako orriak ikusi ditut, testu baten ondoan: «Hemen sinatzen dugunok preso lealista guztien askatasunaren alde gaude, eta horren alde ekin dezan eskatzen diogu Erreginaren Gobernuari».

New Ulster Defender aldizkaria ere bai. Shankill kalean ikusia dudan mural baten argazkia ageri du azalean: «Bakearen alde askatu presoak. Denok apur bat eman dugu; apur batzuek dena eman dute». Barruko orrialdeetako iragarki txiki batean Michael Stone preso lealistaren posterrak eskaintzen dituzte, 1988ko martxoan Milltown hilerrian telebista kameren aurrean hiru katoliko hil zituenaren posterrak: Michael Stone Ulsterko heroia: Michaelek berak izenpetutako argazki berrienen edizio mugatua. A3 neurriko posterrak 3,95 libra + 30 penike (posta gastuak) edo marko eta guztiko A4 neurriko posterrak 5,95 libra + libra 1 (p.g)».

Tea eta kafea eskaini digute. Horma zuri eta biluziak dituen gelan sartu eta itxoiteko. Ile horidun gizon gihartsua sartu da hamar minutura.

John Whitek alde egin behar izan du azken orduan, eta berak –Kenny McClinton du izena– erantzungo ditu gure galderak.

– Zein da zure kargua edo zeregina alderdi barruan? –bulegariren bat etorri ote zaigun beldurrez egin diot galdera.

– Alderdiko oinarrizko militanteen iritziaren ordezkaria naiz.

Alderdiaren historiaren laburpentxoa egiteko eskatu diogun arren, iruditu zaion hariari heldu dio McClintonek, berehalakoan bere istoriatxo propioa azaltzeko. Hobe.

– Ez da egia, errepublikarrek dioten bezala, katolikoak baztertuta egon direnik. Komunitate protestanteko langile klaseak, kasu askotan, erromatar katolikoak baino gutxiago eduki du. Ni neu Shankillen jaio nintzen, eta gure etxean ez genuen ur berorik. Nik uste nuen hori normala zela. Askok hezi gabe utzi genuen eskola eta talde paramilitarretan sartu ginen, 1970eko hamarkadan. UFFren Shankill inguruetako buruzagi nagusi bilakatu nintzen. Bi hilketa egin nituen, betirako bi kartzela-zigor ezarri zizkidaten, eta 16 urte egin nituen giltzapean. Nire burua hezi

nuen espetxe barruan eta, 1993an askatu ninduten etik, politikan ari naiz.

Ez digu esan, Hutchinsonek bezala, bi hilketa leporatu zizkiotela. «Bi hilketa egin nituen», zirt eta zart. Oso modu berezian mintzatzen da. Automata bat bezala. Gorputza eta burua zurrun, begirada finko, Humbertoren begietan iltzatuta, eta ingeles oso garbian. Irakurtzen ari balitz bezala ari zaigu, ez du esaldirik uzten bukatu gabe. Eta erantzuna amaitu duenean, isilik geratu da, hurrengo galderaren zain.

– Zergatik sartu zinen UFFn?

– Mentalitate militarra neukan, errepublikarrek armen hizkuntza baino ulertzen ez zutela uste nuen. UFFren orduko filosofia garbia zen: terroristei terrorea eragin, terrorismoa geldiarazi terrorismoaren sustraiei eraso eginez, zuzenean jasan zezaten eurek besteei eragiten zieten sufrimendua. Antiterrorismoa zen.

PUPeko Hutchinsonen argudioen antzekoak entzutea espero genuen hemen, baina Ian Paisleyren lagunen oihartzuna entzuten ari gara: «Probintzia honetako indijenak gu gara, ulsterscotak», «nire kultura, Ulster kultura, kultura

gaelikoa baino lehenagokoa da», «gu ez gara, inolaz ere, Irlanda Batuko parte izango»...

– Eta Ipar Irlandako gehiengoak onartuko balu Irlanda Batua?

– Onartuko genuke, demokratak gara. Baina gehiengoak britainiar izan nahi du, eta hori da gure jarrera. Baina inoiz Londresek Irlanda Baturantz bultzatzen bagaitu, gu Erresuma Batuan ez gaituztela nahi erakusten ari baita, pertsonalki uste dut UFFk gerra deklaratuko lukeela Ulster independentearen alde. Eta gu horren alde borrokatuko ginateke. Ulsterko estatu subiranoa. Britainiarrengandik aske eta Hego Irlandatik aske. Irlanda Baturik ez da inoiz izango.

Bietako bat, edo UDP Paisleyengandik hurbilago dago PUPetik baino, edo Kenny McClintonek ez du bere zuzendaritzaren estrategia edo mezuaren berririk. UDP, Hutchinsonen alderdiarekin batera, bake prozesuko elkarrizketetan parte hartzen ari dela jakinik, eta euren argitarapenetan zer dioten irakurrita, bigarren hipotesiak dirudi zuzenena.

Londresko eta Dublingo gobernuek sinatutako agiriaz galdetu dio Humbertok. Agiri horrek Irlanda Batua du helburu, unionistek diotenez.

– Demagun jatetxe batera zoazela eta kamareroak esaten dizula: «Hona hemen menua; nahi duzun zopa aukera dezakezu, beti ere tomate zopa baldin bada». Zuk diozu: «Nik ez dut tomate zoparik nahi!». Eta berak: «Ongi, ez dago arazorik; aukeratu zerorrek, aukera zabala duzu menuan; baina ez ahaztu tomate zopa aukeratu behar duzula». «Baina nik ez dut tomate zopa nahi!». Tomate zopa Irlanda Batua da kasu honetan, eta menua, berriz, Londres-Dublin agiria. Irlanda Baturik ez dugu onartuko sekula. Bizia emango dugu hori gertatu baino lehen.

UFFn eta UDPn bertan omen dauden droga arazoak aipatu dizkiogu. Labur erantzun digu:

– Gizartean dagoen arazoa da. Zuen herrian ere arazo hori izango duzue. Talde lealisten barruan ere bada droga arazorik.

Ez gara ausartu Shankillen *vox populi* omen dena aipatzen, John White alderdiko burukidea droga trafikoan sartua dagoela alegia.

Mintzatu zaigun eran ausrtu gaitu, automata gisa adio esan eta bostekoa emanez. Maze kartzelan preso lealista bat bisitatzeko eskabidea egin dugu irteeran.

IRAko belatza

Segurtasun indar britainiarrek Martin McGuinnessi egozten diote IRAko Ipar Irlandako komandoak zuzendu eta talde armatuko buru izana. Bere etsaiek Irlandako gizonik boteretsuena dela diote ‘IRAko belatza’. *Esquire* aldizkari britainiar famatuak Erresuma Batuko bigarren gizonik boteretsuenetzat jo du, Rupert Murdoch komunikazio handi-mandiaren atzetik.

Unionistek deabruarekin parekatzen dute. Jarraitzaileentzat ordea, heroia da Derryko ilehoria, errepublikarren borroka armatuaren izpiritua gordetzen duena, helburu errepublikarren zaindaririk zintzo eta fidelena. Edozein kasutan, batzuentzat zein besteentzat, Irlandako politikagintzan ezinbesteko erreferentzia da Martin James McGuinness.

Komunitate katolikoaren gehiengoa bizi den Bogside aldeko gain batean dauka Sinn Feinek Derryko egoitza, Rececourse kalean. Hiria erdibitzen duen Foyle erreka ondotik abiatu naiz taxian kalean gora. Aldapa franko igo behar dira

IRAko belatzaren habia atzemateko. Bidearen alboak langileentzat propio eginiko etxe txiroez beterik daude.

Muinora heldutakoan, laino zuri-beltzen gainean gardendu egiten da hiriko dekoratua, eta han, bat-batean nire aurrean zabaldu den ordokian, hiruzpalau eraikin narras besterik ez dago. Belfasteko mugimendu errepublikarraren egoitza ezagututa, ez zait batere kostatu McGuinness eta bere burkideen gordelekua zein den asmatzea: aparkalekuaren parean dagoen etxe isolatua.

Arbelezko teilatu grisak etxeko hormen zuritasuna nabarmentzen du. Alde bakoitzeko paretetan puntu beltzak bezala eskegitzen diren leihoak kontraste distiratsua apurtzen saiatzen dira.

– Egun on. Humberto naiz, *Euskaldunon Egunkaria*koa –Eamonn-ek eta David-ek hartu naute sarreran.

Britainiarren inteligentzia zerbitzuen eta talde armatu unionisten jomugaren habia izateko, segurtasun neurri gutxi hartzen dituztela esango nuke. Ateburuko kamera izan ezik, ez

dut besterik ikusi. Bizkarzain izateko modukorik ere ez.

Eamonn, alderdiko prentsa arduraduna, euli bat bera ere akabatuko ez duen horietako estudiante fin itxurako mutil ilegorria da. Davidek traza hobea dauka: beso itzelak, burua ahari-topekan jarduteko modukoa, soin atletikoa; baina berbetan hasten denean, ahotsaren goxotasunak eta irribarre xaloak, bizkarzain baten aurrean baino, mesfiantza inoiz ezagutu ez duen lagun baten aurrean nagoela ohartarazi didate.

Hiru gela txikiko eraikina da. Kolore eta klase guztietako afitxez beterik dago gortina granate lodi batez apaindutako gela iluna. Eamonn eta David egongela ondoko gelatxoan geratu dira lanean. Espero bezala, luzaz itxaron behar izan dut McGuinnessek ni hartzeko.

– Barkatu, baina beste kazetari batekin ari da, eta ez dirudi berehala amaituko dutenik.

Etengabe joka ari den telefonoaz arduratzen da David. Eamonn ordenagailuan idazten: «Derryko zortzi alderdikide atxilotu ditu Poliziak» ipini du prentsa oharrarentzat izenburua. Eguerdirako Derryko enparantza nagusian enkartela-

da prestatzen ari dira, atxiloketen aurkako protesta moduan.

Hirugarren gelatik gorbata eta trajedun bat irten da, boligrafoa esku batean, kaiera txikia eta grabagailua ezkerrekoan. Itxaronarazi nauen kazetaria izango da. Orain nire txanda.

– Britaniarrek noizbait bakean uzten bagaituzte, izango dugu irlandarrok, gure seme-alabek, protestante zein katolikoek, elkarrekin bizi ahal izateko modua eta gizarte egokia eratzeko gaitasuna.

Irlandako gizonik boteretsuena dela diote bere etsaiek, baina McGuinnessek uharteko gizonik apalenaren begirada du nirekin mintzatzean. Bogside eta Creegan esparru katolikoetan berezkoa den erdi mailako langile katolikoaren hizkera eta joskera erabiltzen du.

– Iragana ez da sekula ahaztu behar, baina etorkizunari begiratu behar diogu. Ni Paisleyri berari ere bostekoa emateko prest nengoke bakearen izenean.

Loretxoz landatutako gorbata ilunak eta alkondara urdinak apurtzen dute McGuinnessen proletario itxura. Ile kizkurra eta horia. Begi urdinak, garai bateko mutil-kozkorraren aurpegikera bere horretan gordetzen diotenak. 1950ean jaio zen Bogsiden, egun bizi den etxetxotik gertu. Sei anai-arrebatan bigarrena. Errepublikarren eredu denaren gurasoak, ordea, ez ziren oso errepublikazaleak, ez gaur Martin den bezalatsu behinik behin. Ama, Peggy, etxeko lanetan aritzen zen; aita, Tom, fundizioan.

Christian Brothers' eskola katolikoan hartu zituen oinarrizko ikasketak Martin McGuinnessek. Hamabost urterekin laga zuen estudiante bizitza. Etxean lagundu beharra zegoela-eta, lan bila hasi zen. Autoak konpontzeko tailer batean irakurri zuen laguntzaile bat behar zutela, baina non ikasia zen adierazi zuenean begien bistatik desagertzeko erantzun zioten. Handik gutxira hasi zen harakin laguntzaile, eta lauzpabost urtez jardun.

– Alde horretatik, kontuak ez dira aldatu. Bogside aldean unionisten nagusitasunak porrot ekonomikora bultzatu du gure komunitatea. Ka-

tolikoen erdia besterik ez den populazio protestanteak botere eremu guztietatik kanpo utzi gaitu urtetan zehar.

Berba gutxiko gizona da. Ez zaio emozio keinurik sumatzen galderarik latzena eginda ere. Burua eta aurpegia erabat bereizita dituela dirudi. Ezkerreko bekainari eragiten dion gora eta beherako mugimendua da ordu t'erdian harrapatu diodan bakarra. Dena mendean duelako sentsazioa daukat. Erantzunak erreskan baina patxadaz botatzen ditu, zuzen eta ozen, argiro baina banitaterik gabe.

Kazetariek *boyish* (mutikotxoa) eta portaera militarra duen gizon konplikatu bezala marraztu dute artikuluetan. Niri sinplea eta argia iruditu zait McGuinness.

– Britainiarrak kanporatzea eta Irlanda Batua dira herri hau bake bidean jartzeko modua. IRAk Irlandan gobernatzeko eskubidea ukatzen dio Gobernu britainiarrari, eta bere esku dagoen guztia egingo du horretarako.

Ipurdia mugitu du jesarlekuaren gainean, eta elkarrizketan lehenengoz bizkarra jesarlekutik bereizi zaio. Begizuloak ere inoizko puztuen be-

gitandu zaizkit. Ni komentzitzeko premian dagoela uste izan dut, eta horregatik bere hitzei, berezko garrantziagatik baino, arreta gehiago ipintzen saiatu naiz.

Gaztetandik fronteko lehen lerroan borrokatu denaren sendotasun keinu sikua azaldu zaio, bere izaeraren ispilu den keinua. 1968-69 urtean, Ipar Irlandako gatazka piztu zenean, aitzindarietakoa izan zen Derryn barrikadak altxatzen eta helburu unionista eta polizien aurka harrika. Gatazkako lehen urteetan gazte suharrak erakutsitako kemena funtsezkoa izan da gero talde armatu errepublikarrean eta oro har mugimendu errepublikarrean daukan posizioan.

IRAko kidea izan dela ukatu egiten du Martin McGuinnessek, baina inork ez du zalantzarik 1971-73 bitartean Derryn aritzen zen IRA komandoko burua izan zela, eta ondoren hamarkada batez IRAko buru operatiboa. Garai horretan errepublikarren lehergailuek Derry hankaz gora jarri zuten, eta orotara 320 lagun hil ziren, horietatik segurtasun indarretako 54 kide.

Hogeita bi urte besterik ez zituela, Gobernu britainiarrarekin 1972an izandako elkarrizketa

sekretuetan parte hartu zuen. McGuinnessekin batera Gerry Adams eta beste bost IRAkide eseri ziren Whitelaw ministroarekin negoziatzera.

1973ko urtarrilean atxilotu zutelarik, Dublinen aitortu zuen epailearen aurrean: «I am a member of the Derry Brigade of *Oglaigh na bEireann* –IRA gaelikoz– and I am very, very proud of it» (Derryko Brigadako IRA kidea naiz eta oso-oso harro nago horretaz).

Bigarren aldi batez ere giltzapetu zuten, 1974an. Kartzelaturik zeudenez, ez berak ez Adamsek ez zuten 1975ean IRAk eta Gobernu britainiarrak izandako elkarrizketa sekretuetan parte hartzerik izan.

1982ra arteko IRArekiko lotura organikoa salatzen diote segurtasun indarrek. Urte horretan hasi zen politikagintzan. Eta hala ere, mundu guztiak hartzen du IRAko burutzat.

Arerioen jomuga izan da belaunaldi batez. Eta oraindik ere bere burua arriskuan sentitzeko arrazoi nahikoa badu. Bizitzaren zoko guztiak miatu eta arakatu izan dizkiote. Etxetik kanpo, harreman eta topaketa guztien atzean informadore baten traizioaren mehatxupean bizi da.

Etxean, dendan, mitinean... Zelatan dauka beti herio.

– Goizean esnatzen naizenean ez dut horretan pentsatzen. Ahalik eta bizimodu normalena egiten saiatzen naiz. Ezin izango nuke bizi, zabalduko dudan hurrengo atearen atzean nire heriotza egongo delako obsesioarekin.

Harrokeriarik gabe esaten ditu McGuinnessek, besteen ahotan balentria eta arduragabekeriatzat har litezkeen hitzak. Ezen, zerbait soberan baldin badauka, zuhurtzia eta heldutasuna baitira.

«Aita eta senar ona da Martin» esan zuen behin Edward Daly, Derryko gotzaina izandakoak, gatazkaren auzian McGuinnessen aurka beti hitz gogorrak erabili dituenak. «Elizarakoan piper egiten ez duenetakoa da. Pertsona zintzoa dela sinesten dut. Alabaina, biolentzia kontuetan ez nator Martinekin bat. Niretzat inmorala eta hutsala da biolentzia, berarentzat aldiz moralki justifikagarria. Baina inork ez luke Martin McGuinness gutxietsi behar. Gaitasun handiko gizona da, trebea eta abildade politiko handikoa».

Halaxe izango da. Baina akats bat aurkitu berri diot: McGuinness jaunak, abizenaren zati nagusia Irlandako garagardo preziatu eta ederrenarena izan arren, ez du guinnessik edaten. Ez guinnessik ez bestelakorik.

Europako hotel bonbardatuena

Opari batzuk erosteko asmotan joan gara Belfast erdigunera, eta bide batez *Egunkaria*-rako Martin McGuinnessen elkarrizketa faxeatzera. Europa Hotela nabarmentzen da edifizioen artean. Ziur aski hiriko eraikin garaiena: hogeita hamabost bat solairu ditu. Aurrea ispilu berdez egina, atariko atea birak ematen dituen horietakoa, hamaika masta beste horrenbeste banderez jantziak: Britainia Handikoa, Estatu Batuetakoa, Frantziakoa, Australiakoa, Espainiakoa, Japoniakoa... Kuriosoa: Irlandako hirukolorekoa falta da, gutxienez. Mila gelatik gora bide ditu Europako hotelik bonbardatuena izan den Europa Hotelak.

Jon Mikel gasteiztarrarekin gogoratu naiz. Lau urte daramatza lanean Belfasten. Gaur egun postari dabil, baina aurretik Europa Hotelean jardun zuen, sukaldean. Euskal Herrian lan aproposik aurkitu ezinik, maletak egin eta bidaia txarte-

lik merkeena hartuta abiatu zen Belfastera. Iaioa da hizkuntzekin, eta ingelesa segituan menderatu zuen. Gaelikoak tentatu zuen ondoren, eta harrezkero gaelikoduna da Jon Mikel. Alemanerarekin borrokan ari da orain.

Euskalduna izaki, Jon Mikelek ez luke Belfasten arriskurik izan behar. Baina katolikoen auzune batean bizi eta lagun errepublikarrekin ibiltzen denez, nahikoa arrazoi bada unionisten betoa eta diskriminazioa jasateko. Izan ere, Europa Hotelean ez dituzte lanerako onartzen jatorri katolikoa daukatenak. Lanbide debekatua da, Falls auzuneko bizilagunentzat batez ere.

Kontua da, hala eta guztiz Jon Mikelek sukaldari lantxoa lortu zuela Europa Hotelean. Eta lanean hasi eta gutxira hasi zela IRAko bonba mehatxuen berri izaten. Batzuetan mehatxuak baino ez, besteetan benetako lehergailuak. Giro errepublikarrean bizi denak, arinago edo beranduago, IRA inguruko jendea ezagutzen du, edo zuzenago esateko, haiek zu ezagutuko zaituzte.

– Jon Mikel –abisatzen hasi zitzaizkion–, hobe izango huke gaur makal jartzea eta lanera ez joatea. Har ezak baja gaurkoz.

Eta Jon Mikelek baja hartzen zuen lehergailu egunetan.

Salatariak

– Dia duit, a Pat. Cad e mar ata tu? (Zer moduz?) –Culturlannen Pat Ricerekin topo egin dut.

– Ceart go leor, a Humberto (Ongi). Ar mhaith leat cupan caife? (Nahi al duzu kafe bat?).

– Nior mhaith, go raibh mhaith agat (Ez, eskerrik asko). Teim go dti Glor nGael ar scoil anois, foghlaimim Gaeilge (Orain Glor nGael eskolara noa, gaelera ikasten).

– Goitse agus suigh sios (Etorri hona eta jesarri). Labhair Gaeilge linn (Gugaz jardun gaelikoz).

Eta klasera piper egitea deliberatu dut. Sandwich eta kafearekin bazkari legean, Culturlannera azaltzen ari diren lagunak aurkezten dizkit Pat Ricek. Sandwicharen azken pusketak irensteko-tan nagoenean, seriostu egin zaio berezko begitarte bihurria.

– Dia duit, a Pat –agurtu du gizon txapar batek–. Nola joan zen Ormeau Roadeko protesta ekintza?

– Badakizu, arazo txiki batzuk Poliziarekin, baina besterik ez. Arrakastatsua izan zen, telebistan eta prentsan oihartzuna izan baitzuen.

– Atxiloketarik?

– Bat: Marie. Baina hiru orduren buruan utzi zuten aske.

– Ederto. On egin.

– Slan (Agur).

Aldartearen mudantzaren arrazoiak eskatzeko irrikitan egon naiz, baina ez dut premiarik izan.

– Fergus da. Benetan gizon jatorra eta zintzoa! Nire txoferra izan zen, alderdiak jarritako txoferra. Errepublikarra goitik behera. Duela lau urte IRAk hil egin zuen bere semea, Fergal, salataria zelako. Hala ere, Fergusek tinko eusten die printzipio errepublikarrei.

Armagh konderriko Crossmaglen herrian hil zuten Fergal. Atzo izan balitz bezala kontatzen du Patek, nahigabez eta tristuraz, baina serenitatez.

Ballymurphy inguruko auzune pobre batean jaio zen Fergal, sei anai-arrebetan hirugarrena. Gazte zelarik jaurti zituen lehen harriak eta mo-

lotov koktelak Armada britainiarreko patruilen aurka, bere gurasoek egin izan zuten bezalatsu. Fergalek gogor jokatu zuen Irlanda Batuaren aldeko borrokan hogeita bost urtez, harik eta Special Branch delako RUCeko inteligentzia zerbitzuen esanetara jarri zen arte. Haren hiletetan senitartekoak eta lagun apur batzuk besterik ez ziren bildu.

Ipar Irlandako sei konderrietako gatazkaren azken hogeita bost urteetan berrogei bat errepublikar exekutatu ditu IRAk. *Informer*-ak dira zerbitzu sekretu britainiarren tresna eraginkorrenak errepublikarrak zapuzteko. RUC Poliziak erabilitako informerren artean izan dira komunitate protestanteetako unionistak, eta baita M15 inteligentzia zerbitzurako lan egin duten soldadu britainiar zenbait ere, baina aukeran nahiago dute arerioaren komunitatekoa baliatzea, zailagoa baita infiltrazioa atzematea.

IRAko gizon-emakumeak komunitate hertsi samar batean bizi eta hazten dira; elkarrekin edaten dute, elkarrekin altxatzen dituzte barrikadak eta elkarrekin ezkontzen dira gehienetan.

Mataza horretan ia hari berdineko orratzak baino ez dira sartzen, aldamenekoak ohartu gabe.

– *Tout* esaten diegu salatariei. Polizia edo Armadako inteligentzia zerbitzuen presio fisiko eta psikikopean jokatzen dute mugimendu errepublikarraren aurka, ez borondatez. Txantajea egiten diete, eta emaztearen bizia salbatzeko egiten dute traizioa.

– Euskal Herrian ere gertatu izan da horrelakorik –lortu dut sandwicharen azken muturra irenstea.

– Eurek ez daukate presionatuak izatearen errurik. Halakoetan, IRAk lehenbailehen erakundera jotzeko aholkatzen die txantajeatuei, babesa bermatzeko lagunari eta bere sendiari.

Behinola bi IRAko kide *tout* bat zaintzen ari zirelarik Andersonstown auzuneko etxe batean, hura hiltzeko erakundeko zuzendaritzaren agindua zain, informerrek ihes egitea lortu zuen. Harrezkero ez dabil trufa besterik lealisten artean. Honela dio txisteak:

– IRAk informer bat harrapatu berri du. Heriotzara kondenatu dutelarik, zein da zigortuaren azken desioa?

– Azken zigarroa erretzen dudan bitartean, Andersonstowneko komandoak zaindu nazala!

Gobernu madarikatuak

UDP alderdi lealistak Shankillen daukan egoitzan geratu gara, preso lealisten zuzendaritzarekin hitz egiteko Mazeko presondegira eramango gaituen autoa hartu asmoz. Gu egoitza barruan ikusi bezain agudo, Jim Doffy-k, alderdiko prentsa arduradunak Michael Stone elkarrizketatzeko beta izango dugula adierazi digu.

Stoneren izena entzun baino ez, eta autobusa noiz etorriko zain dagoen nerabe morroskoak bere heroiaren birtuteak lau haizeetara zabaltzeari ekin dio:

– Hori bai gizona! Monumentua eraiki behar litzaioke hain borrokalari ona izateagatik. Gustura luzatuko nioke bostekoa.

Michael Stone *Stoner* lealisten heroia da. Hogeita hamabost bat unte besterik ez dituen arren, errepublikar gehien akabatu dituen borrokalaria izateak komunitate lealistaren miresmen eta begirunea ekarri dio. Shankilleko kirol dendetan, futbol taldeen bufandetan irakurriko duzu Michael Stoneren izena. Pin-ak ere egin dituzte.

Alde katolikoan, aitzitik, izua sortzen du, heriotza desiratzerainoko gorrotoa.

Nerabeak bere ametsetako heroiaren dohainak kantatzen ziharduelarik etorri dira autoak. Bi furgoneta handitan abiatu gara preso lealistak bisitatzera goazen taldea. Atzeko Ford zurian sartu gara Imanol eta biok, senitarteko eta lagunentzat nahikoa leku badagoela ziurtatu ondoren.

Preso errepublikarrak bisitatzera joan ginenean bezala, emakumezkoek eta hauen semealabek osatzen dute taldearen ardatza. Bi edo hiru astero legez, senarra edo laguna ikustera doazen andrazkoak eta neska-mutil koskorrak dira gehienak.

Txoferraren aldamenean doanak titiko umea daroa altzoan, aieneka; segur aski gaur hartuko ditu bere aitaren laztanak eta musuak lehendabizikoz. Edadetu burusoila ere badago gure txangokideen atzean. Isilik egin du bidea, semeari zer esango ote dion pentsatzen, leihotik begira. Neuk ere haren begien arrastoari segitu diot, eta orduantxe erreparatu dut, Shankill atzean utzi eta pasabide iluna gainditu ostean, Fallsetik go-

rako bidea hartu duela autoak. Inor ez konturatzeko moduan, kaskoak kokotean sartzen saiatu gara, leihoaren bestaldetik inork ikusi eta ezagutu ez gaitzan lealisten aterbe berean.

Gorabehera honetaz gain, txango arras isila eta lasaia izan da. Berbarik ez, ezta irribarre keinurik ere. Furgoneta barrukoen begiraden lengoaia biluzi baina eztia giroan, kartzelara ailegatu arte.

Aurreko astetik ezagutzen genuen prozedura bera jarraitu dugu kartzela barrura sartzeko:

– Nor bisitatzera zatozte?

– Michael Stone.

– Kazetariak zarete ezta? –diosku baimenez arduratzen den RUCeko poliziak–. Mundu guztiak *Stoner*en istorioak zuzenean entzun nahi ditu. Baina uste dut gaur ez dela zuen zorioneko eguna. BB 3344 presoak ez du gaur inor hartuko.

– UDPko bulegoak gaurko prestatu du Michael Stoneren eta gure arteko zita.

– Ezinezkoa da. BB 5015 eta BB 306 preso lealistekin hitz egiteko aukera izango duzue.

Derrigorrezko miaketa jasan ondoren –lastima!, gaur ere ez gara ausartu boligrafoa eta

paper puska barrabiletan edo zapata azpian gordetzen–, lehendik ere ongi ezagutzen dugun itxaron gelara eraman gaituzte.

Ordura arte isilik eta bare egon direnak, artega samar sumatu ditugu. Gure aurrean jesarri diren bi emakumezkoak bereziki. Ilehoriak hogeita bost urte izango ditu. Panpoxa. Areago barre egiten duenean. Alabaina, hiru berbatik lau biraoak dira. Alkandora leuna, gorria, fraka bakeroak, kurbak ondo markatzen dituzten horietakoak. Berarekin bekatu kontuetan dabilena berriz, neska-motza da, 90-90-90! neurriko topmodela, barre egiten duenean bazter guztiak inarrosten dituena. Baldarra bezain orijinala, dudarik gabe umore onekoa. Ilehoriaren ipurdiaren egonezinak txiki-txikia uzten du berez luzea den banketa.

Gainerako lau bisitariei, haien ‘bekatuaren’ konplize itxura antzematen zaie. Halaxe hitz egiten dute euren aurpegiek. Ohituta egongo dira honelako egoeretara eta, egia esan, bi sorgintxo haien artekoa zertan datzan ondo baino hobeto jakingo dute. Kaiku aurpegia geratu zaigu guri,

baina itxarorialdia arindu du behintzat bi andrazkoen gorabeherak.

Poliziak bisitatzera goazen presoen zenbakiak ahoskatzearekin batera, mekanikari baten moduan jantzitako gizon bat sartu da gelan. H blokeetaraino eramango gaituen furgoneta gidaria da.

Ziegatara iritsi arteko bidea erdi ilunean egin dugu, fluoreszente apal baten argi mehea besterik ez. Isilik, baita bikote alaia ere. Lau minutu t'erdiko txangoa izan dela dio Imanolen erlojuak.

Ziega atariko itxaron gelara sartu den poliziak argitu du solaskideen nortasunaren inguruko gure kezka:

– BB-5015, Bobby Philpott; eta BB-306, Samuel McCrory.

Korridore bat igaro dugu poliziak gidaturik. Beste kontrol bat, non bi agentek txartelak eskatu dizkiguten. Azkenean eraman gaituzte bisita gelara. Argia da, pareta zuriak, edo krema kolorekoak, kriseilu zuri-horiak, jesarleku hotzak. Lauzpabost polizia berriketa arinean, gelako izkina batean. Beste bat izenak kantatzen korridorean. Korridore alboetan zortzina txoko bisita-

rientzat, bakoitzean sei lagunentzako lekua, zortzirentzat estutuz gero. Gure aurretik sartutakoei dagoeneko agertu zaizkie euren preso lagunak: aita, emaztea, amorantea... komando kidea. Auskalo.

Gure emakumezko bikote xelebrea ere han dago, zelatan, tripazorriak sosegatu ezinik. Ipurdiari eta gerriari mugimendu bitxiak eragiten. Polizia txatxua urrutiratu denean, ilehoriak ipurdira eraman du eskua, besteak bere gizenekin ezkutatu eta babestu duen bitartean. Zorionez, kontrako ertzean gaude, eszena palkotik kontenplatzeko moduan. Fardeltxoa atera du motxinetik, inork ikusten ez duelakoan. Barruan zer dagoen jakiteko urrutiegi gaude. Mutilarentzat opari bereziren bat.

Ikusitakoagatik oraindik txundituta gaudela,. korridoretik bi lagun datoz guganantz. Txikia eta biboteduna aurretik datorrena; atzekoa berriz, boxealari mardula, masail gorri eta haragitsukoa. Berehala jakin dugu gure solaskideak direna. Gure aurrean jesarri dira, beste barik. Txaparra, Imanolen aurrean; kankailua, niri arnasa zuzenean botatzeko moduan.

– Kaixo, zuek zarete kazetari espainiarrak, ezta? –bibotedunak bere burua salatu du bozeramailetzat.

– Euskaldunak gara. Eta zuek preso lealisten zuzendaritzakoak.

– Halaxe da. Ni Bobby Philpott eta hau Samuel McCrory. Gurekin batera Michael Stonek eta beste laugarren batek osatzen dute presoen zuzendaritza. Mundu guztia bezala, *Stoner*ekin berba egitekotan etorri zarete, baina gu biokin konformatu beharko duzue.

Milltown hilerriko gertakariaren ondorioz egin zen ezaguna Michael Stone. 1988ko martxoak 16 hartan Gibraltarren hildako hiru IRAkideen hiletak ospatzen zirela eskuzko granada jaurti zuen hilerrian bildu zen jende multzo artera. Atentatuan hiru lagun hil ziren eta 50 zauritu.

Dublinera eramaten duen errepideari begira dago Milltowneko hilerria. Alanbrezko hesi mehe batek eta zelai belartsuak finkatzen dute kanposantuaren eta errepidearen arteko muga. Bide hau aukeratu zuen Stonek, egoera hartatik bizi-

rik atera ahal izateko, segika zuen errepublikar saldo amorratuaren arnasa geroz eta gertuago sumatzen zuen bitartean. Ihesean, beste hiru granada bota zizkien Stonek atzetik zetozenei. Jende multzoak *Stoner* atzematea lortu zuen, errepidean jadanik, baina lintxatzeko zorian zegoela hanka egitea lortu zuen eta, ihesaldian errepublikarrak berriro gainean zeuzkanean, Poliziaren eskuetara iritsi zen. Bizitza salbatu zioten.

Gerora jakin denez, bakarrik eta inolako laguntzarik gabe sartu zen Stone Milltownera. Hilotzak Fallsetik barrena hilerrira arte egiten ohi duen oinezko segizioa egin zuen Stonek berak ere, milaka errepublikarrez inguraturik. Ez zuen mozorrorik jantzi bere bigote beltza eta ile luze kirrua ezkutatzeko. Betaurreko beltzak besterik ez.

Hilerrirako bidean pertsona batek ezagutu zuen, eta baita agurtu ere. Garai batean lankideak izan omen ziren, baina sekula jakin ez diren arrazoiengatik ez zuen Stone salatu. Bere izena ahoskatu bezain agudo, erraiak txikitu arte ostikoka erabiliko zuen mundu guztiak, berak lehen-

dik errepublikarrei egindako samin eta heriotzen ordainean.

*Stoner*ek berak aitortu duenez, ez zituen ekintzaren xedeak bete eta «porrot latza» hitza erabili du egun hartakoa definitzeko. Gerry Adams, Martin McGuinness eta Danny Morrison Sinn Feinekoak ziren atentatuko jomugak. Baina akatsik gabekorik ez dagoenez, unionisten gudaririk trebatuenak ere noizbait izan behar du hutsen bat. Granadari eraztuna kendu eta itsumustuan jaurti zuen lealisten heroiak. Lehergaiak airean egin zuen eztanda. Leherketaren eragina lurrean egin izan balu baino askoz ere murritzagoa izan zen. *Stoner*ek soberazkotzat jo zituen hiru segundu. Eraztuna kendu eta granada bota aurretik hirukoa zenbatu izan balu, Sinn Feineko buruzagitzak izen eta aurpegi berriak izango lituzke gaur egun.

– Soldadu ona *Stoner,* oso ona –Philpottek ez du huskeriatan denborarik galtzen eta zuzen heltzen dio solasari. Beste Armada baten. aurkako gerran sartuta gauden soldaduak gara hemen giltzapeturik gaudenak eta hor kanpoan borrokan dabiltzan lealistak.

Batak zein besteak behin eta berriro azpimarratu digute soldadutzat dituztela euren buruak, gerran diharduten soldadutzat.

– Eta gerran, etsaia hiltzeko edo norberaren bizia galtzeko prest egon behar da.

Philpottek eta McCroryk, biek aitortu digute jendea hil izan dutela, euren komunitatearen defentsan beti ere.

– Norbait hiltzeak erabat aldatzen du pertsona –Philpottek esana buruaz baietsi du McCroryk–. Norbait hiltzen duzunez geroztik beste era batera pentsatzen duzu, beste era batera sentitzen duzu... Gatazkaren aurrean beste jarrera bat daukazu, besteen biziarekin jokatu izan baduzu.

– Enfrentamenduarekin bukatzeko gogoa?

– Jakina! Ez da samurra inor hiltzea. Ezta inor hil duzula jakinda bizitzea ere.

Hilketak.hizpidera atera direlarik, gogoratu diegu talde lealisten atentatuak sektariotzak jotzen direla. Indiskriminatuak direla, alegia.

– Ez da egia. IRAk komunitate protestanteari eraso egiten dionean, komunitate katolikoa helburu militar bihurtzen da osotasunean. Errepu-

blikarrei erakutsi behar diegu, eurak gure komunitateari min egiten baldin badiote, euren komunitateak neurri berean jasango duela min hori. Helburuak ongi aukeratzen ditugu. Ez dira atentatu sektarioak, beraz.

Mutil garaia da Samuel McCrory. 30 urte. Esku gihartsuak, sorbalda zabalak, baloi-tripa gerriaren gainetik irten nahian. Buru galanta du Shankilleko lagunak, gorputzaren parekoa. Leporik ez. Burua eta lepoa pieza batekoa. Eta batez ere, tatuaje mordoska. Nabarmenena, aurpegian daukana! Ezker aldean, begiak, belarriak eta ahoaren ertzak osatzen duen triangeluan: putrea, ezpata eta eskudoa, kolore bizikoak.

Hamasei urteko kartzela-zigorra du McCroryk. Hilketa saioagatik dago giltzapeturik 1992tik. Lehendik ere bi aldiz Maze presondegian izana, bietan hilketa saioak leporatu zizkioten, baina bietatik kondenarik gabe irten zen, hilabete batzuk espetxean eman ondoren.

McCroryren parean txikerra da Bobby Philpott. 30 urtetik gora izango ditu Belfasteko iparrean dagoen Lisburn-ekoak. Txaparra bai, baina ez biguina. Begirada zorrotza, ahots lodia eta

masail puztuak asma daitezke ile gutxiko kasko azpian. Nerbio hutsa, sugandilak baino azkarragoa mugimenduetan. Hitz egiteko eskuak mahai gainean jartzen ditu eta atzaparrez katea egiten du. Besoak agerian, ezkerrekoan, ukondoaren parean orbain zabala dauka. Haragi puska ederra falta zaio, besagaina eta besazpiarekin alderatuta mehegia da ukondo aldea. Hari lotu dizkiogu begiak.

– Garbitzera nindoan errepublikarrak aurrea hartuta, tiro egin zidan –irribarre harroa agertu du Philpottek–. Ordutik nago gatibu. Bederatzi urte gehiago eman beharko ditut hemen, gauzak aldatzen ez badira.

UDA/UFF talde armatuan ardura handia izandako gizona dela argi utzi digu Philpottek, nahiz eta ezer berezirik zehaztu ez.

– Oso gazterik hasi ginen mugimendu lealistaren borroka armatuan. IRAk poliziei, eta oro har gure komunitateari erasotzen dionez, gure sendia, gure lagunak eta auzotarrak defenditu beharrak bultzatu gintuen honetan sartzera.

Errepublikarren aurkako defentsan ezezik, komunitate barruan ere lan handia egindakoa

dela adierazi digu Philpottek. Katolikoen artean IRAko kideek bezala, protestanteen artean lealistek polizia alternatiboaren papera betetzen baitute.

– Etxeren batean lapurrak sartu eta telebista eramaten bazuten, ez pentsa auzotarrak RUCeko bulegora deitzen zutenik. Niri deitzen zidaten etxera, erakundeak neurriak har zitzan! Egunero hogeiren bat telefono dei izaten nuen, auzunean hau gertatu zela eta beste hura gertatzen ari zela. Auzune pobreetan ordena pixka bat izango bada, talde paramilitarrok jarri beharra daukagu.

– Poliziak eta Armada britainiarrak errepublikarrak hiltzeko laguntza eta informazioa ematen dizuela esan ohi da.

– Bai, egia da gure borrokarekin identifikatzen diren soldadu eta polizia asko dagoela eta gurekin batera borrokatu direla. Hori hortxe dago eta ezin ukatu. Normala da norberaren azala arriskuan jartzen duenaren kontrako defentsan edozein baliabide erabiltzea.

Brian Nelson militar britainiarra izandakoa da honetan ezagunena. Hamar lagun hil eta beste hamasei hiltzeko agindua emateagatik hamar

urteko kartzela-zigorra ezarri zioten 1992an. Errepublikarrei buruzko informazio ugari zuen eskura Nelsonek bere lana zela-eta. Baina soldadu izateaz gain, UDA/UFF talde armatuko inteligentziako burua ere bazen Nelson.

1988ko urtarrilean itsasuntzi bat ailegatu zen Ipar Irlandako kostako leku ez jakin batera. Untzia Hego Afrikatik zetorren, armaz beteta. BBC telebista publiko britainiarrak adierazitakoaren arabera, inteligentzia zerbitzu britainiarrak babestu zuten lealistentzat armak zekartzan itsasuntzia. Brian Nelsonek armen erosketaren operazioarekin zerikusia izan zuen. Eta paramilitar lealistan hiltzeko gaitasuna izugarri handitu zen arma hegoafrikarrak eskuratu ondoren.

– Poliziak eta Armadak gutxienez erdian egon beharko zuketen. Gainerakoa, gerra zikintzat jotzen da –zehaztapena egitera ausartu naiz.

– Gauza bat esango dizuet. IRAri ere eskaintzen dio gero gure jendearen kontra atentatuak egiteko informazioa, batez ere borroka armatuan gabiltzanon informazioa. IRAk akabatzen bagaitu, lana arintzen diete segurtasun indarrei, eta eskuak zikindu barik.

– Sinesgaitza bada ere, mugimendu errepublikarraren inguruko jendea eta gure jendea oso antzekoak gara. Horixe da Ipar Irlandako gatazkaren alderik garratz eta tragikoena. Antzeko bizimoduak, arazo berdintsuak, guztiok ere auzune pobreetakoak, etxe eta egoera kaskarretan. Azken finean, bai eurak bai gu langile klaseko gizasemeak gara, baina...

Bake prozesuarekin erabat konprometituta daudela adierazi nahi digute. Eta inor kritikatzekotan, Gobernu britainiarra eta alderdi unionista nagusiak kritikatzen dituzte.

– Gatazkari irtenbidea emateko prozesuaren aurka ari dira alderdi unionistak, eta talde lealistak zeharo baztertuta dituzte, nahiz eta isilean sostengatu izan. John Majorrek, Ipar Irlandako komunitate protestanteari bizkar emateaz gainera, presoak askatzen hasteko urratsik ez du eman. Lotsa gutxi behar da, Lee Clegg soldadua askatu bai, baina beste guztiok barruan uzteko!

– Eta zer sentitzen duzue Dublinek IRAko hainbat preso askatu dituela ikustean?

Bake prozesuak aurrera egiten duen heinean, preso errepublikarrak pixkanaka askatzen haste-

ko erabakia hartuta dauka Dublingo Gobernuak, eta zigor txikienak zituztenak askatu ditu dagoeneko. Hego Irlandan preso lealistarik ez dagoenez, eta Londresek Clegg soldadua baino askatu ez duenez, preso protestanteek ez dute bake prozesuaren onurarik ezagutu.

– Primeran! Oso ongi iruditzen zaigu Dublinek IRAko presoak askatzea. Bake prozesua sendotzen ari den seinalea da.

Txirrinak moztu du gure solasa. Joateko tenorea. Bobby eta Samuel zeozer esan guran geratu direla sumatu dugu, eta ez dute altxatzeko keinurik egiten, poliziak azken abisua giman digun arren.

– Eta Euskal Herrian zelan zaudete? –McCroryk, beti bezala begiak zuloetatik irten beharrean.

– Tira, ez ondo –guk biok batera.

– Gerra zikinaz baliatu da Estatu espainiarra euskaldunak akabatzeko. Gobernu madarikatuak! Beti berdin!

Up the RA!

Saoirse preso errepublikarren senideen elkartearen protestaldian parte hartzera etorri gara berriro ere Long Kesh kartzelara. Xume eta baketsua izango zela ohartarazi zigun Malachyk bart, eta hala izan da. Berrehun bat lagun bildu gara, lazo berdea paparrean guztiok. Atarian hiruzpalau itzuli eman ditugu, presoen aldeko leloak bozgorailu eta guzti oihukatuz, eta preso-ohi zenbaitek elkartasun adierazpenak egin dituzte hitzaldi laburretan. Poliziek baino ez dute ikusi protesta –ikusi ezezik bideoan grabatu ere bai, errepublikarren ekitaldi guztiekin egin ohi duten bezala–, baina presoek elkartasun mezua jaso dutelakoan gaude.

Protesta ekitaldia bukatu eta Eric eta Malachyrekin sartu gara autoan. Presoak bozina festa zaratatsuarekin agurtu eta karabanan abiatu gara Belfastera. Kartzela irteeran zain izan dugu bideo kamera: autoen matrikula zenbakiak eta kotxe barrukoak filmatzen ditu lotsa-

gabeki Poliziak. Ohituta daude gure lagunak. Ez dute bederen protestarik egiten.

– Material ederra biltzen ari dira hauek, suetena hausten denerako. Horixe egin behar dut nik ere! –eta argazkia atera dio Humbertok polizia kameradunari, lotsagabe.

– Gu biontzako ere apal bana izango dute honezkero polizi artxibategian –barre egin dut, kanpotarra izateak ematen duen lasaitasunarekin.

Ericek eta Malachyk ere algara batean barre egin dute espetxe irteerako azken poliziaren paretik pasatzean, leihoa zabalduz euren oihu maiteena ahalik eta ozenen bota ondoren:

– Up the RA! Up the RA! –«Gora IRA» beharrean «Gora RA» esaten dute. Gora Armada Errepublikarra. Irlandakoa dela jakina baita.

Poliziak ez du keinurik ere egin. Autoa oso poliki zihoanez erraz geldiaraz zezakeen, baina libre da, itxuraz, «Gora RA» oihukatzea. Autobiderako kilometro parea egin baino lehenago hasi dira ordea arazoak: Poliziaren land-roverra atzetik etorri eta karabanako hirugarren kotxea geldiarazi du, trikolorea –Irlandako bandera– airean daramalako. Denok gelditu gara, zer gerta ere.

Gidariarengana hurbildu da polizia, bi hitz esan dizkio, eta tiraka bandera irlandarra kendu eta land-roverrera eraman du.

– Denak autotik kanpora!

Estreinako ilaretako lagunek egindako orroei kasu egin eta berehala polizien inguruan jarri gara. Isilik baina poliziei presio eraginkorra eginez. Hamar minuturen buruan itzuli diote bandera jabeari, ez gehiago aireratzeko aginduz.

Autobidean sartzearekin batera hasi da festa: lehenengo bost kotxeak errenkadan jarri, orduko 10 kilometroko abiadara jaitsi eta dozena bat bandera irlandar dantzan jarri dituzte, bozina zaratatsuen doinuan. Minutu gutxiren buruan, egundoko ilarak sortarazi eta Polizia lanean jarri dugu berriro. Bigarren errenkan dago gu lauron autoa eta urruti ikusten ditugu land-roverrak, karabanaren atzetik aurrera hurbiltzen, oso pixkanaka.

Ikuskizunak merezi du: polizi-autoak eginahala guztian aurreraino heldu nahian ari dira, baina geure kotxeez, lotsagabe, bidea ixten saiatzen gara. Land-roverra ezkerretik aurreratzen saiatzen bada, aurreko autoak ere ezkerre-

ra egiten du kolpe batean, eta eskuinera egiten badu, berdin eskuinera. Land-roverretakoak ez daude etsitzeko, eta borroka latza gertatzen ari da.

Bideo kamerak ere ezin hutsik egin, eta atzean datorkigun land-roverretako baten gainean dator Spielberg, lehendik ere filmatuak dituen autoak eta bidaiariak berriro filmatzera. Gorriak pasatzen ari da, hala ere, batere segurita-terik gabe baitator ibilgailu gainean eserita, irrati-antena hankartean duela. Kotxeak aurreratzeko maniobra bihurrietan ia hankaz gora erori zaie kameraduna, behin baino gehiagotan.

Errepide ertzetik aurrena, kotxe arteko zirrikitua zabalaraziz gero, gure errenkaren gibeleraino iritsi dira azkenean lau land-rover, gainean kameraduna daramana barne.

Eric eta Malachy ez daude aukera galtzeko prest:

– Ikusi al duzu bideoduna nola datorren? Bizkortu dezagun abiada!

Keinuak baliatuz ados jarri dira aurreko hamar autoak: «Orain!». Eta zapaldu dute azeleragailua: hamabost, hogei, hogeita hamar, be-

rrogeita hamar, laurogei, ehun... berehala jarri gara orduko ehun eta hamar kilometroko abiadan. Lehertzekotan behar du aurreko taxi beltzaren motorrak, baina eusten dio.

Spielbergen lagunek ere ez dute larikidearekin errukirik izan eta ziztu bizian datoz gure atzetik. Estu eta larri dator kameraduna, baina grabatzen segitzen duela dirudi, balantzaka bada ere.

Ni estutzen hasi naiz. Humbertori adierazi diot kezka:

– Ez dute, bada, orain kolpetik galga zapalduko?

– Kapazak, hauek!

Baina ez dira hainbestera ausartu, eta poliki mantsotu dugu abiada. Polizi ibilgailuek euren ahaleginari berrekin diote, eta lortu dute karabanaren aurrean jartzea. Zertarako hainbeste ahalegin? Euren atzean daukate orain autobidearen zabalera osoa oztopatzen duen karabana, eta ez dakite zer egin. Land-rover gehiago heldu dira apurka, ordubete iraun duen ikuskizunean.

Autobidea bukatu da, eta kontrola jarri dute irteeran. Lehen lerroko autoaren gidariarekin

hitz egin eta agiriak eskatu dizkiote. Segituan utzi diote aurrera egiten. Gainerako kotxeak gelditu gabe pasa gara kontroletik, makal-makal eta banan-bana, oraindik lanean ari den kamerak ongi harrapa gaitzan.

Ericek ez du aukera berria galdu, poliziak parez pare eta kamera berari begira eduki dituenean:

– Up the RA!

Fallsera bozina joka sartzen ari garelarik, irratian entzun dugu presoen aldeko ekitaldia egin dutela errepublikarrek Maze kartzelan, eta autobidea oztopatuta eduki dutela luzaroan.

– Oso ongi! Bete dugu helburua!

Gerra ez da irrati bat

Culturlann zentro gaelikoko kafetegrn behin eta berriro begiratu bai, baina Bernardette McAliskey-ren aztarrenik ez dugu atera. Gazteagoa zeneko argazkietatik ezagutzen dugu McAliskey, baina kafetegi osoan emakume heldurik ez denez, ez zen oraindik iritsiko. Eguraldi ona dago eta atarira irten gara jarai batean horren famatu izandako politikari errepublikarrari itxoitera.

Jende ugari dabil Culturlannen sartu-irtenean, Belfast Mendebaldeko Festibal hasi berriaren batzorde antolatzaileak bertan baitauka egoitza nagusia. Ez dugu Bernardette McAliskey izan daitekeen inor ez sartzen ez irteten sumatu.

– Ez da ba horietako bat izango? –gugandik metro gutxira, eserleku tolesgarrietan jesarrita eta betaurreko beltzak jantzita, eguzkia hartzen eta berriketan ari diren bi emakumeei begira galdetu dit Humbertok.

– Bai zera. Gazteagoa behar du.

Atzera kafetegira sartu eta langileetako bati galdetu diogu, badaezpada ere.

– Bernardette? Kanpoan ikusi dut orain hogei minutu.

Hogei minutu elkarren aldamenean eta elkarren zain pasa ondoren jo dugu McAliskeyrengana, ez ezagutu izanagatik apur bat lotsatuta.

47 urte ditu, baina zaharxeago ematen du. Gozoa du begirada, deigarria eta urdina. Biribil samarra aurpegia, ile argia, nahiko motza, guk ikusitako azken argazkikoa.baino askoz motzagoa. Ez da argala, baina gizena ere ez. Udako egokia den soinekoa ekarri du, koloretsua.

– Barkatuko diguzu, baina hasieran ez zaitugu ezagutu...

Irribarre egin digu. Bere zain geundela konturatu delakoan nago, baina nahiago izango zuen adiskidearekin eguzkia hartuz berriketan segi, kazetari arrotzen galderei erantzuten hasi baino.

– Orain ez naiz egunkarietan agertzen.

Irlandan oso ezaguna da oraindik ere Bernardette McAliskey, baina egia da Bernardette Devlin gaztea mugimendu errepublikarreko aurpegi ezagunena zenetik gauzak aldatu egin direla.

Bernardette Devlinek 21 urte baino ez zituen 60ko hamarkadaren bukaeran gatazka berriro

piztu zenean, eskubide zibilen aldeko mugimenduaren inguruan antolatutako komunitate katolikoaren liderra bilakatu zenean. 1969ko apirilaren 17an, Mid-Ulster eremuko hauteskundeak irabazi zituelarik, Erresuma Batuaren historiako emakumezko diputatu gazteena bilakatu zen. «Minigonadun Fidel Castro» esaten zioten aurkakoek, «Ark-eko Joana irlandarra» aldekoek.

Garai hartan Sinn Feinek eta IRAk ez zuten indar handirik. Eta mugimendu errepublikarraren geroko sendotzea eskubide zibilen aldeko mugimenduak abiatu zuen. Orduko Sinn Feineko liderretako batek aitortu zuen 1968ko bukaeran: «Eskubide zibilen mugimendua jaio zela hilabete gutxi batzuk baino pasa ez diren arren, IRAk dozenaka urtetan baino gehiago lortu du».

Bernardette Devlin parlamentari aukeratu zutenetik hamalau hilabete pasa zirelarik, 1970eko ekainean, mitin batean parte hartzera zihoala polizi-kontrol batean geratu eta atxilotu egin zuten. Salaketa: Bogsideko Batailan parte hartu izana. 1969ko abuztuan Derryko auzune katolikoan errepublikarren eta segurtasun indarren artean izandako istiluei deitzen zaie Bogsi-

deko Bataila. Sei hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zioten parlamentari gazteari, eta lau bete zituen Armagh-eko emakumeentzako presondegian.

Kaleko borrokan ezezik Westminsterko parlamentu sakratuan ere nabarmendu zen. 1972ko urtarrileko igande odoltsuaren osteko saioan gertatu zen. Derryko manifestazioan paraxutista britainiarrek hamalau lagun hil ondorengo parlamentari-bilkuran Reginald Maudling Barne Ministerioko idazkariak argudiatu zuen:

– Soldaduek euren aurka egindako erasoei erantzunea besterik ez dute egin.

Bernardette Devlinek bero zuen odola.

– Barne idazkariak gezurra esan dio ganbara honi. Inork ez zituen paraxutistak tirokatu. Baina norbaitek egingo du, laster...

Eserlekutik altxa, aretoa oinez zeharkatu, ministroaren parera hurreratu, tximetatik heldu eta masaileko ikusgarria eman zion.

– Ez nion bizkarrean tirorik egin, eurek gure lagunekin egin zuten bezala –esan zuen orduan, bere jokaera biolentoak prentsa eta giro politiko britainiarrean sortu zuen zalapartari erantzunez.

Eskubide zibilen aldeko elkartearen inguruan bildutako mugimendu nazionalistaren sinbolo bizia zen Bernardette Devlin, baina gerora egindako ibilbideak politikagintzaren bigarren mailara eraman dute Bernardette McAliskey. Orain ez da egunkarietan agertzen.

Parlamentari izateari utzi zion urte berean, 1974an, IRSP (Irlandako Alderdi Errepublikar Sozialista) sortu zen, Seamus Costello-ren gidaritzapean, IRA Ofizialaren zatiketa batetik. Ordurako ezkon-abizena hartua zuen Bernardette McAliskeyk ez zuen ez IRA Ofizialaren ez Probisionalaren arteko hauturik egin, eta indepedente bezala jokatzen zuen. Baina Costellok IRSP aurkezteko egindako ekitaldian alboan zeukan McAliskey, errepublikar askoren harridurarako eta Costelloren pozerako.

– Probisionalak borroka nazionalean baino ez dira ara, ahazturik daukate klase-borroka. Eta Ofizialek, aitzitik, askapen nazionalerako borroka ahaztu dute. Premiazkoa da alderdi berri hau bi bideak uztartzeko –adierazi zuen McAliskeyk.

Baina gutxi iraun zuen McAliskeyren militantziak. IRSPren beso armatua (INLA) sortu berri-

tan, alderdiaren eta erakunde armatuaren arteko harremanei buruzko eztabaida piztu zen alderdiaren zuzendaritzan. Beso armatua alderdiaren erabakien menpe izatea nahi zuen McAliskeyk, baina INLAren borroka armatuan jarri nahi zuen lehentasuna Seamus Costellok. Bernardette McAliskeyk eta zuzendaritzako beste hamar kidek utzi egin zuten alderdia.

Ez du geroztik inon militatu, baina IRSPren ildotik hurbilago ibili izan da beti Sinn Feinetik baino. INLAk, IRAren suetenak irauten duen bitartean ekintzarik ez duela egingo agindu du, baina ez ditu ez suetena ez abian den prozesu politikoa sostengatu; IRSP alderdiak ere ez. Eta Bemardette McAliskey da, mugimendu errepublikarreko aurpegi ezagunen artean, Sinn Feinek eta IRAk hartu duten bidearekiko ahots kritikoa altxatu duen gutxietakoa.

– Prozesu politiko honen helburua, Gobernu britainiar eta irlandarraren asmoa alegia, ez da hemengo funtsezko arazoak konponduz bakea

lortzea. Bakea ezartzea baitute helburu bakarra, arazoak konpondu gabe bakea ezartzea.

Ikasleentzako aulki txiki batean eserita ari zaigu hizketan. Festibala dela-eta mugimendu handia dagoen arren, moldatu gara Culturlanneko gela bat guretzat hartzen. Ikasgela bat.

Irlandako Gobernuarekin eta SDLPrekin aliantza eginez Sinn Feinek bere *ohe politikoa* egin du, Estatu Batuetako Gobernuarekin ez da inolaz ere fio, britainiarrek ez dute Ipar Irlandatik alde egiteko batere asmorik, IRAk suetena iragarri zuenetik mugimendu errepublikarra gero eta ahulago dago...

Bere kritika gordinetan barkamenik ez da inorentzat, baina bere jardunean ez du haserrerik adierazten. Baieztapen zorrotzak ahots eztiz egiten ditu. Barre ere egiten du tarteka, besteen jokaeraren aldrebeskeria nabarmenen bat aipatzen duenean. Ez dut aldarte lasai eta patxadatsu honekin imajinatzen, 21 urte zituela Westminsterko parlamentari britainiarrekin borrokan.

– Ni ez nago gerraren amaieraren kontra, gerra amaitzeko hartu den bidearen aurka baizik.

– Baina zein da bidea? –argazki-kamera lepotik zintzilik jarri du Humbertok.

– Hasteko, zintzo jokatzea. Zintzo jokatu behar da hainbeste urte borrokan egiten dituen komunitatearekin, eta egia esan, bide honetatik ez goaz Irlanda Batua lortzera. Prozesu honekin hainbat jende pozik dago mugimendu errepublikarrean. Beraz, aitortu beharra daukate aldatu egin dutela euren jarrera, orain SDLPren jarrera defendatzen dutela. Orduan, hori onartuta, ni bezala pentsatzen duen jendeak bere bidea egingo luke. Eta britainiarrekin elkarrizketak egitekotan gaia bakarra litzateke: zein baldintzetan aldegingo duten hemendik.

– Irlanda Batua da irtenbide bakarra?

– Ez. Funtsezkoa britainiarrek aldegitea da, britainiarrengandik bereiztea. Ondoren erabakiko dugu irla honetako herritarrok administrazio bakarra nahi dugun, edo nahiago ditugun pareko bi administrazio autonomo. Pertsonalki, irla osorako administrazioa nahi nuke nik.

– Ongi ulertu badugu, zure iritzian mugimendu errepublikarrak borroka armatuari ekin beharko lioke berriro.

– Ez, berandu da. Zuk ezin duzu gerra itzali eta piztu, irrati bat izango balitz bezala. Ezin duzu esan, OK, has dezagun berriro gerra. Jendeak gerrarik gabeko urtebete izan du: 25 urte gerrarekin eta urtebete gabe.

Hiru seme-alaba dituzte McAliskeytarrek, eta hirurentzat berria da egoera. Gerran ezagutu dute beti herria. Alaba nagusienak 24 urte egingo ditu datorren astean, beste alabak laster 20, eta semeak 16 dauzka.

– Aurten arte, nire seme-alabak ez dute sekula kalea soldadu britainiarrik gabe ezagutu. Soldaduak hemen zeuden jaio aurretik. Gazteentzat izugarria da egoera berria! Soldaduek ez dituzte gelditzen, ez dituzte miatzen... Soldaduen enbarazorik gabe egin dezakete bizimodua. Orain «berriro gerrara» esaten baduzu, agian militanteek ulertuko dute zer egin, baina mugimendu errepublikarren ingurukoek ere esango lukete «ez, mesedez, gerrarik ez». Gazteenek esango dute: «prozesuan ezer lortu ez bada ere, gutxienez ez gaituzte hilko»; eta helduek esango dute: «gutxienez gure seme-alabak ez dituzte kartzelan sartuko»... Nahiz eta dauden presoak atera

ez, gutxienez ez dira gehiago barrura sartuko! Gizakiak gara! Errealista izan behar da. Ez dago gerrara itzultzerik. Hau ez da suetena, gerra bukatu da.

This war is over. Bost aldiz esan du esaldia Bernardette McAliskeyk. Komentzituta dagoela adierazteko, edo esaten ari denaren garrantzia nabarmentzeko. This war is over, the war is over.

McAliskey ez da ez INLAko ez IRAko kide izan, baina ez du horren beharrik eduki gerra hurbiletik ezagutzeko. Etxera sartu zitzaion.

1981eko urtarrilaren 16an, Tyrone konderriko Coalisland-en, aurpegia estalita zeramaten hiru lealista McAliskey familiaren etxera sartu eta tiroka hasi ziren. Bi alabak jazten ari zelarik Bernardetteri zazpi bala sartu zizkioten gorputzean, eta zauritu egin zuten senarra ere. Bernardette oso larri eraman zuten ospitalera, baina onik atera zen.

Garai kritikoak ziren mugimendu errepublikarrarentzat. IRA eta INLAko presoen lehen gose greba amaitu berria zen (abenduan), baina ez

ziren bete jarritako helburuak, eta bigarren gose greba hastear zuten Bobby Sandsek eta bere kideek. Bernardette McAliskey buru belarri zebilen presoen aldeko borrokan.

H blokeetako borrokaren oihartzuna Irlandatik kanpora atera zuenetakoa da. Hain zuzen ere, McAliskey Euskal Herrian zegoen preso errepublikarren borrokaren berri ematen, Long Kesheko lehen gose greba hasi zenean.

– Bartzelonan izan nintzen aurrena eta Bilbora joan nintzen segidan. Bilbon nengoela jakin nuen presoek gose greba hasiko zutela, eta berehala itzuli nintzen Irlandara.

1980ko urriaren amaiera zen. Abendura arte iraun zuen lehen baraualdi hark, eta hurrengo hilabetean jasan zuen atentatua. Hilabete t'erdira Bobby Sandsek jateari utzi zion, eta mugimendu errepublikar osoa presoen borrokaren inguruan mugitzen hasi zen berriro. Kataluniara itzuli zen McAliskey, Espainiako agintariek galarazi arren.

– Bigarren gose grebaren garaian, Bartzelonan antolatutako manifestazioan eta mitinean parte hartzeko asmoz joan nintzen. Baina atxilotu egin ninduten aireportuan, eta lehenengo he-

galdian Erresuma Batura bidaliko nindutela esan zidaten. Nahi zuten lekura bidaltzeko eskatu nien, baina Erresuma Batura ezetz. Parisera eraman ninduten. Han lagunak neuzkan, eta trenez Frantziako hegoaldera jaitsi eta muga menditik barrena pasa genuen autoz. Bartzelonako manifestazioan parte hartzen ari nintzen une berean, kanporatua izan nintzela eta mitinean ez nuela hitz egingo esaten ari ziren irratian.

Gose grebaren inguruko borrokaren norabidean garrantzitsua izan zen erabaki batean zerikusirik eduki zuen McAliskeyk. Fermanagh-Hego Tyroneko parlamentaria, Frank Maguire unionista, hil egin zelako hauteskundeak deitu zituzten hautes-eremu horretan. Bernardette McAliskeyk hautagai aurkeztuko zela jakinarazi zuen, eta ez zuela bere hautagaitza atzera botako baldin eta H blokeetako preso bat aurkezten ez bazen. Jirn Gibney Sinn Feineko burukideak ideia hartu eta alderdiko buruzagitza komentzitzea lortu zuen. Hauteskundeak galtzeak ekar zitzakeen kalteen beldur ziren Sinn Feinen, baina ausartu ziren azkenean: Bobby Sands parlamenturako hautagai aurkeztu zuten. Aurkeztu eta irabazi.

Apirilaren 9an egin zen Sands parlamentari. Irtenbiderako giltza izango zelakoan zeuden asko, baina ez: maiatzaren 9ean hil egin zen. Bernardette McAliskeyk amesgaiztoa deitzen dion garaia hasi zen.

– Amesgaiztoa zen. Zure kontroletik erabat kanpo zegoen zerbait. Ezin genuen lortu britainiarrek amore ematea, eta ezin genuen gose greba geldiarazi. Gure eskuetatik kanpo zegoen gertatzen ari zena. Amesgaiztoa izan zen.

Britainiarrek zein jarrera izan zuten oraindik ere sinetsi ezin balu bezala mintzo da.

– Hamar lagun hil zitezen utzi zuten britainiarrek. Ez denak batera, banan-bana baizik. Jendea politiki-poliki hiltzen, eta britainiarrei ez zitzaien axola.

Martin Hurson IRAkidea gose greban 45 egun egin ondoren hil zen, uztailaren 13an. Bizia galdu zuen seigarren presoa zen eta, zenbait senitartekorekin batera, Eliza Katolikoak gose greba eten zedin gero eta eginahal handiagoak egiten ziharduen. Hursonen hileta elizkizunean, apaizak gose greba gaitzetsi zuelako, Bernarde-

tte McAliskeyk, haserre, aldegin egin zuen elizatik.

Handik hilabetera, McAliskeyk hilzorian zegoen Micky Devine INLAko presoa bisitatu zuen kartzelako ospitalean. Ordurako bederatzi preso hilik ziren, eta gose grebaren jarraipenaren aurkako presioa gogorra zen. Micky Devinek Hursonen hiletan gertatutakoa gogorarazi zion ohetik:

– Nire hiletan ere hanka egiten baduzu, kanpora eraman nazazu zurekin, Bemardette.

Hurrengo astean eman zuen azken arnasa Devine gazteak, 1981eko abuztuaren 20an. Hamargarrena zen, eta azkena. Urriaren 3an gose greba bertan behera utzi zutela jakinarazi zuten H blokeetako presoek.

Amesgaiztoa amaitu zen.

Slan

Clonard elizaren ondoko Cabine tabeman gauden guztiok euskaldunak garela konturatu naiz. Gure tabernen estilokoa da Cabine. Belfasten ezagutu dudan txikiena eta estuena. Barra bat, hiruzpalau taburete eta lau mahai baino ez. Dozenerdi antzuolarrek hartuak dituzte tabureteak eta mahai bat, eta Zarauztik etorritako zortzikoteak bere egin ditu gainerako hiru mahaiak.

Cabineko jabeak, Brendanek, badu euskaldtrnon berri. Antzuolatik etorritako lau lagunek bere etxean hartu dute ostatu. Urteroko ohitura.

– Antzuolan izana naiz neu ere, iaz –Brendanek AEK-k ateratako poloa dauka jantzita–. Ezusteko ederra hartu nuen!

– Ezustekoa?

– Antzuolar batzuk lehenengoz gure Festibalera etorri zirenean primeran pasatu zuten, itxuraz, eta urtero etortzen hasi zen Antzuolako jendea. Euskal Herrikoren bat ezagutu eta nongoa zen galdetuz gero, Antzuolakoa erantzungo zizun. Horrexegatik, Euskal Herriko hiri nagusie-

netako bat zela uste genuen hemen. Joan den urtean joan ginen arte! Kontuak aterata, bazirudien antzuolar guztiak Belfasten izanak direla! Zer Belfasten, hementxe, Cabinen!

Antzuolarrak etxekoak dira. Zigilua utzi dute: «Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik», irakurriko duzu Fallseko taberna honetako paretean itsatsitako pegatinan. «Herri harmatua, inoiz ez zanpatua» zaharra ondoan, eta aurten ekarritako «Euskal Herria askatu» ere paratu dute. Joan den urteko Festibalean taberna barruan ateratako argazkiez moldatutako panel bat ere badago: ziento bat argazkietatik hogeiren batean zahatotik edanez ageri dira bezeroak.

Fallseko Festibaleko euskal delegazio extraofiziala da Antzuola. Ofiziala Askapenak bidaltzen du. Aurten inoiz baino gutxiago etorri dira Askapenako taldean. Hogeita hamar inguru izan ziren azken urteetan, eta ez dira hamabost aurten. Brendanek badaki zergatik.

– Orain gerrarik ez dagoelako izango da. Bake prozesuan aspergarriagoa egingo zaie Belfast.

Delegazio ofizialekoak erdi-antolatuta dituzte hemen egingo dituzten hamar egunak. Festibalaren batzorde antolatzailekoek lotarako lekua aurkitu diete lagunen etxetan eta, Sinn Feinekoen laguntzaz, harat-honat eramango dituzte Belfasteko eta Ipar Irlandako bazterrak ikustera.

Belfast Mendebaldeko Festibalaren aitzakian daude denak. Fallseko jaien aitzakian, beste era batera esanda. Hamabost egunean kontzertuak, antzerki emanaldiak, mahainguruak, zinemaldia, tour turistiko-politikoak, erakusketak, kirol norgehiagokak, desfileak... eta azken egunean, Sinn Feinek deitutako manifestazioa. Festibala ez du Sinn Feinek antolatzen, Festibaleko batzorde antolatzaileak baizik, baina jakina da mugimendu errepublikarrak sortutako jaiak direla eta gaur egun mugimendu errepublikarreko militanteek antolatzen dutela.

Festibala 1988an antolatu zuten lehenengoz. Urte hartako udaberrian lurjota zegoen Fallseko komunitate katolikoa: Belfast Mendebaldeko

hiru IRAkide hil zituzten soldadu britainiarrek, hauen hiletan hiru lagun hil zituen Michael Stone lealistak, eta haietako baten hiletan bi soldadu jendeak jipoitu eta IRAk hil egin zituen; eta azken gertaera honen ondorioz, 200 lagunetik gora atxilotu eta 41 auzipetu. Dena hilabete bakarrean. Martxoan.

Gatazkari aterabiderik ez zitzaion ikusten, eta enfrentamendua aspaldiko gordinena zen. Komunitatea bere buruari zerbait emateko premian zegoen, zulo hartatik ateratzen laguntzeko. Eta Festibala eman zion: Feile an Phobail (Herriaren Festibala).

Aurten abuztuaren seian zabaldu da sona handiko Festibala. Ihauteri-desfilearekin ekin diote, taxi beltzen konpainiako geltoki nagusitik abiatuta. Castle Court-en bildu dira denak eta, auzuneka antolatuta, Falls errepidean gora etorri, izen bereko parkeraino. Etxe ondoko bidegurutzean itxaron diegu.

Hogeiren bat taxi beltz datoz desfilearen buruan, bozinak jo eta jo, Irlandako bandera bana erakutsiz. Kamiseta zuridun ume koadrila handia dator taxien atzetik. Gure pareraino heldutakoan

irakurri dugu kamisetetan idatzita dakartena: «Free all POWs!» (Prisoners Of War, Gerra Presoak askatu!).

Auzunez auzune atondutako karrozak, parodiak eta musika bandak hurbildu dira gero. Orangisten martxaren plantak egin dituzte Beechmount-ekoek, hurling taldea ekarri dute Lower Fallsetik, Ian Paisley eta John Major ere ikusi ditugu, kartzela ere bai Saoirse-ren karrozan... eta ikurrina. Euskal ordezkaritzak ere izan du lekua ihauteri-desfilean. Karrozarik ez, baina arrano beltza eta ikurrina bai.

Gerry Adamsek zabaldu du era ofizialean Festibala, Falls parkean ipinitako taulatik. Humbertok eta biok jantzita daukagun kamiseta berdina darama Gerry Adamsek ere: «Feile An Phobail 95. West Belfast. 6-13 August». Umoretsu jardun du eszenatokian. «Jaiak bai borroka ere bai» izan da bere azken mezua.

– Tiochfaidh ar la! (Iritsiko da gure eguna!)– Bobby Sandsen esaera ospetsua gorde du hitzaldi bukaerarako; azken agurrean bakarrik erabili du gaelikoa.

– Springhill-eko kontzertuen antolaketa IRAko mutilen kontua da –Festibaleko egitasmoan interesgarriena zer den azaltzen ari zaigu Karen–. Oso ongi antolatzen dute, gainera.

– IRA musika-kontzertuak antolatzen?

– Ez da ofiziala, noski, baina Fallsen denok dakigu IRAkoek antolatzen dutela Springhillekoa. Kontzertuen atsedenetan-eta, burua estalita taulara igo eta tiroak bota izan dituzte. Jendea izugarri berotzen da horrela.

Bart Springhillen izan ginen, The Pogues taldearen kantari izandako Shane McGowan-en kontzertuan, baina han ez genuen ez kaputxadunik ikusi ez tirorik entzun.

– Treguan gaude Festibalean ere. Gerrarik gabeko lehenengo Festibala da.

Culturlanneko kafetegian gaude Humberto, Karen eta hirurok, te bana mahai gainean, Festibalaren programari errepasoa ematen. Kate hurbildu zaigu eta mahaian gurekin eseri.

– Zer, kontzerura?

– Asmo horrekin gabiltza. Mano Negra entzuteko desiratzen nago –Saturrarango kontzertu ikaragarria daukat gogoan.

– Mano Negra? –Katek ez du taldea ezagutzen, nire harridurarako–. Anji-rekin joko duen taldeetako bat?

– Anji? Nor da Anji? –Kareni begiratu diot argibide bila.

– Anje Duhaldez ari da; iazko Festibalean ere hemen izan zen –niri–. Eta Anje esaten dute –Kateri–, ez Anji.

– Anje! O, izugarri maite dut Anji! Guapo askoa da! Ez zaizue gustatzen?

– Tira, ez dago gaizki –Humbertori ere ez dio kilima berezirik egiten.

– Nahiago Mano Negra –egoskorra naiz gero.

Mano Negratarrek lehenengo abestiko notei ekin dietenean altxatu gara kolpe batean. Guinness katxiak eskuan hartuta, taularen aurreraino hurbildu gara arazorik gabe. Guinnessak taula gainean utzi eta gorputza astintzeari ekin diogu. Ez da ulertzekoa. Gehienek mahaietan eserita segitzen dute; euskaldunak gara altxatu garen ia

denak. Itxuraz, Mano Negra ez da hemen batere ezaguna.

Beechmount-eko kiroldegian gaude, Nazioarteko Gauean. Guinnessak plastikozko edalontzi handietan atera dizkigute.

– Hau ere badugu. Pintak barik katxiak edan behar –Humbertok ere nahiago du irlandarrez betetako Belfast, ikurrinez betetakoa baino.

Frantziarrak indartsu ari dira. Irlandarrak ere hasi dira eszenatoki aurrera hurreratzen. Dantzari-jauzilari multzo ederra bildu gara, elkarri bultzaka. Ikurrina atera du saxofoilariak, eta gerrian lotu. Guretzat ari dira.

Ingurura begiratu eta Belfasti adio esateko garaia heldu zaigula konturatu naiz. Antzuolarrak, zarauztarrak, hernaniarrak, donostiarrak, bilbotarrak eta astigarragatarrak begieman ditut. Gutxiago dira irlandarrak. Eta pintak katxi bihurtu dira.

– Thank you very much! Eskerrik asko! Nos vemos en Bilbao! –esan du Manu Chaok.

Nos vemos en Bilbao... Euskal Herri txikia bilakatu da bat-batean Belfast handia.

Adio Antzuola. Gu bagoaz. Slan.